

ANTONIO TRUEBAREN IPUIÑAK IIIATALA



OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

JOSÉ
MARÍA
MUÑOZ

BILBOKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAZ ARGITARATUA

ANTONIO TRUEBAREN

IPUÑAK

III

ATALA

ANTONIO TRUEBAREN

**IPUIÑAK
III
ATALA**

**ITZULTZAILLEA
OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO**

**ARGITARATZAILLEA
ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA**

BILBOKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAZ ARGITARATUA

AURKIBIDEA

ETXEKO JUDAS	7
JAUNGOIKOAGAN SIÑISTEN DOT	45
KARDONA BAÑO ASKARRAGOA	71
ILDAKO BATEN GOMUTAPENAK	85
LOZOYA.....	91
GIZONA TANKERA DA.....	99
ELARDIA	121

ETXEKO JUDAS

Zure gogamen begiakaz, nire kutun maitea, Kadagua bazterrera, ibai bitsu, ur garden, ozkirriduna, ta zio onein ondorioz sekulako edertasunak geienbat arropuztuten dauan ibai bazterrera, bere luzaera osoan, zure gogamen begiakaz, barrero dirautsut, nire laguntzaile, bidalikide, izan zaitez. Kadagua ibaia bere sortze Mena aran, ibar, bere ikusmenetik estaldu arte, sortze aranetik aldentzeko, aldendu al izateko izan eban leia, premiñagaitik, Jaungoikoak Ibaizabal ibaian ondatu arte, zigortze lez, bost milla bitarteko uts-utsean egin eban.

Gueñes ibairañ zure gogamenez nire bidalikidea izan zaitez, Enkartarri lurralde-tako politenatariko erritxua, nik neure ipuin mingarriena ta beraz poz-gabekoenantzat antzoki bezela aukeratu dodan erritxu kutuna.

Ibar, aran barrenetik, sakon barrenetik arinka arinka, deabruari igeska joango balitzake bezela, Kadagua zentzungabeko ibaia doa. Bere Ipar eta Egoaldetik mendi goiak, luzeak, euren magaletan gaztain eta areitz kerizpetan an emenka ezarrita, basetxe zuri margodun batzuk, agertzen dira.

Erriko Ama Birgiña Donearen eleiza babesten dauan bizkartxu baten, Somos mendiketa, mendi-lerro onen leenego mailaditariko ba dirala esan leiteken tontrotxu baten, Somos Iparraldeko mendien izena da, mende onen asieran Etxeederra eritxon basetxe bat egoan.

Bere izena benetan zan zuzena, ondo be ondo etorkion etxe areri, etxe ederra izena, ba da sekulako ederra zan.

Etxea mullu-edur añaiko zuria mendiskaz iguratuta, intxaur eta kereix abaro baten erekita agertzen zan, bere aldamenean anega batzuk lur ondo landuta, Etxe-derraren etxeguntza osotzen eben.

Esparru osoa matsar eder batzuk ertzatzen eben barne osoa karkabaz ur-bazter-

katuz, eta esperrua banatzen eben solo ezbardifien mugak, sagar eta madari adartsu, marduk, lerroak, bakoitzaren mugak azaltzen ebezan.

Etxeederra basetxea sekulako tokirik eder, politenean eraikita egoan, etxe onen leioetatik zugatz adarduntsuak zearkatuz, Kadagua ibaiaren bazter biak ikuspegi naiko aundian, luzean, ikusten ziran, eta baita be Somosetik, kereix eta inxhaustietatik biraka-biraka jaitsitzen zan errekatxua, beti zidarra bezela garbi ta edurra aifnako ozkirria.

Ekaiñaren azken egunak ziran. Etxeederrako biztanleak basetxe aldamenean, ingurua kerizpetuz, egoan landa, lantzar baten, otsarakada bat kereix batzen saiatzen ziran. Bide batez arratsalde, arrasti aretako eguzkiaren azken izpiak gozatzen egozan.

Arretaz, Inazio, kontuz, ez zaitetz jausi, ba da zuk ludi osoko kereix guztiak baño geiago balio dozu ta, amasei urte inguruko gazte bateri, urtetan naiko sartuta zan andrazko batek iñotsan. Gazteak, kereix-zugatz batera igonda, kerix-txortaz beterik egozan kimuak banan-banan otsaratxu batera, jaitsiten ebazan.

Ama, ez eizu ardurarik izan zugaitz oneik ondo be ondo ezagutze dodaz, gazteak esan eban.

Seme, zu txerpolaritzan neurritik kanpokoa izango zintzakez.

Andra-nekazariak kereix-otsaratxua zugaitz orpoan egoan beste otsara aundiago baten, irauli eban.

Ara, mutikoaganaturik, jaitsi ziatez, amak, bere amak esan eutsan, otsarea bete-bete eginda dago, ta zure aita ta zure anaiak euranagaz bardin egin dabe, betetu dabe.

Mutila, saltu bat egiñik, lurreratzen da.

Beste gazte bat, lau edo bost urte zaarragoa, urtetan naiko sartua zan gizon baten alboan egoan zugatz batetik, une beratan jaitsi zan.

Aurrerago aitaturtako gazte bi oneik, alde banatatik kereix-otsarakadea artuta, besteakaz batzera joan ziran.

Apur bat geroago danak kereix adartsu baten kerizpetan atsedean apur bat artzen geratu ziran, jazarri ziran.

Agureak bere jakearen kanpo aldeko boltsillutik, upel batetik ubel-buruan biritu bildu ta lotuta zan azurrezko eztendu antzeko bat, txakur-narruz egiñiko zorro, lotura bat, atera eban; lotura, zorrotxua edaturik, bertatik igeltzozko pipa bat atera ta bere aboan ezarri eban.

Gaztetariko zaarrenak bardin-bardifia egin eban.

Patxi, pipakada bat errekin emoidazu, errekiña amaitu jat eta, errekin-zorroa bein eta barriro arakatuz, agureak esan eban.

Aita, neuri be amaitu jat, bere pipakadea bete barri zala, Patxik erantzun eutsan.

Guzurti ori! asarraturik Inazioak iñoan, atzo neuk Bilbotik kuarteroi bat ekarri ba neutsun...

Zuk beti barritsu bat izan bear!

Eta zu beti zeken, berekoi bat izan bear!

Ez dot nai. Errekiña gura dauanak, erosi dagiala.

Ez zara lotsatuten?

Utxi, itxi, eiozu, Inazio, agureak etsimen goibeltasunez piñea ostendurik, esan eban, ba da danok dakigu, etxeko danok dakigu, zer itxaron daitekeen zure anaiagandik.

Martin, atsotxuak iñoan, ori da gure etxeko Judas! Orrek gu danok beste ludira eroango jaitu! Ori...

Ixildu zaitez. Miren, arren, Martiñek andrea ixil-arazi eban. Errekiña atsegintsu ba jat, bakea atsegiñago dot, eta.

Bakea izango ez ba dogu be, zuk errekiña eukiko dozu, etxerantz arifieketa baten abiaturik, Inaziok iñotsen.

Minutu pare bat geroago, errekin orri bat, ari kordel baten antzera biurriturik eskuan ekarrela, itzuli zan.

Eutsi aita, naizta nik ez erre, ba dakit zuk errekiñik ez daukazunean zenbat nekarazitzen zaran, eta atzo nire anaiak agindu eustan kaurteroia erosi nebanean, bide batez, zuretzat, zure estu-aldietarako, beste kuarteroi bat erosi neban, semeak bere aitari esan eutsan.

Bai, orri ori nire kuarteroitik zizaturiko zenduan, Batxi erantzun eban.

Ara Batxi, eroapena galdu ez dagidan, ez naizu zirikatu. Txarto egiten dauanak, uste izaten dau, beste guztiak zitalkeri bardiñak egiten dabezala.

Ara, Batxi, beragana urreraturik, Mirenek esan eutsan, zure gogaimenak ez ez zure egiteak be, guztiz doilorrak dira.

Ala, ala, alkar-zirikatze ori baztertu eizue, Martin bakezaleak iñoan. Euskotarrontzat, Osagille eta idazleakaitik... errekin zaleak ez zarienokaitik, erretan ez dozuena-kaitik, ain gaizpetua dan griña txar au, zenbateko, ze atsegintsua dan, Martin bere pipakadearen kegaz une aretan ze atsegintsu, zenbat gozaten eban jakingo ba zeunkee, gai onen buruz zuen eretxiak betirako aldenduko zeunkeez.

Aje, griña txar onetatik, errekiñ-orria errete ajetzat begiratua zuzena izango balitz, ludiko txiroenei be (erreten ez dozuen Osagille ta idazleok... parkatu) euren osasun eta diru-zorroei esateko, aintzat artzeko kalterik egin-gabe, atsegin eta alaitasun bizia eragiten dautsen griña aretatik aldendu, baztertu, naian, nire amak G.B., Jaungoikoak beragaz izan dedilla, azaltzen eustan eredu bat gogoratzen dot.

Zure aitita, iñostan, ludiko gizonik baketsu, eramankor eta ona zan, lan, bear, neketsu gogorren guztiak beragandik bere alaitasuna aldendu al izateko, ez ziran izaten gauza, zio naikorik; ostera erregiñ barik aurkitzen zanean, gure etxea, egoitza, inpernu bat dirudian eta berantzat errekiñ barau aregaz ez egoan poz-aldirik. Ostera errekiñ ugari eukanean, sekula ez zan ikusi goibel ez alditxar asarratuta.

Alperriko onuak! Nire amak azaldutako eredu onaren esan-naia okertuz, ilobeak bere baitan iñoan: "Nire aitita errekin zalea ba zan, ain gozoro erreten ba eban, errekiña zerbait ona izan bear dau".

Eta leenengo irabasi, eskuratù, nebazan lau bost txanponakaz ontzan bat errekiñ eta pipa bat erosita, alboko gaztañadira joan nintzan, eta lo-bedar erreziale bat bezela lo-zurrunduta geratu arte, nire aititarentzat sasi-jaungoikoa zana, gurtu neban.

Orain nire aititak bere ilobitik burua jasoko baleu!

Ederto ilobatxu maitea, esango leuskit. Zugaz guztiz pozik naz, ba da zuk sendiaren oiturak ondo zaintzen dozuz.

Martiñegan bariro bakea zan. Martiñen sendian bakea zan. Eguzkia guztiz estalduta, ta naizta eguna bero-larri, sargoritsua izan, ordu aretan, iluntze aretan egoera, egoaroa, atsegingarria zan.

Beingo baten afalduko dogu, Martiñek esan eban, eta ondoren, bereala ogeratuko gara, ba da biar goiztatu bear dogu ta. Alan da ze, goazen etxera, Juanak, ziur, afaria gertuta eukiko dau.

Ara Martin, andra-nekazariak bere gizonari esan eutsan, oba izango da bertan afaldu dagigun.

Bai, bai, aita-semeak erantzun eban. Etxean, etxe barnea bero larregi izango da, ziur.

Juana! etxerantz begiratu, oiuka Marik dei egin eban.

Zer gura, nai, dozu ama maitea? etxeko leio batetik bere burua agertuz, neskatik gazte batek, erantzun eban.

Afaria gertu daukazunean ekarzu, ekarri eizu, emen bertan afalduko dogu ta.

Ba, oraintxe noa ama, neskatik esan eban.

Une batzuk geroago, azpil zuri bateaz estaldurik, erratilu bat egundoko sardiña bizi-bizirik erreta ta arto samur, urrea aifako ori, beilegiak, kereixtegitantz abiatu zan.

Juana, amazortzi-ogei urte bitarteko neskatik, Kepa Deuna goizak baño irribarretsuago ta larrosak aifako margodun, neskatika zan.

Erratilu kereix-orpo baten buruz-bera ezarrita oial bateaz estaldurik, ustegabeko mai ganean sardiña-azpilkadea ezarrita, arto serra batzuk ebagi ebazan eta erretailu inguruan apaintarreen ogi zatiak ezaririk, Martiñen mai-bedeinkatzea ondoren, sendi osoak alai ta baketsu alkar-izketan afaldu eban.

Kereixak euren astuntasunetik bagoaz arinduten, agureak esan eban, eta zuzen be On Joxe jaunagaitik senditzen dot.

On Joxek, Batxik erantzun eban, ez dau larregi sentiduko, ostera txoriek bai sentiduko dabe.

Kereix-igaliak amaitzen diranean, goizaro mezea emon ondoren, gure etxeko leiotik oso ta mikak danbadatzen, On Joxe ez da etorriko... Mika egosi-eziñekoak! Naizta kereix-zugatzetan edozelako txori-jagoleak, ezarri, mika deabru orreik, aldraka etorten dira.

On Joxetaz izketan, berbetan, gagozan ezker, Mirenek ifioan, zelan gaur goizean ez ete da etorri?

Gaur Kastron dago, bere loba indionotarragaz topo egitera, uri orretara joan dalako.

Olan dala, gaur elduko da bere loba, ez? Poztuten naz! la zure anaiaren barririk ba dakarsku!

Jaungoikoak olan izatea nai, gura dagiala! Ain aldi luzean, Mexikotik idatzi euskunetik nire anaitzaz ezer ez jakitea, benetan arritzekoa da! Ez dakit zergaitik, baiña ilda dala bururatzen jat, ba da bizirik balitz, bera danagaz, guri idatzi barik ez litzake gongo.

Nik be olan uste dot, Martin. Ez gaitula maite, ezin daiteke esan. Bere azkenengo gutuna maitekorragea ezin izan eitekean.

Tamala da deabruak eroan ez daualako! Batxik esan eban.

Ama Birgiña obengabea! Mirenek iñotson, zelako arimea dozu zuk, seme!

Ze ardura da guretzat bera ilda edo bizirik egoteak, sekula txakur txikirik bialdu ez ba dausku?

Nik nai, gura dodana da, Martiñek iñoan, bizirik egon daitela, luzaro bizi daitela. Naizta urre-gorritz beterik egon eta gure azken-egoitzarako be amuikorik beragandik ez eskuratu, zorientsu ta luzaro bizi daitela, gura dot.

Baiña, Mateo On Joxe jaunaren lobe, Mexikotik dator?, Juanak itaundu eban.

Nik ez dakit, amak erantzun eban, baiña alde aretatik izan bear dau, Indiatatik dator eta, ganera guttiz aberats ei dator.

Poztuten naz, batez be On Joxegaitik, ain jaun ona da ta! Martiñek iñoan.

Ixildu zaitez!, Batxik esan eban. Gaztaneditik datozen areik, ez dira? Bai, bai, On Joxe an dator. Erromako ziztriña aitatu orduko...

Ixildu zaitez siñis-ausle, lotsa-gabe ori!, Mirenek ixil-arazi eban. On Joxe ziztrin bat dala ez dau esan ba!

II

Alan zan, gaztañedi zearkatzen eban bidarri batetik, basetxetik asao barik, bakoitza bere mando ganean, eta indianotarraren bideorniak gidaritzen eban beste mando-sail bat izanik, abade jaun ta Mateon lobe, agertu ziran.

On Joxe jauna, Gueñesko Andra Mari Donearen erretorea zan, agure naiko lodi-kote, gizona, bere aurpegi ta bere itz, berbak, bere biotzon, adikorren irudi berbera ziran. Ostera indianotarra ogeta urtetako gazte jasekoa.

Etweederrako biztanleak, gaztea agurtzeko naian, beragaz topo egitera joan ziran, baiña danak ez, biztanle guztiak ez, Batxi izan ezin beste guztiak joan ziran, onek erratailluan geratzen ziran sardiñak jatea, On Joxe ta bere lobe agurtzen joatea baiño naiago eban.

Nik, indianotar eta bere osabeaz zer ikusirik dot?, iñoan Batxik, batek eurakandik artu al izango dauanagaitik...

Abadeak, bere eleiztarrak ikusi orduko bere mandoa geldi-arazi eban, eta indianotarrak bere mandoaz bardin.

Ola Martin! Ola Miren!, osaba-lobak esan eben.

Arrastion, arratsalde on, On Joxe jauna ta laguna, danak batera erantzun eben.

Baiña zelan izan daiteke, Mirenek iñoan, zaldun au... izatea?

Mateo indianotarrak leiatsu erantzun eutsan, orain sei bat urte osabeaz Etxe-ederarra joaten nintzanean, zuen zugaitz-igaliak arrikadatzen ebazan mutiko ziztrin, biurkitariko bat, neu naz.

Bedeinkatua izan bedi beti Jaungoiko Jauna! Nork esango eban! Ba berori...

Ze berori ta berori bako! Zuek, ume mokoti bat nintzanetik ezagututa, orain ez

litzake beariko besterik! Izketa-era ori baztertu eizue. Ara, Juana bai, neskato eder eta lirain bat eginda dago!

Neskatilatxuak bere begiak makurtu ebazan, eta bere matrailak arrunki larrosa bi bezelakoak ziranak, klabelin biurtu ziran.

Inazio be zelan azi dan, zelan luzatu dan!, indianotarrak jarraitu eban. Eta zer diñostazuee Batxitzaz?

An goian geratu da...

Endekatu ori beti lez, ez da egia? Ludi onetan zenbat unetan kezka arazi nau!

Eta berorreri zelan joan izan jako?

Zuen beroriketa ori ez dot onartzen, Martin...

Baiña bat ezin da oituratu ta...

Ba bearrezkoa da oituratu zaitezen. Anbatean, olan olan izan naz. Neure erri, aberri, lurraldea asko maite dot, eta batez be nire osabea; umezurtz geratu nintanetik nire aita bera izan dot. Alan da ze diru apurtxu bateaz, gitxi, gutxi, bai, baiña ni andikeri-gabea izanik, eta lurralde onetan zoriontsu bizitzeko naiko-bat eskuraturik, neure baitan niñoan: "Gueñesera itzuliko naz, osabea be zaartxu da ta, beragaz bizi, berari lagundu ta beragandik artutako mezedeak, bera mizketatuz beragan dodan ordaindu-eziñeko zorra apur bat arindu, ezlitzeko..."

Baiña zer diñot, oraintxe gogoratu naz, zuek Bizkaiko eberatsenak izan bear dozue.

Jaungoikoari eskerrak, arto zati baten naian, gurarian jan eziñik ez gara.

Zer diraustazu, Martin? Eta ondorena, oiñordea?

Zein ondoretzaz jarduten dau beorrek, On Mateo?

Ala, barriro be berori orregaz! Zure anaiarena. Zure anaiarena Jaungoikoagaz izan bedi.

Gure Jaun eta Jaungoikoa! Orduan il da! Martin eta bere sendi osoak negarrez oika esan eben.

Ezin dot egiz baieztatu, indianotarrak apur bat zalantzaz erantzun eban. Naiko makal egoan eta.

Aaa! Orduan il da, ez? Ez zaigu berorrek ukatu... arren.

Bai, orain urte bi il zan, indianotarrak erantzun eban, baiña izan daiteke zuek ez jakitea? Eta zuentzat izendatuta ondorengo bezela geratu zan dirutsa izugarriagaz, zer izan da ba?

Eskuratu dabenak, gorde dagiela!, Martin eta bere andra ta bere seme-alabak batera, esan eben.

Adiskideak, abots maitasunez abadeak iñoan, ilondokoak ogiaz ez dira aiñakoak. Gai onetzaz biar alkar-izketa bat egin bear dogu, orain ez zagoze zuok olako arazotarako ta.

Gaba ilunetarantz sartu zan. Abade ta indioanotarrak sendi a poz-araziten alegiñak egin ebezan, ondo saiatu ziran eta eurakandik agurtuta, bata ibarrerantz eta bes-tea bere basetxeartaz abiatu ziran.

Il da! Il da! Kereixtegira eldutean, bere aita ta anai-arrebak, Batxiri esan eutsoen.

Eta aberats zan? Oiñordeko izendatu gaitu?, alai ta alaiatsu, Batxik itaundu, gal-
detu eban.

Batxi, Martiñek gogortasunez diñotso. Ze biotz zikina dozu!

Eta egia esan, Martiñegan, gizon on, deduzko, baketsu bera, gogortasuna, asar-
raldia zan.

Beingo baten basetxeko atetik danak estaldu ziran. Kereixakaz ez jan zan iñor
gogoratu, urrengo goizean txarriak jan ebezan, txarri-janari izan ziran. Urrengo goi-
zean kereixakaz Bilbora joatea, iñor ez zan gogoratu Martiñen etxean, Martiñenean,
ameriketar aidearen eriotzeak uts-utsean arduratzen ebazan. Batxi, beragandik, ilda-
kogandik, ondasun anbat izango ba eban azterkatuz, eta gaiñerokoak, ildakoagaitik
negar egिñez.

Biramoen goizean, eguzkiaren leenengo izpi alaiak agertzean, abadea Etxe-ede-
rrarantz igoten zan. Egun aretan beste egun batzuetan bezela eiza-izkilua ez eroan,
gertaera orren ganera Mateo eban lagun. Basetxean bareneratu zanean, abadeak
Martin eta bere Marin eta bere sendia apur bat nasaiago, etsipen obean aurkitu eba-
zan. Aurregunean baño aldarte obeagoan, eta diru-arazotzat berba, itz, egiteko gertu
egozan.

Ara Martin, indianotarrak esan eutsen, bearrezkoa da errozoizkoak izan zaitezen.
Ildakoak ondorengo berezia zu izendatu zinduzan ezkerro, ondorena zuk itzuli-arazi
bear dozu, zuk dozu tirakisuna, naizta beragaz gero, ondorengoaz, txiro, beartsuak,
gosedunak asetu, diru orreik txiroen laguntza izateko uts-utsean izan.

Errozoia dozu, On Mateo, zuzen zara, Martiñek erantzun eban.

Orduan ederto, gai onen buruz zer jazoten dan, zueri azalduko dautsuet. Zure
anaia ogeta bost milla peson jabe zan...

Ogeta bost milla peso! Batxik oiuka iñoan, eta sekula txakur-txiki bat beragandik
es dogu eskuratu!

Berorren osabea apur bat zekena zan... Baiña ildakoak itxi, utxi, dagiguzan
baketan eta biziakaz borrokatu dagigun. Borrokatu bear doguzan biziak, ildako biotz-
ondunan uste-ona geikeriz erabilliz, ondorengaz geratu diranak dira. Zure anaia
azkenai-betetzailleak, ildakoaren naia, guraria, zintzo bete dabela Mexikon zabaldu,
jakin-arazi dabe, eta danak, edo geienak, guzur berebil au ontzat artu dabe.

Beraz, bereala eskutitz bat, gutun bat eurari bialtzea bearrezkoa da; beratan
ondorena azalduz, eta tirakisuna zeurea izanik, berari dagokion kopuru osoa ainbat
lasterren eskuratzear, eskertuko dozuezela esanez. Ez-entzun egiten ba dabe, ez ba
dogu euren erantzunik, ikusiko dogu euren ajolagabekeria zelan osatzen dogun.

Ederto On Mateo jauna, zure aolkuak zintso, zeatz batuko doguz.

Etxe-ederran zetan ez zegaz idatzirik, gutuna idazteko, ez egoan ezkerro, abade
jaunak Batxi bere etxera, abadenera, bialdu eban. Antonia bere gilzaintzariak papera,
ingia, ta idaztur, tintea, emon egiozan.

Batxi bera bezelako alper, nagia zan, baiña ondasun ikaragarriak bitarteko ziran
lez, eta eurakandik zati on bat itxaroten eban ezkerro, leiatsu mendekatuz, txistu baño
ariñago abadearen etxean izan zan.

Andra Antonia, andrazko urtetan guztiz sartua zan, atso txu naiko zarra, adikor

eta esku-zabal, emankorra, sarritan abade andra-gilzaintzaileen artean jazoten ez dana.

Baiña kezka bat dot, zergaitik abadeen andra-gilzaintzaileak ez dira esku-zabal, emankorrak eta adikorrek izaten?

Ori argi dago. Euren nagusiakandik, abadeakandik, guztiz ezbardifiak diralako. Abadeak, ontasun eta emankortasuna geiegirik izaten dabe. Eta andra-giltzaintzaileak euren nagusiak, abadeak, ontasun eta emankortasuna neurri-gabe izaten dabena ikusirik, azkenean ugaritasun ori, gorrotatzen dabe. Txiro, beartsuak lagundu naian, eurakaz emankor, eskuzabalak izateagaitik, euren nagusiak, abadeak, etxeko jakigela sarritan utsik egoten dala ikusirik, txiro, ezeukiak, abade andra-gilzaintzaileak gorrotatu ez dagiezan, beste andrazko arrunt, ez-jakiñetatik, gaineratua egotea, izatea, bearrezkoa da.

Batxik, Antonia iñoz baño be alai ta barrituago aurkitu eban.

Zer, berorrek emoten daust ori, andra Antonia?, Batxik esan eutsan..

Orain, oraintxe, emongo dautsut, semetxu, baiña itxaron eizu apurtxu bat, eta ez zaitez ain urduri izan.

Baiña ez dozu iksten ba, larregi luzatzen banaz, nire urruntzea luzeegia dala nabaritzen ba dabe, abade jauna ta On Mateo asarratuko dirala?

Baiña semetxu, biak mamukio bedeinkatu batzuk ba dira, zelan asarratuko dira ba? Ogei urte dira abade jaunaren nekame nazala, ta beintxu baten be, ez dot asarratuta ikusi. Eta On Mateo, beralako beste bardin-bardin bat da. Gizeki ori, Jaungoikoaren aingeru bat da. Baiña ikusi dozu zelako mutiko jaseko bat egin dan?

Andra Antonia, guztiz aberast etorri da?

Asko, seme, asko!... Zelako gauzak ekarri dauazan bazenki!... Ara, bere, gelara etorri zaitez, erdu, eta ikusiko dozu zer dan ona.

Batxi ta andra gil-zaintzalea indianotarren bide-kutxa ta zorroak moltsotuta egozan gela batera, sartu ziran.

Andra Antonia bide-kutxatariko batzuk idegi ebazan, eta Batxiri euratan egoan barnekoa erakutsi eutsan. Zidar eta urrezko edergailu, pitxi batzuk ziran bereziki, bertan gordetzen ziranak.

Bitxi areik ikustean, Batxik begiak euren begi-zuloetatik saltuka urten naian zirala dirudien, izan be ondasun areik ez ziran gitxiagotarako.

Andra Antonia pozik, arroputz, plast egin bearrean aurkitzen zan. Au, atzamarrakaz bazter baten egoan zorro aundi bat erakutsirik, zazpi giltzez ertsita, giltzatuta, dago, esan eban. Lurretik jaso eisu, irribarretxu maltzur bat egiñik, jarraitu eban.

Batxik zorroa bere eskuetan artu eban, baiña lurretik atz bat be jasotea ezifia izan jakon. Zorroa lurreratzean bertan entzun zan txindi ots pozgarriagaz, gaztea arrituta geratu zan, eta atsoari azaldu ezifneko barre alai bat eragin eutsan.

Zer Batxi, zorro ori galtzuz beteriko dala, ez dozu uste, ez?

Ze zorionsuak zarie zuok, andra Antonia!, Batxik esan eban.

Bai orixe seme, bai orixe! Baiña zuok be zorion onetan tarteko, kide, izango zarie. Jaungoikoak emoten dauanean, danatzat emoten dau ta. Mateo ta abade jauna biotz urreduak dira, ta sendikoak ba zifnake bezela maite. Ondo izango litzake, larritasun une baten jaramonik egin barik itxi, utxiko ba zendukeze!

Batxik andra Antoniak iñotsona ez eban entzuten. Azaldu eziñeko biotz-ikara izu-garrizko bat bere barneaz jabetu zan, bere biotzean izugarrizko borroka bat zan.

Ara seme, zorro orretzaz, zer diñostazu?

Ogerlekoz beterik egongo da, ez?

Ogerlekoak! Ze burugabe zara, seme! Oriakaz, beilegiakaz, gutiz oriakaz bai beterik dago!

Batxi dardaraka, arrituta, erdi-zorobioturik zan, alde guztietara begiratuta, Antonia egoan tokirantz ainkada bat egin eban.

Batxi, Batxi!, eskillera, mailaldi, barrenean oiua bat entzun zan.

Batxik, etsipen keiñu bat egiñik, lurrean ostikada bat emon eban, eta andra Antonia lagun ebala, deika, oiuka, egoanagz topo egitera, abiatu ziran.

Deika, oiuka egoana Inazio zan.

Egun on andra Antonia esan eban, eta bere anaiari begirekada bat egifiez, jarraitu eban:

Amaitu eizu gizona, ordua bete baño geiago da, On Mateo ta abade jauna itxaroten dagozala. Abadeak mezea emoten beingoan jaitsei bear dauala, ez zara konturatzetzen?

Ala, ala! itxaron dagiela, baiña ondiño ez ba da belu, berandu, Antoniak iñoan. Txistu baño ariñago, gozaria gertuko dautsuet, eta berton gozalduko dozue.

Ez, ez, mila esker, Antonia, gazte biak batera esan eben.

Giar apur bat jan, eta pitxar bete txakolin edan barik, Etxe-edederrara ez zarie itzuliko. Barriro dirautsuet, indianotarraen itzultea irurok batera opa dagigun gura, nai, dot.

Beste egun baten izango da, andra Antonia, Inaziok esan eban. Datorren lgan-dean mezara jatsiten garanean, mezea entzuten jaitseiten garanean, berorren opari-az atseginduko gara.

Ondo dago, semetxuak, ondo dago, zuen gurari, naia, ez dot okertu gura, baiña ba dakizue zuekan naimen guztiz ona dodala, aita-ama onenatariko semeak zarie, ta aita-ama onakandik, seme-alaba onak. Baiña besterik ez ba da be, indianotarrak eka-rrri dauana, Inaziori erakutsiko dautsat.

Ez, ezin geinteko geratu unetxu bat be geiago, mai ganetik gutuna idazteko bea-rrrezko ziran gauzak arturik, Batxik esan eban.

Eta mutil gazte biak oinkada leiatsuan, bizkorrean, Etxe-ederrarako bidea, aldatz-gora artu eben.

III

Orain ikusiko dozu, LARROSA MARGODUN IPUNEn goi-argi ori, oraintxe ikusiko dozu, uraren bila joan eta edari ori eskatzen gogoratu ez, zelan izan leiteken, jazo leiteken.

Udabarriko arrasti, arratsalde eder-ederra zan.

Gueñesko abade jauna ta bere lobeá bizkargune baten egozan, Etxederra basetxe aldamenean, euren eiza-izkiluetan zurkaizatuta, guztiz ur egoan mendi magalean aztarnatzen ibiltzan txakur eder bi, erbi-txakur eder bi, azterkatzen, ikustatzen.

Osaba, Mateok inñotsan, Kapitan eta Leonek erbiren aztarna galdu dabela uste dot. Etxerantz joatea oba izango litzakigu, eguna be iluntzera doa ta, ganera berori estarta onetatik ezgaraiz ibilteko ez dago.

Zuzen zara, errozoia dozu, abadeak erantzun eban. Naizta arrasti onegan larregi ez ibili, jota nago, guztiz nekatuta naz. Mateo, nireak izan dira, ez dot ezetarako balio. Zaarrak eizketa ukatu, baztertu bear dogu.

Osaba-lobak euren eiza-izkiluak lepoan artuta, ondiño euren auziketa, zaunketa, entzuten ziran txakurrei deiturik, mendiska bera, berebilbidea zearkatzen dan lekutik, jaitsi ziran.

Mateo aurretik joian, baiña artez, zuzen, ibarrera gidaritzen eban bidean jarraitu bearrean, Etxe-ederrarako bider-zior bat artu eban.

Zer! Etxe-ederraña goaz?, On Joxek itaundu eban.

Bai osaba, bertan ontzi bete ur ozkirri edango dogu, ni egarriz itoten nago ta, bide batez atsedean apur bat be artuko dogu.

Bai goazen, goazen Mateo, zuk naizta ia ludi osoa zearkatu, itxuraldatzerako ez zara bat be trebea, abadeak maltzurkeriz irribarretxu bat egiñik, inñotsan.

Zergaitik diraust berorrek ori, osabea?, apur bat gorriturik, Mateok erantzun eutsan.

Martiñen etxean, Martiñenean, mendiska oneitan, loraz beteta dagozan mendiska oneitan baño Martiñenean obeto atsedendu daitekela, ta ez da be emen, an emenka edozein lekutan sortzen ziran iturrietan, Martiñenean baño ur oba ta ozkirriagorik edan daitekela, uste ez dodalako.

Bai, baiña eme...

Emen, maitasunezko irribarretxu bateaz lobeá kutun-araziz, agure biotz ondunak, esan eban, Etxe-ederran bezela Elieze'eri lusaila opatzen dautsan Errebekarik, ez dago.

Osaba!...

Egunero Juana ikusteko gurari, naiak Etxe-ederrara eroaten zaitula, aitortu eizu. Zer txarrik, kaltegarririk dago gurari orretan, ba? Bera neskatil ona izanik, eta zure gogoá deduzkoa, ez da lotsatu bearrik, bera maite dozula agertzeko.

Bai ederto osabea, ez dago oker berori.

Zaarrak urrenetik olako gauzak, erazoak, sumatzen doguz.

Martiñen alabea maite dot, eta berak be maite nauala uste dot. Guzti au ixilean izan ba dot, parkatu bedi...

Ez, ez daustazu eskutatu, Mateo, zure biotzak sentitzen dauana zuk ixilean, adieraz-gabe, ezin izan dozulako euki. Baña zergaitik zure asmu, zure nai, guraria, argitasun osoz Martin eta Mireneri ez dautsazu azaltzen, eta batez be euren alabeari?

Ain adiguritsuak izanik, beste batzuk baieztziko leukien zio berberagaitik, bildur naz uko egin, ukatu, onartua ez izatea... Ni naiko aberats naz, eta eurak txiroak.

Zailtasun orrek ez zaitu arduratu bear, ez dau merezi. Aberats izatea gaiztakeri, oben bat da, ala? Batez be zu bezela deduzko izanik eta lan gogor, izerdi bitartez ondasunak eskuratu, ta gero eurakaz zuk egiten dozun erabili onagaz?

Bai osabea, baiña... laster, aldi luze-gabe, bear ba da eurak ni baño aberatsego izango dira, ta orduan...

Orduan esango dabe..., eurak ez, eurak gogorapen gaizto, oker bat izateko gauza ez dira ta; baiña bai min-zorrotz, min-gaiztokoak, zure asmu, gurariak, onurakoia dirala, esango dabenak.

Zuzen zara, osabea, orretzaz ez nintzan bururatu.

Abade jauna ta bere lobe a Etxe-ederrara joiazan.

Martin, bere andrea ta bere seme-alabak, etxe ostean soloan artojorran saiatzen ziran.

Ze barri dogu, Martin?, abade jaunak esan eban.

Ezer be ez, ezerez, On Joxe jauna, nekazariak erantzun eban. Gaur goizean Inazio Bilbora joan da, ta naizta korreoa Ameriketatik etorria izan, guretzat ez da egon gutunik. Alan da ze itxaropena be erdi-galdua da.

Zelan ez dagola itxaropenik?, Mateok erantzun eutsen. Bearrezkoa da erabagi gogor eta azkenengo bat artzea, ta ez ibili bildurrez.

Eta zer egin bear dogu? Jaungoikoak eroan dagiezela, azkenai-betetzeileak ogeta bost milla ogerlekoak gorde dagiezela, eta euren ongarri izan daitezela. Guk geure txirotasunaz jarraituko dogu, baiña deduzko ta alai izango gara.

Zuzen zara aita, errazoia dozu, aita, Inazio ta Juanak baieztatu eban.

Bardin diñot, eurakaz ados naz, Mirenek jarraitu eban.

Au jasan eziñekoa da, atxurra jaurtita eta beragaz lau edo bost arto-lazto apurtuz, Batxik iñoan.

Maltzur ori! Mirenek iñotsan. Zulakoak izango gara, dirua uts-utsean Jaungoikotzat dozula! Diru-zalekeriak kezkarazitzen ba zaitu! Baiña egun anbatan, diru-zalekeriak espetxeratuku zaitu!...

Ara Miren, abadeak abots maitekorrez geldiarazi eutsan, oraingoan zilegi eiozu, gertaera onetan aintzat artzekoa da ta. Barrero Mexikora idaztea guztiz alperrikoa dala uste dot; azken-naibetetzaileak asmoz gaiztoz dabiltzala, argi dago. Norbait ardura-dunak itxasoa zearkatzeko erabagi zinzo bat artu bear dau. Martiñen adin, sasoi, orretarako, bidali ori egiteko, ez da egokiena, Batxik idazten daki ta irakuruten be ez.

Berak dau erru guztia, bera da erruduna, Mirenek, iñoan, lan gogor, neketsuak bera ikastolarā joan daiten, egin doguz, baiña gure alegiñak alperrikoak izan dira. A E I O U be ez dauz ikasi. Bere arrebearen antzik ezetan be ez dau! Errukigarri onek Inazio baño ez dau beste ikaslerik, orain be gogotsu saiatzen da ikasten, eta sekulako marra, palote ikusgarriak egiten dauz.

Baa! Batxik esan eban, ori On Mateo aurrean idazten ez dakila esaten lotsatu egi-ten dalako, da.

Juana larrosa gorri margodun bezela geratu zan, eta On Joxek bere lobeari irribarre maltzur bateaz, keiñu bat egin eutsan.

Ondo egiten dau, Mirenek erantzun eban. Ez da izango zulakoa, iñoiz ikasten saiatu ez zarana...

Naiko da, Miren, amaitu da. Joanak joanak dira, abadeak esan eban. Zer Inazio, ozin aundi orretan sartzen ausartzen zara?

On Joxe jauna, nire aita-amak gura, nai ba dabe, ludian azkernerario be joango naz...

Aaii! On Joxe jauna, ama maitekorrak esan eban. Nire erraietako seme maitea itxasontziratu!

Bai, Miren zuzen da, Martiñek jarraitu eban. Gizaseme, gizona, idiak apatxak zapaltzen dauazan etan barrutitzen dauan lekuan, obeto.

Eee! ez zaitze izan oldar, oiloak, Mateok iñoan. Itxasoan arriskua ba da, lurrean be ez dago? Iñor ez da itoten, Jaungoikoak nai, gura dauanean, baño. Jaungoikoak, bat, gizaki bat ito daitela dauanean, naizta erretillu txiki baten uretan baño izan, itoten da. Antziñako bateri zer jazo jakon, ez dakizue zuok? Berak bere alabear, galdubearra, itota zala, ba ekian, ta au olan izanik, bere etxetik ia urten be ez zan ausartzen; azkenean lur-azpil, palangana, baten ito zan.

Mateo zuzen da, errazioa dau, Inazioak jarraitu eban. Abestiak diñoan bezela:

Naizta beragaz kalean topo egin

Eriotzeak ez nau bildurtzen

Ba da Jaungoikoaren baimen-barik

Eriotzeak ez dau iñor ilten.

Alan da ze aita jauna, nai ba dozu, beingo baten Ameriketan izango naz, eta ogeita bost mila ogerleko orreikaz ituliko naz, erriratuko naz. Tamala da, emen, gure luraldeetan txiro, beartsu, ugari dogun toki onetan, eta beraz diru-egarri bizi-bizia izan, maltzur areik gure diruaz barre egin dagien.

Zuzena da, Martiñek iñoan. Zer diñozu zuk Miren?

Zer esan daiket nik, semetxu? Zure erabagiaz ados izango naz, eta... Jaungoiko gure Jaunak eta Karmengo Ama Birgiña Doneak, nire biotzeko seme maitea magalpetu, jagon, zaindu, dagiela.

Ala, erabagita dago, abade jaunak esan eban. Abiamenak egin dagiguzan, eta Inazio ainbat leen joan daitela, itxasontziratu daitela.

Esan eta egin, zortzi egun geroago Inazio Bilbon itxasontziratu zan. Gomendiozko gatunak beragaz eraozan, Mateo ta abade jaunak aolku ugari ta dirua bidalirako emon eutsoen.

IV

Ameriketarantz Inazio itxasontziratu zanetik ile batzuk geroago, Etxe-ederrako biztanleak azpilkada bat esne uruneaz, arto-uruneaz, gozaltzen jesarri ziran.

Gutziz deduzko sendi arek, ziurki neke ta samin izugarriak jasan bear izan ebe-

zan. Atsekabe ta oiñaze orreïn ondorioz, Juanak bere matrail larrosa gorriska margo-dunak, orain zurbil eta goibel agertzea ziran, Miren eta Martin be, zio ber-beragaitik, guztiz zaartuta egozan. Danak ixilean, bizia aurrera eroateko adore-gabe.

Alabe maite, Mirenek gazteari, neskatil gazteari, iñotsan. Zergaitik ez dozu jaten?

Jaten dot, ama.

Baiña esnea daztatu, gozatu be ez ba dozu egin?

Ez dot gozerik, ama.

Olan izanik alabatxu, batek jateko gogorik ez dauanean, janari, jakia, osaki bezela artu bear dau, ta barrura beragaz. Jaten ez dauanak biziaren nekea dau. Baiña zer da dozuna, daukazuna, alaba maitea?

Alperrikoa da orreri itaundu, galdetzea, Martiñek esan eban. Mateo gaixorik da, eta berak be alegiñak egiten dauz bera be egoteko.

Azkenean bera be gaixotuko da olan jarraitzen ba dau, bere burua iltea lortuko dau! Ala alabatxu, gozaldu eizu, esnea ze gozo dagon ikusi eizu. Ara, Mateo laster osatuko da, eskonduko zarie ta neke, samintasunak amaituko dira.

Aaa nire ama maitea! Mateo ilten ba da, ni be ilgo naz!

Iltea, iltea! Lelokeririk ez eizu esan, alabatxu. Osagileak, ebakerariak, Mateo arriskutik kanpo dagola diño. Zer! Leenengo gertaera da, ezilari bat eizan joanda, bere eiza-izkiluak danbada bat eginda zauritua ta ille batzuk geroago, ille batzuk barru, ezer jazo ez ba jakon lez aurkitzen dana? Jazokisun, ezbear ori izanda leenengo egunetan, egia da, Mateok bizirik urtengo ebalá, iñork ez eban itxaroten baiña Jaungoikoari esker, eta baita be Karmengo Birgiñari, orain ez da ezeren bildurrik.

Tamala da!, mai ganean zali, koillarea, jaurtirik, Batxik iñoan. Zuek indianotarratzaz baño ez dakizue itz, berba, egiten! Milaka deabruak eroan dagiela!

Batxi, Martiñek iñotsan, Mateo izena bedeinkatzeko izan ezik, ez eizu aitatu.

Bedeinkatu!... Emoten dauskunarako, emoten dauskunagaitik...

Merezi doguna emoten dausku, bear doguna emoten dausku.

Ba nik, zeken bat dala diñot...

Batxi! Su-asarrez danak batera esan eben.

Bere gorputzaren astuntasuna baño dirutan geiago balio, jabe izan, eta gu astokil-lu batzuk bezela lanean eten-gabe gau ta egun ibiltea zilegi!... Tamalgarria da eiza-izkilua danbadatu jakonean, saietsatan jo bearrean, buruan jo ta garaun, garaun eta guzti zatitu eztea!...

Ixildu zaitez, ixildu, maltzur, ziztrin ori! Euren su-asarrean geiago jasan eziñik, danak batera esan eben.

Ez dot ixildu nai, gura.

Gure azkena zuk egingo dozu, gure bizia zuk kenduko dauskuzu, Mirenek iñoan. Zure anai errukigarria joan zanetik ona, arik ona, egun battxu bat be gure sendia zure erruz, bakez ez da izan. Nire biotzeko seme maitea! Bera gure etxean, gurean, izango balitz, gurea beste bizi-bide bat isango litzake!

Miren errukigarria negarrez, Juana bardin, Martiñek berbatxu bat egin barik, ixil-ixilik, burua makur ta bere begietan negar malkoak agertu ziran.

Bere aita-amaren begietatik negar malkoak izuri-arazitzen dauan semea, maderikatua izan bedi!

Gozaltzea, naizta azpil nagusia janariz beterik, ia beterik, geratu, amaitu zan.

Samin eta atsekabeak jangurea, jan-naia, danakandik aldendu eban, eta euren eskuetatik koilarea jausi-azo.

Martin, Martin! Etxe aurreko kereix-orpo baten alboan agertu zan gizon batek, oiuka iñoan.

Martiñek etxeko leio batetik bere burua agertuz, leiatsu erantzun eutsan.

Ze barririk da, Mikel?

Barri onak! Albiste onak! Atzo zaran batzuk saltzen Bilbora joan nintzan, eta korreosetan Indiatatik bialdua zan gutun bat emon eusten, gutuna zuentzat da. Berandu, belu, eldu nintzan lez, bart ezin izan neutsun ekarri.

Martin bere andra ta seme-alabak, Mikelegaz topo egitera, arifieketan abiatu ziran eta une orretan gutuna Martiñen eskuetan izan zan.

Martiñek gutun-zorroa azterkatu ebanean, oiuz pozialai bat egin eban. Gutun-zorroan agertzen zan izkia, bere seme Inazionan zan, bere seme maitea!

Martiñen eskuetatik gutuna, eskutitza, bereala kenduta, Mirenek bein eta barriro, mozukatzu negar-malkoz ezotuz, irakurri eban. Juanak be egikisun bardin-bardiñak egin ebazan.

Zelan ez mozukatu ta negar egin, ain larri, leiatsu itxaroten eben orri, ingia, seme maite baten eskuak, anai-neba batenak, idatzi zan orri a, ile luze askotan bere erbeste-teratzea zio izanik, ainbeste atsekabe ta negar izuri eragin eban seme maitearen idatzia ba zan?

Bere sendian sekulako pozialaitasun eragin eban albiste, jazokera orren aurrean, biotz-gabe, ajola-gabe aurkitzen zana, Batxi zan.

Baiña, zergaitik dira izukeri guzti orreik, Batxik iñoan, ondiño ez ba dakigu Inazio ondorenegaz jabetu ba da, orregaitik zetarako izukeri guzti orreik?

Bai, Batxik bere aitak esan eban lez, biotz gogorra eukan, biotz gogorduna zan, ori biotzik ba eukan. Bere anai bizi ba zan ala ez, bizirik ba zan ala ez, bere ardurea ez zan. Bere aita-ama ta bere arrebearen alaitasun ulertzeko, euren biotzak pozialaitzen ebana zer zan ulertzeko, bere anaia aberats zala jakitea bear eban! Ez ba zan, aberatsa ez ba zan, ze ajola eban, ze leba eban, bizirik edo ilda izateak? Batxik bere gogoan, arimean, ondoren-aberastasuna uts-utsik egoan.

Azkenean Martiñek bere semearen gutuna bir-eskuraturik, biotz-zastadaz dardaraka, idegi eban.

Gutunak olan iñoan:

Mexiko abar eta abar

Nire aita-ama ta anai-arreba maiteak: Zuekandik aldendu nintzanetik, arik ona, toki guztietan zorigaitz lagun izan dot.

Nueva Españañantz ontsiratu nintsan itxas-ontsiak, itxal zabalean ezbear, eragozpen ugari izan ebazan. Itxasketa guztiz neketsu baten ondoren eta ondorioz, Mexiko ugolkoan sartu giñan. Itxas-adar onetara eldutean gure zorigaitz guztien amaia izango zala uste genduan; baiña Jaungoikoak beste askoz be aundiago batzuk gor-

deta izan euskuzan. Oleatuak bereala biztu ziran, aldagoiak oldartu, edoi baltz izugarriak zerua estaldu, trumoi ta durundatze ikaragarria, ta justuri, oiñazuak, itxasontziako ontzi-agak eten ebezan. Ia gaizkatzen itxaropen-gabe, luzaro izadi indarren aurka borrokatu genduan, azkenean itxasontzia zatiturik, nire bide lagunak, bidalikide geienak itxaso zabal ondarrean euren ilobia aurkitu eben.

Une larri aretan, guztiz etsitu, Jaungoikoa ta Karmengo Ama Birgiñari oles egiñik, amak etxetik urruntzean sama, idunean lotu eustan lepakutuna bein eta barriro mozokatuz eta oneraspen bero-beroaz otoitz egiñez, oleatu artean ebiltzan ol, zuretariko bat artu, oratu al izan neban. Zure, ol onegaz, bere laguntzaz, itxasaldera, iger, uger eginda urreratu nintzan, baiña nire indarrak aulduta ziran eta ostera ekaitza geroago ta izugarriagoa, oleatuak trumoi bezela murrutzaten eben, eta ondartzako aitzetan austuz edurrez estalduko mendi batzuk iruditurik, ludi oneri azker-agurra egiteko gertu ta nire aita ama ta anai-arrebakaitik uts-utsean senditzen neban mundu onetatik aldatzea, ba da eurak atsekabetuta, guztiz atsekabetuta, utxi, itxiten nebazala gogoratzen nebanean, ludi oneri, barriro diñot, azken agurra egiteko gertu nengoa-nean, ara non, itxasaldeko biztanle ausarta batzuk ontzizke, batel txiki baten, ningana urreratzen, non ikusten dodazan.

Gizon areik, ni aifñako ontzi-galdukoak ikusi ninduen eta euren bizi arriskuan ezarririk, nire laguntzan, ni gaizkatzen etozan. Azkenean beste lurralde barri bat oinperatu neban, baiña Jaunkoiko Jauna, ze itxuraz! Ostaz ostaz zutik, zutunik egon al izan nintzan, nire eskuak odolez ondatuta, nire zure-gaizkatzaileakandik oleatuak erakarritua izan ezteko egin nebazan indarka izugarriek eraginda, besoak etenda, euren lekuetatik urtenda neukazan.

Bertako erritar, biztanle, errukigarriek, oge-txiki antzeko bat zugatz-adar batzukaz egin eben, eta bere ganean ezarririk, basoak zearkatuz, arrotz-maitasun, abegi ezin oba izan neban erritxu batera eroan ninduen. Bertan egun ugari emon neban, eta beti maitasunez jagon, zainduta, areiketa nire idarrak apur bat bizkortu arte bertan egon nintzan. Azkenean, nire ongileek, negar eta alaitasun pozez agurtu nebazan.

Uri onetara, gaur egun aurkitzen nazan uri onetara eldutean, nire ildako osabearen azken-nai zaintzaileakana aurkeztu nintzan, eta... izan neban abegi zital, doilorra azalduz ez neuke gura, nai, zuek gieago nekarazitzen. Eskerniatzaile guzurtizat artu ninduen!..

Ala ere gizonen zuzentasunean sifñeste dot, eta zelan ez, Jaunkoiko gure Jaunarenean, Berak laguntza-gabe, baztertuta iñoiz ez gaitu utxi, itxiko. Nire itxaropenean kide izan zaitezen, ta guztion zorionagaitik lan egiteko ondiño bizirik nazala jakitzeaz poz-arazi, poztu zaiteze.

On Mateon gomendiozko gutunen artzaileakana aurkeztu nintzan eta nire arazo, ekiñakdietan euren laguntza izango dodala, baieztatu dauste, batez be, bereziki, gure erritar batek seme bat-bezela maite nau. Lurralde onetara ekarri nauan arazo au betetzeko, asti luzea bearko dot; azkenaibetetzaleek, geuri ostutako izkilu ber-berakaz-babestuko dira, eta or bezela emen be, altsuak dira”.

Inaziok, Mateo ta bere arrebea eskonduta zirala uste eban; eta abadea ta baita be Antonia, Andra Antonia, Mikel zarangile ta beste arritar batzukaz gogoratzen zan.

Bere amari Karmengo Birgiñaren ain elizkoi izanik, beragaitik otoitz egiola, idatz-ondo baten eskatzen eutsan.

Nire seme maitea! Nire biotzeko seme maitea! Martiñek gutune irakutzea amaitu ebanean, Mirenek esan eban. Ze arrisku ain izugarri ta neketsuak, nire seme maiteak garaitu bear izan dauz! Baña zorionez Ama Birgiña Doneak gaizkatu dau...

Ez dakit zetarako, bat be ongarria ez ba jako izan!... mar-mar eta destaiñez, Batxik iñoan, barriri batzarkide guztien sendipenak bizkortuz.

Batxi. Beragan iñoiz ikusi ez zan zorroztasunez, Martiñek esan eban, zue aita-amak zure biotzean erain dabezan sendipen biotz-maitasunak, orreik ez dira!

Errukigarriak gu!, Mirenek negarrez iñoan. Seme onek gure azkena egingo dau, bizia be kenduko dausku ta azkenean bere burua espetxeratuta ikusi al izango dau!

V

Indianotarra, eiztan ebilala izan ebazan sauri aundiak eraginda, ogean aurkitzen zan, eta Batxi abade jaunaren etxera, abadenera, gaixoagaitik itauntzen, galdetzen, sarritan jaitsiten zan. Bere sendiarentzat, bere sendiaregan, Martiñen izakera, aztua, geroago ta garratsagoa zan. Batxigandik egunero izaten ebazan naigabe, atsekabeek eraginda, Martin eta Miren sasoi baño leenago zaartu ziran, euren osasuna gaizkia-gotzen joian.

Batxi ostera, abadenean, abade jaunaren etxean, beste gizon bat zan, guztiz ezbardifña. Gizaseme on areik, biotz-zabal areik, Batxin iza kera nabaritzen zan aldakuntzaz, arrituta egozan, eta Andra Antoniak bere esker-ona zelan adierazo eziñik, janari eder, gozoak gertatzen eutsazan, eta orrez ganera etxe aretan jazoten zan guztia azaldu.

Oiñati ta Ganboatar talde zori-gaiztokoan oroimena, luzaro Bizkaiko jauntasuna ta batez be Enkarterri lurralde apala ondatu, laidotu ebanen Jara dorre izugarrian, eguzkiak bere azken izpiakaz bere alaitasuna eutsiten eban.

Etxe-ederra alboko, goi aldeko aldameneko mendiska batetik, izugarritzko ke baltz lodia jasoten zan. Ke baltz arek, jakiña, ikasgiñak euren lanean bertan jarraitzen ebela, adierazoten eban.

Eta alan zan, euratariko batek, ikatzgin batek lapikoa jagon, zaintzen eban bitartean bertatik naiko ur beste iru edo lauk egurra, txondorra osotzeko zatitzen jardun eban.

Mendiska bizkarrean, alde goienean, iru zutoi, irazko zapiai ta onen gabeen beste zapai bat, au lurrezkoa, osotzen eban txabola bat, ikusiten zan.

Ikatzgiñetariko batek txabolarantz urreratuta, bere aurrean, txabola aurrean egoan sua bizkortu eban. Su ganean baba legor eta gatzartuz beterik lapiko bat ezarririk, urun-kutxa baten arto-uruna, ura ta gatza apur bat bota, ta talo-burdiña berotzen zan bitartean, bazkaltzeko oreka egitea abiatu zan. Beingo baten talo me batzuk egin eba-

zan, oneik taloburdiñean ezarrikerre, eta lan, bear, au amaitu ebanean, jagi ta eskuakaz, bere esku biakaz dei-adar bat iruditurik, abots saratatsuz oi ugin eban:

Aaaaauuuuu! Aaaaauuuuu!...

Bere lankideek abots bardiñagaz erantzun eutsoen, eta euren aizkorak ametz enborretan finkatuz, txabolarantz abiatu ziran.

Bazkaria amaiturik, bakoitzak bere pipakadea gozoro erre ondoren, pipea garbitu ta nasai-nasai narruzko zorroetan gorde ebezan. Baiña naiz eta zeragiñ oneik amaitu, au da bazkaldu ta pipakadea erre, ikatz giñak txabolako ate aurrean jazarrita jarraitzen eban.

Gaba iluntzen asi zan.

Ikatzegileak abots ixilean berba, itz, egiten eban, eta euren mugimendutan larritansun bizi-bizia nabaritzen zan.

Azkenean ameztitan, amezti beko aldean, gizon bat agertu ta txabolarantz abiatu zan.

Urreratzen zala nabaritu ebanean, ikatzgileak atsegiñ, poza adierazo eban.

Goazan, etor-barriak esan eban, astirik ez du galdu bear, ba da ni, nire luzapena, berandutzeak arritu ez dagiezen, etxera goizeti itzuli bear naz.

Aurrera ba, ikatzgileak erantzun eban.

Ze izkilu daroazue? Ezezagunak itaundu eban.

Bat be ez.

Ori zeuen arazoa da; nik pistola bi ta aizto bat daroadaz.

Gu lapurtzen goaz eta ez iñor ilten.

Bakoitzak berari dagokiona egin dagila, pistola ta aitzodunak iñotsen, baiña astirik ez dagigun galdu. Bidean argitasunak azalduko dautsuedaz, eta gure egitamua konponduko dogu.

Ikatz zatitxuakaz euren arpegiak mazkildu ebezan, iduri bustiaz arpegiak mazkildu ebezan eta amezti bera abiatu ziran.

Txomin zergaitik ez dator? lapikoa zaintzen, jagoten, egoana adieraziz, ezezagunak itaundu eban, eta bereala jan orduko bere pipea biztuta bere tokirako bidea artu eban.

Txondorra biztuta da, ikatzgileek erantzun eban, eta bearrezkoa da bertan norbait, batan bat, bere jagon, zaintzen geratu daiten. Orrez ganera, irabispide onetarako, emen geratzen danaren laguntza ez da izango txikiena.

Zelan?

Abestuz.

Zetarako?

Etxe-ederrako biztanleek eta Karstroitik itzultzen diran ogisaltzailea andrazkoak, ameztitan ikatzegileak dabiltzala uste izan dagien. Buru argikoak zarie benetan!

Diru ugari eskuratzearren egin dagigun.

Ameztitan ordu erdi geroago ikatzgile bat abeslari da; urrunetik igaroten ziranak entzun egien, saratsu abesten eban.

Jazinta, Gueñesko ogizaltzaile bat, beste neskatil auzkokide batzuk lagun ebazala, bere mando ganean kastrotik etorren eta euren alkar-izketan Jazintak bere bidalikidei iñotsen:

Txomin maltzur orrek, ze aldarte, umore, ona dau beti! Urretxindor bat bezela beti da abeslari.

Baalabatxu, auzokitariko batek esan eutsan, orretzaz, abesti buruz, zu be ez zara urrun ibiltzen, itsu batek baño be abesti geiago dakizuz eta Miren arritzekoa da, gaur zu ixilik etortea.

Gaur ez nago abestitarako, Etxe-ederran, Martiñenean eta Etxe-Ederranekoan zoritxarrak, biotza be eten egiten dau ta. Miren eta Martin, ni ama barik geratu nintzan bezela, seme barik garatuko dira.

Inazio errukigarria!, negarrari emonez, Jazintzak iñoan. Zelako eriotza itxaso saltxaile orretan izan ete dau?... Neure bizi osoan, mutil ori il bada, nire begiak ez jataz legortuko. Nire tititik leenengoz esnea edan eban, beraz seme bat bezela, seme bat geiago bezela, maite dot. Begiratu eizu. Begiratu eiozu, Miren errukigarria!... Seme orren eriotzeak, berea aurreratuko dau.

Andra-ogizaltzaileak euren bidean jarraitu eban; guztiz goibel eta ixil-ixilik aldra bidegilea joian. Bitartean Txomin abeslari zan.

Gueñezko abade jaunaren etxea, besteakandik apur bat aldenduta eta alde guztietatik intxaurrez inguratuta, egoan. Kare-arritzko etxea, gaztelu ta jaure erdiz-erdiz diranatariko etxe bat zan. Ate ganean, atariko ate ganean, mari-arru bat. Ertz baten, etxe ertz baten, Euskalerrian eta batez be Enkarterri lurraldetan ain oiturazko dan eguzki-orratz bat eradonduta, agertzen zan.

Txiro, beartsu, ta aberatsak goiztartzea oitura daben lurralde aretan, gabako leenengo orduetan ixiltasunik aundiena nabaritzen da, sasoi aretan bertako basetxetako biztanleek, nekazariak, lo gogorrean aukizen diralako. Izan be, leenengo lo-aldia, gozo ta sorgorra batera izaten da.

On Joxe lotan egoan eta andra Antonia bere bai. Abadearen etxean, abadenean, indianotarra zan lorik egin ezin ebana, sukarrak loa galazoten eutsan.

Txakurrek auzika, zaunka, asi ziran.

Osaba jauna!, alboko gelan lotan egoan bere osaba Joxeri, Mateok oiuka deitu eutsan.

On Joxeren erantzunik ez zan entzun, lo-zorro zakonenean aurkitzen zalako.

Txakurrek auzika, zaunka, jarraitzen eban. Ez ziran ixiltzen.

Osaba jauna! Osaba jauna!, Mateok bein eta barriro oiuka iñoan.

Azkenean abade jaunak erantzun eutsan eta Mateok iñotsan.

Leon eta Kapitan, txakur biak, auzika, zaunka, luzarotik gogor euren zeregiñen jarraitzen dabe, ta labako teilak eragindako ots bat entzuten dodala, esango neuke.

Aizea eten-gabe puzka gogor dabil, eta ziurki teilak mugiduko dauz, eta txakurrek mugimendu orreik eragindako teilla-otsa entzungo dabe, ta beraz zio orregaitik zaunka jarraitu.

Osaba, Mateok esan eban, jangelako leioan indarka batan batzuk dabilzala, uste dot. Gela onetara labako teilatutik, teilatu ganetik jaretsi al izaten da.

Gizona, ez zaitez lelo, keto bat izan, erdi lotan abadeak erantzun eutsan, aizea izango da ta!

Ikusiko dogu, ikusiko dogu, Mateok iñoan.

Osabea naizta bere makaltasuna ogetik jagi zan, eta jangelako sollairuan egoan gelatik, ixil-ixilik, saratatxu bat be egin barik, bertako leioa idegi. Illuntasun sekulakoa zan eta zio onegaitik eziña izan jakon ezer ikustea ta aizea, indartsu izanik, leiotik aldendu eragin eutsan.

Leon eta Kapitan geroago zaunka saratatsuagoan jarraitzen eben.

Mateok, teilaren karrazkatzea entzuten eban, beintzat olan eritxion eta baita be jangelako leioak mugitzen.

Sarata, ots, orreik zer diran ikusi gura, nai, dot.

Bereala eiza-izkilua, eskopetea, arturik, jangelarantz abiatu zan. Gela au, andra Antoniak itxi, utxi, eban argi-xume batek erdi-argitzen eban.

Mateo leiora urretu zanean, au, leioa, bereala indarrez idegirik, beratan aurrez-aurre, gizon bat agertu zan.

Mateok, indianotarrak, bere izkilu, eskopetea, beragaz danbada bat egiteko asmuz, bere aurpegirantz jaso eban, baña zoritxarrez bere naia betetzeko asitirik ez eban izan, lapurrak zizpakada bateaz eskuetatik apurtuta kendu eutsan.

Lapurra beste bere iru lapurkideak atsetik ebazala, gela barnera sarturik, laurak erazoz Mateon ganera jauzi ziran, zur-zapi bateaz agoa estaldu eutsoen eta esku oiñak lotu, lokarri, soka, batzukaz lotu. Bereala gizon areik, leenengo abadearen gelara eta gero giltzaziñarenera joan ziran, eta abade ta giltzaziñagaz gertaera bardin -dardiña egin eben. Etxean aurkitzen zan diru ta altxor baliotsuenakaz arin eskuratu ziran. Etxean ondo be ondo ezagutzen eben azkero, ta au argi agertzen da euren zalantza-gabe izan eben zeregiñean, orrela gauzarik estalduenak be arin eskuratu ebezan. Euren gurari, naia, bete ebenean, eta etxera sartu ziran leiotik urtetzeko zama larregi zan elez, zorro aundiegia ta astunegia zan lez, etxeko ate nagusitik iges egin bear izan eben.

Baña ara emen, zelan Gueñesko erritar batzuk, lapurrek egindako danbada otsa entzunda, eurak be eiza-izkiluak euren eskuetan arturik, lapurrek, lapurketa egin ondoren etxetik urten ziran une beratan, intxaustitik Etxe-edererakori lagundu gurean, naian, ariñeketan zelan joiazan.

Gelditu! Gelditu! Geldi-Geldi!, oiuka iñoen.

Baña lapurrek intxaur artean ostendu ziran.

Erritarrak, auzokideak, euren izkiluakaz danbada batzuk egin ebezan eta lapurretariko bat sauritzea lortu eben, ain zuzen be, balio gitxienako altxorduna zan, balio gitxieneko zorro altxorduna zan.

Besteak, gaiñerokoak, Kadagua ibaia zearkatuz, Jarako gaztaiñedi abarotsuen laguntzaz, estaldu ziran.

Sei illebete geroago, orain azaldutako jazokisun oneik izanda sei ille-bete geroago, abade jauna ta bere lobe a etxetik urtenda, Etxeederrera aldatz-gorantz joiazan.

Beste sasoi baten jazoten zan bezela, eiza-izkiluak euren sorbaldetan eskegita eroan bearrean, oraingoan euren eskuetan makila lodi bana eroezan. Makila, zurkaitz lagun gabe, batez be Mateok, oinkada bat ba jausi barik ez eban emon al izango.

Abade jauna, arterako sasoi baten ain lodikote, sagar umo bat aiñako margo-duna, bere espanetan kendu-gabeko irribarretxuaz, orain guztiz ezezagun agertzen zan. Bere ule, illea, naiko zurituta, bere arpegia goibel, zurizka, zimur. Bere biotzeko makaltasun, goibeltasuna, bere itxura, mustupil eta izketan, berbetan, argi iruditzen zan. Abade duiñ arek alako aldatze, aldakuntz izateko, izugarrizko atsekabe, nekeak jasan bear izan ebazala, argi agertzen zan.

Mateok be aurrerago izan zan jaseko mutil gaztearen antzik be ez eban. Garai baten izan eban jasekotasunik ez eban. Bere aurpegiko istasun, zurbiltasuna ta bere gorputzeko eroritasuna, arritzekoa zan. Sarritan, euren sasoirik onenean, sukar motel baten erazoz zurbil, argal izanik, eurakandik erri-abarra zentzungabekeriz birikeri, bularreko gaixoa kutsakorra dala uste izanik, eurakandik aldendu, iges egiten dabenerariko bat dala, uste izan zeinkean.

Abade jaun errukigarria, zurkaitz eta laguntza iñok baño geiago bear ebana, bere lobearn zurkaitz ta laguntza izatea bearturik zan. Jaunaren serbitzari deun aren aiñako biotz-on, biotz ondun diranak, beste batzuen bearzenean aurrean, lagun-urkoen bearzenean aurrean, norberaren premiñak aitzu egiten dauz.

Ala Mateo, aurrera! bere lobeari iñotsan arrasti ezin ohea da, alde guztietatik orri ta lorak sortzen dira, txoritxuak euren txio-txio alaiakaz, adar batetik bestera saltuka abeslari dira. Alaitu zaitetz, oargabetu bear zara, bearrezkoa da. Zer gura dozu jokatu, amabost egun barru guztiz sendotuta, osatuta, zarala?

Aaaii osabea! Mateok erantzun eutsan. Izadi, mundua irribarretsu izango da, baiña nire biotza negar sotinka da!

Joanak, gizona, joanda dira. Orain oargabetu, alaitu, osatzea da premiñazkoa, ta aurrerantzean leen bete eziñeko gurari, naiak lortzen saiatu bear zara. Ondiño Jaungoikoari eskerrak gaztea zara ta... eskonduko zara ta danok zoriontsu biziko gara. Zer? Etxe-ererraraño eltzeko adorerik ba dozu?

Naizta gurari, nai, bizi-bizia izan, osabea, bertaraño elduko nazanik zalantzan naz.

Juanak guban izan ezik, ez dau noregan bere begiak aditu, alan da ze, bere neba zeken, doillorraren eskuetan ez dogu itxi, utxi, bear, saiatu zaitetz, alegindu zaitetz, eta eldu al izango zara.

Bere nebea! Aaii osaba! Lurrean, ludian ankertzar zital orreik zigortu dagiezan, zulentasunik ez dan ezker, zalantzan ezartzen gaitun Jaungoikoaren zulentasuna non da?

Mateo, Jaungoikoa zuzena da, ta gisazemak egiten dabezan egikisun on eta gaiz-takeri guztiak, kontuan izaten dauz. Batxik bere erruz, bere aita-amak atsekabetuz,

naigabetuz, ilobira eroan dauz, eta ziur izan zaitez, Batxik leenago edo geroago bere egikisunen merezimendua izango dauala.

Apurka apurka, geldiro geldiro, osaba-lobak alkar-izketa onetan, ibar, aran, eta Etxe-ederrara zan bitartea aldatz-gora igon eben.

Kereixetara eldutean, osaba-lodak kereixtira eldu ziranean, alabearrez, uste-gabez, Juana leioan agertu zan eta ikusi orduko, gizon biak ikusi orduko, pozez zora-tuta, eurakaz topo egitera urten.

Neskati gaztea proguz jantsita, baltzez jantzita, joian... progu gorputzean eta baita be bere biotzean!...

Eotirri-barriak bere etxean satu eitezen neskatilatxuak, nai, gura eban, baña oneik, osaba-lobak, atarian arri-aulki baten jezarrita geratzea naiago eben, izan be bizilekura igotera eskillerak gaintzeko guztiz nekatuta aurkitzen ziran. Orrez ganera, toki aretatik ikuspegi zoragarri bat begien aurrean agertzen zan. Kadagua beste aldeko mendiaak, ibar, aran, osoa ta sorgiñ-orraze baltz bezela Jara dorrea jasoten zan toki liluragarria, ikusten zan.

Eta Batxi? On Joxek, itaundu, galdetu eban.

Urreztira joan da, Juanak erentzun eutsen.

Urrezi, Avellaneda, edeztén dodazan jazoki onein aldian, Gueñezegaz mugatzen zan Sopuertaren, ergoien bat zan. Erri onetan, Enkarterri uriburu ta Bizkaiko korregi-dorea, bizi zan.

Arto-indabak ereiteko sasoian gagoz, abadeak esan eban, eta gaitxuru lur bat be ez dozue laietu. Zure nebea nekazaritatzaz olan arduragabetzea, izan leiteke?

Aaai On Joxe jauna!, uste, ardura-gabe ori ez dakit zerk eragiten dautsan. Zuen etxean, zuenean, izan zan lapurketatzaz eta bere ondorioz atzilotuta dagon ikatzegi-lleen auzian autortzeko bi edo iru bider, Batxi ta biok Urreztira, Avellanedara, joan gara, ta gero tenienteak ez gaitu izan ezetarako be gogoan. Ostera nire nebea egu-nero urreztira joaten da. Luzarotik emen jazoten dan zador, misterioa, adi-eziñekoa da; ta nire aita-amaren eriotzeaz zador, misterio, onek zer ikusia dauala nabariturik, bildurtzen nau. Nire biotzeko aita-ama maiteak!

Juana poz-gabe negarrez asi zan.

Ala, Juanita, zergaitik negar egiten dozu? abadeak iñotsan. Etsimena kristauaren leenengotariko egin-bear bat da. Zure aita-amaren bizitza Jaungoikoarena zan, eta Jaungoikoak beraganatu dauz. Jaungoikoak egiten dauanagaz kexatu geinke? Azaldu eidazu, ia, zelako zador, misterioa, zure aita-amaren eriotzean nabaritzen dozun.

Ille batzuk dire, gabaz gure etxean, gurean; itxura gaiztozko gizon bateaz nire nebea bere logelan barneratzen dala. Ikustaldi oneik, itxura txarreko gizon onen ikusaldia, nire aldetik eta baita be nire aita-amaren aldetik ez ziran izaten on-artuak. Gau baten, nire aita ogeratu zanean, nire nebea zelan bere ogetik jagita beatz-mutur-rean, ixil ixilik arteroko gabetan bezela ezezagunegaz bere logelan, zelan giltzaperatzen zan ikusi neban. Barriro ogeratuta, une batzuk geroago nire aita-amak intzirika egozan. Biramonean nire aita-amak gaixo zital bat, gogor bat izan ba eben bezela jagi ziran, eta arrezkero, arik aurrera, gau aretatik aurrera, euren osasuna guztiz aldatu zan. Nire ama iru ilebete geroago il zan eta nire aita lau ilebete geroago.

Gertaera bakana benetan!

Osaba, Mateok iñotsan, goganbear, susmo izugarrizko bat dot.

Mateo, besteakandik lagun-urkoakandik, uste gaiztoak ez dagizuzan izan. Zuk sumatzen dozuna, esker-txar geiegia izango litzake!

Juanak itz, berba, onein esan-naia ez eban ulertu.

Baiña zure nebea orain zugaz zelan agertzen da? Mateok itaundu, galdetu eutsan.

Bere espanetan irribarretxu bat be iñoiz ez dot ikusten, berba, itz, maitekor bat niretzat iñoiz ez dau, ta batzutan joten nau.

Zital, donge ori! su-asarrez abade-lobak esan eben.

Neu joango naz bera ikustera, ta zer merezi dauan ondo azalduko dautsat, abadeak esan eban.

Ez, ez, Jaungoikoagaitik ez eiozue ezer esan, bildurtuta Juanak iñoan, ba da ni ilteko gauza izango litzake, bein baño geiagotan zin egin dau, zueri edo beste edozein, notin, pertsonari, niganako dauan jokaera gaizto, maltzurra azaltzen ba dautset, ilgo nauala.

Ederto, abadeak esan eban, etsimen, eroapenez egun batzuk iraun eizuz. Jaungoikoak, Mateo osasun osoz sendotuko dau, ta orduan nire lobeak kaltetuna, bere oiñaze-amailearen eskuetatik gaizkatuko dau.

Jaungoikoagaitik, orretzaz, gai oretzaz, barbarik be ez geiago, itxik be ez geiago, or dator nire nebea ta.

Alan zan, Batxi mendiskatxu baten, etxetik guztiz ur, agertu zan.

Batxi eurakana urreratu arte, danak itxildu ziran.

VII

Batxi, On Joxe ta Mateo ikusiaz apur bat larritu, biotz-ikara bat izan ebala eretxion. Bere jardukera gaizto, zitalagaitik merezi eban agirekadea entzungo ebala, uste eban, baiña nasai, orregaitik, agurtu zan.

Nondik zatoz, Batxi? abadeak itaundu, galdetu eutsan.

Somosetik, barriro urdurituz gazteak erantzun eutsan, nator. Mikel zaranegi'leak egun batzuk dirala agindu neutsazan zaran bi gertu ba eukazan ikustera joan naz.

Asti larregi emon dozu emendik Mikelenera, legu lauren bat baño egon ezteko.

Bai, ba... Mikelek beragaz bazkaltzeko ekin eta ekin jardun dauts eta...

Deduzko notin, pertsonak, izaten diran lez, abadea ta bere lobeak siñiskorrak ziran, eta Juanak bere eretxietan uts egin ebala, oker zala, uste izan eben, eta Batxi Somosetik eta ez Urreztitik etorrela, zalantzarik ez eben.

Baiña Batxi, abadeak jarraitu eban, zelan izan leiteke etxaldea olan arduragabe aurkitea? Auzokideak euren soloetan ereitea, arto-indabak ereitea, amaitutzat diranean, zuk soietz bat be zure soloetan ez dozu mugidu. Batxi, ze uste dozu?

Ez ereitea erabagi dot.

Izan leiteke ori?, abade-lobak iñotsoen. Olan arduragabe baztertu...

Etxealdea, nire arrebeagaz Bilbora bizitzen joateko, saldu bear dot, salduko dot. Etxealde saltzeaz lortuko doguzan diruakaz, Bilbon denda bat zabalduko dogu; ba da emen naizta alegin guztiak egin, nekatu izorratu arte, arto apur bat eta arbi batzuk uts-utsean jan al izateko irabasten dogu.

Etxe ta etxalde saldu!, su-asarrez abadeak, Juanak eta Mateok burubide ori jakin ebenean, esan eben. Ezifiekoa da, Batxi, orrenbesterañoko, etxea saltzeranoko, zeure jaiotze etxea, zure aita-amak jaiotze bizi ta il ziran etxea saltzerañokoa da, zure sendi-ukatzea! batxi, dostatzen, isekatzen zara edo bestela guztiz zoratuta zagoz.

Ondiño ez naz zoratu, ta ez nabil iñor isekatzen be, lotsa-gabe erantzun eban. Arduratu ez bear zaituen arazo baten olan jarduntean, arritzen naz. Anai zaarrena naz, nire aita azken-naia egin barik il zan, eta etxe ta etxealdeaz neuk gura, nai dodana egin daiket.

Etxe ba beste zuen aita-amaren ondorenak, ondasun guztiak, zure anai-arrebarenak be bai dira.

Bosteun dukado bakoitzari dagokiona emon ezkeru, kitu gara. biar ber-ber-ton, lgandea da ta, eleizpean iragarki bat ezarriko dot saltze au adierazoz.

Ze zitalkeri! Ze laidagarrikeria!, abade lobak iñoen, bitartean, Jone espanak idegitoko be bildurrez, negar baten zan.

Esandakoa, bururatu jatana egingo dot, geroago ta lotsa-gabeago Batxik jarraitu eban. Zeuen arazoak zuzentzen alegindu zaitezte, eta ez auzokoenak, ba da iñorena zaintzeak astoa ilten dau.

Abadea erantzuna emoteko gertu egoan, baña Batxik bira bat egifiik, sorbaldea erakutsiz, abeslari etxean sartu zan:

Nire etxean liburu bat dago
olan diño bere izkiak:
Iñoren ardura, arazoetan
Iñor ez daitela sartu.

Jone, abadeak esan eban, bidutzi, zital ori itxi, utxi eizu ta zatoz, erdu gugaz aurpegira be ez eiozu geiago begiratu.

Aaaiii! ez naz ausartzen, Jonek erantzun, ni ilteko gauza da, ez naz ausartzen.

Jone! Jone!, Batxik etxe barnetik oiut egin eban. Or ez jatsu ezer galdut!

Ez eiozu jaramonik egin, erdu geugaz, abade ta Mateok iñotsoen, gelditara naian iñotsoen.

Ez, ez, zuekaz noala ikusiko baleuke, eun oinkada aldendu baño leenago, irurok ilgo geunkez. Agur, agur, men egin bear dautsat, osterantzean zer izango litzake nigaz!

Eta leiatsu, Jone eskillera gora joian.

Abade jauna ta indianotarra, ixil-itxilik eta begiak negar-malkoz ondatuta Gueñeserako ondatuta, Gueñeserako bidea artu eben.

Aldatz-gora erdi inguruan, osin baten, Etxe-ederrara doan bideak eta Somosera doanagaz kurtzeratzen diran tokian, atsedean apur bat artu naian, gelditu ziran.

Miren Done eleizako kanpaiak otoitz egitera deika, entzuten ziran, eta agurea ta gaztea burusturik iru Agur-Miren otoitzak egin ebezen.

Ez bedi berorrek jauna zalantzarik izan, otoitza amaitu ondoren Mateok esan eban. Batxik etxea ta ondasun guztiak salduko dauz. Betirik jabe izan dan sendian, Etxe-ederra ta etxaldea jarraitzea, guztiz bearrezkoa da. Lapurrak ostu-gabe, lapurtu-gabe, geratu jatan diru guztia, nire gurari, nai, onetan eragilko dot eta Inazio itzultzen danean, Jaungoikoak, etxeratzea, nai izan dagiala, aberats nai txiro etorri, esan al izango dautsat: "Or daukazu zure aita-amaren egoitz, zure anaiak salketa zital batek bitartez kendu gura izan dautsuna".

Goiko jauanak, Jone ta ni alkartzea zillegiten ba dau, Inazio itzuli arte Etxe-ederran biziko gara, ta gure bekokietako izardiakaz lur oneik narotuko doguz. Gaur ardura-gabe, baztertuta, lan-gabetuta diran lur maite oneik, berbiztuko doguz.

Ederto, Mateo, ederto!, biotz-minberatuz eta bere lobeia samatik besokaturik, abadeak ifioan. Ludi onetako arima, biotz-aundienduna zara.

Baiña zer? Andik beladetik datorrena, Mikel zaranegillea, ez da?, mendiska magalera beriratz, Mateok esan eban.

Zuzen be bera da, On Joxek esan eban. Eta Somosetik datorren antzik ez dau. Batxik esan euskunetik, andik, bertatik, Somosetik etorri bear eban.

Arrastion, arratsaldeon, edo obeto esanda gabon, On Joxe jauna ta gaiñerokoak, Mikelek mandoa geldi-araziz esan eban. Mikel mando ganean etorren.

Olak Mikel! Ortik, nondik zatoz?

Bilbotik, bertan zaran batzuk saldu ta gero, Bilbotik nator.

Eta zelan joan jatsu?

Ez lar ondo, diru larregi, geiegi, ez dogu lortu, On Joxe, ba da bertan egun bi emon bear izan dodaz, eta azkenean zaranak txakur-txiki batzukaitik emon bear. Eta zer egingo neban ba? Aldi txar baten bizi gara ta abere-muteaz Bilbo diruak arin iges egiten dau. Beste alde batetik, Jaungoikoak nigan ezarri dauan izakera onegaz, egun bikoten bat nire andra ta seme-alabak ikusi barik egoten ba naz, gizon galdua naz. Zer nai dau berorrek, On Joxe! Ori bai, andra ta seme-alabak zeregiñek emoten dabez, batentzat zama astu eta gogorra izaten dira, baiña... ze arraioa!, etxerantz, naizta norberak ez nai izan, norberan egoitzarantz narrasten dauan, zerbait indartsua dabe. Eta eurak jauna, ibilalditxu bat egitetik, datoz, ez? Ederto egiña! Olan, bide batez, Mateo jauna sendotuko da.

Bai, apurka apurka, konturatu bari, Etxe-ederraraño eldu gara.

Ara, ara! ibilaldi polita izan dan. Bertako notin, pertsonatzaz ser diñostazue? Inazion barririk ba dabe? Mende luze bat da, Batxi ta Jone ikusten ez dodazala...

Ez, ez da barririk izan.

Inazio Etxe-ederran egongo balitz, apur bat zuzen, artzago, gauzak an ibilko litzakez, Iñongo amagandik jaio dan alperrena, Batxi ori, da. Bere etxealde, ta ondasunak begiratzea baño ez dago. Ez da bear ezer besterik, Etxe-ederra inguruetan begiratzea baño. Aaii! Martin eta Mirenek, goian bego, euren buruak jaşoko balebez eta euren etxea, Etxe-ederra, zelan dan ikusi, zelan aurkitzen dan ikusi, barriro oiña-zez, samintasunez ilgo litzakez.

Ba dakizu, Batxik etxea ta bere ondasun guztiak saldu nai dauazala?

Gure Jaun eta Jaungoikoa ta bere Semearen izenean!... zer diñost berorrek, On Joxe jauna?, kurutze deuna egifiik, Mikelek esan eban.

Entzuten dozuna.

Baa! Burugabekeri ori, zorokeri ori siñistu eziñekoa da! Izan al leiteke bere aita-amak, aititak eta bere asaba guztiak bizi izan ziran tokia saltzeko adorea izatea? Beintzat, bere burua sorbalda ganean daroan batentzat, ez. Zoratuta egon bear da. Ludiko urre guztiekaitik nik neure etxe ta etxalde ez neukez salduko. Aintza, ospe, aundiagorik batetzat izan leiteke, egunero batek esan al izatea: "zugaitz au nire aitak landaratu eban, beste au nire aititak, ementxe mutilkoak izan giñanean, nire anaiak eta nik jolasten genduan, ementxe nire ama jezarten zan, eme..." amaitzeko, batek azaldu eziñeko milaka gertaera baño? Batxi maltzur ori! Inazio bera dan mutil on, langileak jakingo baleuke zer jazoten dan, beingo baten Etxe-ederran izango litzaske ta burugabekeri ori, zorokeri ori, ez leuke zilegiko. Apur bat baño geiago, Batxi maltzur ori, estutuko leuke!...

Baiña, Inazio bere jaiotze etxe barik geratu ez daiten, au dabil erosi naian, au saiitzen da, saltze burubako ori astandu, alderatzen.

Ederto! Ederto egifia! Bai, bai, On Joxe ulertzen dot, bai, Mikelek pozez beteriko irribarre bateaz, iñotsan. Ori dala ta, Mateo jaunagaz Jone eskontzen da, ez? Mikel errukigarria ber-bera da, guztian beragan jo dau... eta bere neba lotsagaldu orrek, zelako bizitza emoten dautsa!.. Jaungoiko Jauna! On Joxe jauna, ludi maltzur onetan, zelako gauzak, zelako burugabekeriak ikusten diran!

Baña Mateo, naizta jazoriko lapurketa ori, aberats bezela begiratzen daben lez, Batxi ordaiña artu nai izango dau...

Orduan ederto, gertaera au jazo ez daiten, bere alde ez dozu zuk ezer egingo?

Neure arima ta bizia be emongo neukez, On Joxe jauna. Zelan egin al izango dodan esan eistazu.

Etxe-ederra basetxea zeuretzat izango balitz lez, erosiaz.

Berbatxu bat be ez geiago, itz bat be ez geiago, zuen naia beteko da. Biar Jaungoikoak nai ba dau, mezara joaten nazanean bide-batez, gure agitamua eratuko dogu.

Mila esker, Mikel!

Ze esker eta arraio...! Eskerrak etxeko andrearentzat izaten dira... Parkatu eidazu, On Joxe, izugarritzko astokeri bat esateko nengoan eta. Alan da ze, gabon danori. Somoserako zerbait, zeozer nai ba dozue?

Gorantziak zure andrearentzat.

Eskertuko zaitue. Nigandik bardin egin andra Antoniaz.

Biar giar apur bat eta txakolin bikain pitxarkada bat gertatu dautsuela, eskatuko dautsagu.

Je! Je! Ez da bat be txarto, gaizki, etorriko, On Joxe jauna. Mateon makaltasuna arindu daitela, eta biar arte Jaungoikoak nai ba dau.

Biar arte, Mikel.

Zaranegeileak bere bidean jarraitu eban, eta abadea ta Mateo, eguzkian eguerdian argitzen dauan bezela argitzen eban ilargi, iratargiaren argitasunez, euren bidalian abiatu ziran.

VIII

Bilbo zaarreko kalerik txar, zikin, loienatariko baten, itxura gaiztoko notin, pertsona, gendetzea sartzen zan dendatxu bateaz, Batxi jabetu zan.

Notin, pertsona, areik denda aretara diru artu edo emoteko joaten ziran, iñoiz be ez edo gitxitan, zerbait erosten.

Batxi, dendako mostraor ostean, dirua zenbatu ta birzenbatzen, soifnekoz beteriko fardel igatuak lotu ta azkatzuen, ar-txartela, erreziñekoz, izurtu ta tolesgabetzen, naizta irakurten ez jakin, euren, erreziñoen, iturburu ta balioa ba ekian, ori bai, beti iraunkor egoan. Nozean beinka, denda osteko atetatik Joneri deitzen eutsan, eta Jone bereala dendan agertzen zan, eta bere nebearen aginduz, liburu baten aoarketa batzuk ezartzen ebazan, edo arkatz bateaz. Batxik bere atsamarraz eratu eban artu-eman anbat, barriro eratzen eban.

Jone errukigarriak soifnean eban jantzi zaar, aje arek, bere jantsierak eta bere argaltasuna, eroritasunak, bat erruki-araziten eban.

Berantzat, Jonentzat, ez zan atsedetik, Bere aita-amak, bere neba Inazio non aurkitzen zan be ez ekiela ta Mateo ondiño guztiz sendotu, osatua ez zana gogoraturik, sarritan izuriten ebazan negar-makoak legortzeko, ez eban iñor izaten.

Bere lan, amaibako bearraren ordainketak gozea, billustasan, irain eta joketak, zartadak, ukubilkadak izaten ziran. Baiña bere espanetatik sekula kexatxu bat be ez zan entzun. Batxik, bere indar eta neskatil errukigarriaren makaltasunean gaiñeratuz, sekulako nagusitasuna Josegan, lortu eban. Bere abotsa entzun orduko neskatil oben-gabea ikeraz jota, dardaraka izaten zan. Gizon aren begirekada bat, naiko izaten zan katamotz basapiztienea be makaltzeko; sotiltasan, etsimenez burua makurtu, ta ixiltasuna ezarri araziten eutsan.

Gau baten Batxin dendan gizon esku ta aurpegi ikatzeztudun bat sartu zan.

Gizon aurpegi baltzituta eroana ikusi orduko, Batxi zurbilduta guztiz larri, urduriturik, eta naizta ondiño dende ertsiteko ordua ez izan, leiatsu dendea ertsitera joan zan. Apur bat geroago, bere arrebea etxe barneko gelatan egoala ziurturik, denda osteko atea birakatu eban; etor-barria iñor be agurtu barik jezarri zan, eta Batxi bere alboan jezarteko asmuz, beraganatz abiatu zan.

Zer dago barririk, Txomin?, etorri-barriari galdetu eutsan.

Gauza oso gitxi, gutxi, etorri-barriak erantzun eban. Txoria txoritegi, kaiolan nekazten dala, eta beratetik, agindu zeuntsoen bezela, ateratzen ez ba dozue, jolas-arazitzeko eta apur bat geiagorako be, abeslari izango dala diño. Nire laguntza izan eban sasoian eroapenez izan da, baiña nik, Jazinta ogisaltzaillea ta autorleen bidez, nire ikatz-txondorraren alboan jai aretako gaba osoa abesten emon nebala esanez, askatasuna birlortu nebanetik ona, arik ona, txori errukigarria gogaiturik ilten dago. Orregaitik abestera doala, diño, ia bere abestiak erakarrita, berari lagun egiten ba zoaze.

Batxik zantarkeri bat esanez, lurrean ostikada bat emon eban eta bereala etorri-barriari esan eutsan:

Eta niretzat zergaitik zama guztiak izan bear dabe, danok bardin errudun eta beraz atsekabetan kide izan bear ba dogu?

Astiro, geldi-geldiro, adiskide, nik neure laña ordaindu dot eta. Emon zeuztezan ogei ontzagaitik, gari-urriñeko etxean ogei aste oso emon dodaz, osteraz zuek, altxor-rrak kontuan izan barik, bakoitzak berreun ontza ganetik urte zenduan, eta Amezti, Avellanedako, espetxean, giltzapean bazkalondoko bat be ez dozue lo egin. Besteak anka egin dabe, eta beraz zu zara uts-utsean zeren... arriskua dozuna, ulertzen daustazu, ez? au da, auzi-epaileak urre-errazoiz txoria kaiolatik urten dagian, atea idegi bear dautsoela sifnist-arazi egiten ez ba dozuz...

Zin egiten dautsut, Txomin, txakur txiki bat be ez daukadala.

Beste txakur bategana azur orregaz! Euneko eunean dirua ordaiñez emonda, ondasun ugari lortu ba dozu! Batxi kontuz ibilli zaitetz, ba da Gueñestarren artean, zure belarrientzat bat be atsegingarria ez dan zurru-murru bat entzuten da.

Gueñestarren barriketak ez dira niretzat arduratsuak.

Zuk, Errunbanarena ez dakizu, ez?

Ez, eta jakiteak ez daust bat be ardurarik.

Naizta Enkarterri lurraldetan, Errunbanari zer jazo jakon jakin barik, bularreko umetxurik be ez egon, zuk ez jakitea izan leiteke, gizona? Eta ez dakizun ezkerero, neuk oraintxe emen berton, edestuko dautsut.

Txomin, nigaz edo nitzaz zer ikusirik ez dabezan ipuiñak, baztertu eizuz.

Zugaz, zutzaz ez dabela zer ikusirik?, entzun eizu, entzun, adiskide, eta gero, Errunbanari jazo jakonak zutzaz zer ikusirik ba au, ikusiko dozu.

Errunbana, Zallako erritarra zan, auzokidea. Gizontxu au, bere aita-amaren etxealde ta ondasun guztiak salduta, luzaro errege bat bezela bizi izan zan. Baña azkenean, egun baten oregi, bellegiak, amaitu ziran, amaitu jakozan, eta bere erregebizitza azken egunetan aurkitzen zala nabariturik, erdi-zoratuta, atsekabetuta agertzen zan. Dirua zelan birjabetu naian ausnartu ta ausnartu, gaba baten, Gueñesera joan zan, eta birritan oldoztu gabe, indianotar baten altxorretan bere esku zikiña sartu eban, eta bellegi, ornitze, ori-ornitze barriaz, nezkatillatxu bat jantsi barri bateaz baño pozago, Zallara itzuli.

Naizta zuzen-zaiñak alegin guztiak egin gertaera, lapurketa aren egillea ezin izan eban argitara atera. Baña ara non, gertakisun au ia aitzuta zala, txiro ta aberats, euki-tsuak, gazte ta zaar, lodi argal, onelan abesten asi ziran:

Errunba Errunbana

Gueñesko otxiñak

Zallan arrunbatzen.

Amezti, Avellanedako, tenienteak abesti au entzuten dau, Errubana errukigarriari bost aginduak irakurten dautsaz, eta urkatresna alboan dantzatu eragiten dau, Alan da ze, laguntxu, abestia zuretzat bezela artu eizu, ta begiratu, aditu eizu, ia arazo onek ba dauan ala ez zugaz zer ikusirik. Gueñesen entzuten dan zurru-murrua tenienten belarrietara eldu leiteke, ala ez?

Adiskide, zuk esan dozu, zure baitan diñozu: "Naizta diru ugari daukadan, Gueñesen ez eze Bilbon be, norbaitek, batan batek, meza orreik nondik urteten dabe itaundu barik, eta beste batek, beste anbatek, abadearen etxetik, abadenetik, eran-tzun, ezin dodaz irazi, gaztau. Baña etxealdea saldu ondoren, etxealde osoa saldu da

ta, beraz dirutsa au nondik datorren jakingo dabe ta, orain sal-erosletzan saiatu gaitazan. Emendik naiko urrun, zenbat eta urrnago oba, sal-eroski denda bat antolatuko dogu. Ni ondo be ondo ezagutzen nabenak, nire arremanetan muturra sartu ez dagien, gure ogi-bide barri orretan guztiz urrunera joan gaitazan”.

Ez da egia, laguntxu, zuzen be au izan dala zure baitan iñozuna?

Baña nora joan gura, nai, dozu, Txomin?

Onek esan nai dau, buru argiz jokatu zendula, ta buru-argiz jarraitzekotan be, gaur gabean amaikakotxu bat ontza emon bear daustazuz, ia eurak eskupeko izanik, Ameztko txori-jagoleak, atxilotuta dagon txoriaren kaiolea idegiten ba dau.

Eziñekoa da, Txomin, eziñekoa dala dirautsut, ez daukadazalako. Eukiko baneuz be, ez dozu uste, naikoak emon dodazala?

Laguntxu, egizu zeuk nai dozuna. Zure erantzuna, atxilotuta dagon txoriari jakin-erazten noa. Ikusiko dozu, zelan abesten dauan...

Aaa! guztiz naigabetuta, Batxik esan eban. Au bidezta ba da, deabruak eroan naiela! Au, millaka ilte, eriotz izatea da, au ludian, inpernua izatea da! Ez dot lorik egiten, atsedetik be ez dot! Beti urduri, kezka, ezin-egonez, beti inpernua arimean ezarrita! Ludi onetako gizasemerik zorigaiztokeena naz!

Txomin, ixillean irribarre maltzur bat bere espanetan agertzen zala, abesten ari zana:

Zure nai zenduan
praile mosten,
Zuek gura, zenduan
zeuk eutsi orain.

Alan da ze, lagu, amabi ontzatxu orreik emon eidazuz, bestela txoria abeslari izango da.

Batxik, agiñak, ortzak, karraskatu, burua mugidu ta kutxa bat tiratuaz, izugarritzko birao bat, bere aotik urten eban. Kutxatxutik urrezko sei ontza atera ebazan eta mostadore ganera jaurti.

Lagun, Txomiñek iñotsan, beti abost maltzurrez, ia beste seirak.

Ez daukat geiago.

Txoriak geiago bear dauz.

Batxik beste ontza bat mostrador ganean ezarri eban.

Ala, ala, bete bostak laga, lagun.

Batxik, beste ontza bat, birao-ikaragarri bat lagunduz, bota eban.

Lagun orain oso gitxin, gitxiaren utsa dozu.

Ez daukat geiago.

Laguntxu, txoriak abestu egingo dau ta...

Batxik mostrador ganean beste ontza bat itxi, utxi, eban.

Ia beste irurak, ia.

Iru deabruak eroan zaizala, ta ni zure aurretik...

Lagun, txoria amurrututa dago abestu naian...

Batxik barriro ontza bat mostrador ganean, birao bat lagun ebala, ezarri eban.

Naizta bizirik lardekatu ez dot bat be geiago emongo!

Txoriak abestuko dau, Txomin, eta zure samea kizkeltzera doa...

Batxik beste ontza bat emon eutsan.

Alegin txikitxu bat geiago, lagun, eta kitu gara.

Naizta nigaz zerra batzuk egin, ez noa geiago emoten.

Txoriak abestuko dau!...

Nai dauana egin dagiala, abestu edo negar!

Ziztriñ ori, ontza bategatik zure saman korbatife ipinte zillegiko dozu?...

Batxik, zoro-aldiz itsututa, beste ontza bat jaurti eban, esanez:

Eutsi, ta zeu urkatzeko sokea erosten erazi eizu.

Orreik urkatzaillearen lana ordaintzeko da, ontza lasaitasunez arturik, Txomiñez, esan eban. Ia, atea idegia eistazu, ba Urkizura joango naz, ia kaiola burdin-ari artetik, bitartetatik, kalamu-azi oneik sartu al ba dodaz. Gero, jarraian Arosako ameztietan biztuta daukadan ikatz-txondor bat ondo badoa ikusten beingo itzuli bear naz. Bana- ketak egitean, zuek nigaz ain zeken izan ziñien ezkeru, barriro aizkorea eskuratu bear izan dot.

Onetan Batxik, ateko giltza artzen joiala iruditurik, mostradore buruan estalduta eukan aitzo aundi bat arturik eta itzal-gaiztakeriz atzitzuz, Txomiñerantz oinkada bat emon eban.

Laguntxu, Txomiñek bere betiko irribarre maltzurrez eta bere jakearen barneko sakeletik atera eban zipolet bat maillukaturik, esan eutsan:

Atearen giltza aurkitu ezin badozu, ate ta leio guztiak idegiten dauazan bat, ementxe duakat nik... buruan zein bularrean, eta zure aitzo orrek baño obeto.

Batxik, koldarkeriz aitzaki bat zizakatuz, aitzo lurrera jausten itxi, utxi, eban eta leiatsu atea idegi eutsan. Txomin bertatik bereala urtenda, aldendu zan.

Batxik, urduri aldatzari-kutza idegi eban, eta beratan artero aitatu doguzan amabi ontza orreik itxi eben utsunea ikusirik, biraoka bere uletatik, buruko uletatik tiraka umetxu bat bezela, negarrez asi zan.

Egun batzuk geroago, kartaria gutun bateaz agertu zan egunean, Batxi denda aurkitzan zan. Gutuna, leen baten Gueñes zuzenbidea ezabaturik, Bilbo ezarriaz ordezkaturik zan, eta ordain-gabea.

Batzik, gutuna irakurri egiola aginduz, Joneri deitu eutsan. Bere arrebeak agindu au, zeregiñ au, leiatsu ta pozez beterik eta negarrez bete eban.

Gutuna Inazionan zan.

Inazio bere aita amaren eriotzatzaz jakitun zan, eta bere anai-arrebari laster etxe- ratzeko asmua ebal, adierazoten eutsen. Orrez ganera, naizta alperrik bein eta barriro tirakisun gogorak egin, eta bila joan zan ondorena egin lortu izan, gutziz abe- ratsa zala adierazoten eutsen. Ondasun ugariak jabetu zala, ta au ber-berana uts- utsik izanik, apetaz erabilli leikela. Gure erritarrak Ludi Barri lurraldetara joaten dira- nak eta bertan geienak euren bizi osoa emonda, lan gorgor, neketsuak jasan ondo- ren lortzen dabezan ondasun guztiak baño askoz geiago, berak urte gitxitan, aldi labur baten lortuak, Jaungoikoak bere atsekabe, nekaldiak sariztatu eutsazala, pozez gutun orretan agertzen eban.

Bere osabearen ondorena azken-betetzaillenen eskuetatik kentzeko, Mexikon erri-

ratuta bizi zan bizkaitar baten laguntza izan eban. Bere laterritar laguntzaillea, babeslea, lurralde areitan ondorengo gabe ilda, bere diru ta ondasun guztiak berantzat, Inaziontzat, izateko azken-naia egin eban. Onela bere osabearen ondasunak eskuratzetzaz izan ebazan atsekabe, itxaropen-galduen ordainketa bat bezela izan zan, arik aurrera alaitasun apur bat bere bizitzan izan egian.

Aberatsa naz, Inaziok iñoan, eta nire anai-arrebak nire maitasunaren duiñ jarraiten ba dabe, nire ondasun guztietan kide izango dira.

Batxin etsimena, azaldu eziñekoa zan.

Bere anaiak, ameriketatik bila joan zan ondoren ondasunak ekarri baleuz, Batxik berari dagokion irugarren zatia, tirankisuna eskatu al izango eban, baña Inazion ondasunak, aberastasuna beste alde batetik etorria izanik, eskatzeko eskubiderik ez eban. Ganera, Batxik, bere anaiaren gutunean zemakuntz bat nabaritzen eban.

Bere aita-ama ta bere arrebeagaz jokaera doilarra izan ebala, Batxik berak be ba ekian, orretzaz ez eban zalantzarik. Bere aita-amak, eurakaz izan eban jokaera doilara zuzendu, antolatu egien, euren gogoa lausekeriz irabasi, ezin ebazan lez zurikatu, al eban guztian eta arazo guztietan, zio guztietan, Jone goralduta ta beragaz koipekeri maltzurrez ebilen.

Agun aretitak, arik aurrera, neskatik errukigarriaren bizitza guztiz aldatu zan. Batxik, bere arrebearen serbitsurako nezkame batzuk alogoratu ebazan, jantsi garesti, bere arrebea pozik, alai izan eiten ugaritasuna alde guztietatik, an ez zan ikusten, nabaritzen, urritasunik, guztia zan oparitasun eta aundikeria.

Jonek ez ekian zar jazoten zan, bere nebearen gertaeraren gurari, naia, ez eban sumatzen; aurrerago izan zan bere zirgortzailearen biotzean, Jaungoikoak bere eskua ezarri ebala, uste eban. Batxik bere egikisunetan izan eban aldakuntza dala ta, guztiz zoriontsu zan. Ezarian gorrotora biurtu zan neba-arreba arteko maitasuna, Jonen biotzean barrira apurka apurka, antziña izan zan antzera, maitasunera birjabetzen joian.

Jone, Inazio maitatzen eban antzera biozkoi, kutunez, Batxi maitatzen asi zan.

IX

Kastro Urdiales itxas-kaia, Gueñestik host bat legu ta Bilbotik zazpi legu bitarte dala aurkitzen da. Bertan Ostegun eta Igandero goizetan azoka bat izaten da. Bertan, azoka orretara, Zalla, Sopuerta ta Enkarterriko beste erri batzuetatik, bertako ogi-saltzaileak joaten dira. Oneik geinen bat andrazkoak.

Igande baten, goizeko amarrak inguru izango zan, Kastro Urdialesko azokarantz, Santanderretik etorrita, El Sable deritxon nasan lurreratu barri zan gazte bat joian.

Ogi-saltzaileen saltokietan naiko ur gelditurik, ogi-saltzaile bategana urreraturik, adiskidetasunez eta alai, esan eutsan.

Zelan doa salketa, Gueñesko Bustenduna (Rabuda)?

Neskatil ogi-saltzaileak arrituta begiratu autsan, eta naizta Bustenduna (Rabuda) Gueñesko erritarrentzat ez-izen zirikatzagarrria izan, ogi saltzaileak, neskatilatxuak, nasai, ez-entzun egiñez jarraitu eban. Esan bear dot, Zallatarrei Sorgiñak, zirikatu naian eta Galdasestarrei Belagilleak (Hechiceros), deitzen dautsela.

Begiak zamartuta, laustotuta daukadaz, edo berorrek... Ikazan bear dau. Baña kia! Ain jaseko mutila ez zan a!...

Ixildu zaitetz! Orduan Jazinta errukigarriak ez nau ezagutzen?

Ama Birgiña Begoñakoa!, bere besoak zabal-zabalin ogisaltzaileak ean eban, Inazio!

Neskatil-nekazaria ta mutil gaztea, biotz-berotasunez, alkar besarkatu ziran.

Jazinta, beste andra ogisaltzaileek galdetu, itaundu, eutsoen, zure senide, aidea, da zaldun ori, ala?

Ez, ez da nire senide, aidea, baña neure semea izango balitz bezela maite dot, Jazintak poz-negarrez eta arro-putz, erantzun eban. Neurea izan eban berak leenengo edan eban titia.

Ze eder, jaseko zagoz, semetxu. Zelan azi, goitu zara! Aaaa! zure ama maiteak bere burua jasoko baleu! Mirenek, G.B. zelan maite zinduan! Mirenek, G.B. zelan maite zinduan! Sarritan esaten neutsan nik, baiña andrea, seme orrek zoratuko zaitu! Eta abade jaunak esaten eustan, "Jazinta itxi, utxi, eiozu, alaperrik da, Inazio bere seiñe, kutuna da ta".

Mingarria da, mingarria, seme, bai, Batek erbesteratzean sendi on eta guztiz alkartu bat, emen bertan itxi, utxi, eta orain erriratzean, batzuk ilda ta besteak Jaungoikoak daki zelan eta non bizi diran, aurkitzea!

Zer dirauts, zer diraust berorrek, Jazintza! Nire anai-arrebak Etxe-ederran ez dira bizi, ala?

Baña zer! Burubako Batxi zital arek, Mikel zaran-egileari etxea, etxalde ta ondasun guztiak saldu eutsazala, ta zure arrebeagaz Bilbora joan zala, ez dozu jakin, ala?

Jaungoiko Jauna!, Inaziok arrituta esan eban. Orduan nire anaiak etxea ta etxaldea saldu dauz, ez?

Dirautsudana, seme. Arek biotzik ez ba dauka! Ludi, mundu, onetan bizitzeko be arek ez dau eskubiderik. Bere aita ta ama oinazez eta atsekabez il ba dauz!

Inaziok bere begiak negar-malkoz ondatuta ebazan ezkeru, alkar-izketa mingarri au, aldatu nai izan eban.

Eta abade jauna ta bere etxeokak, zelan dagoz?

Alan olan, seme. Abade jauna guztiz zaartuta da, ta indianotarra eiza-izkilluaz erbi-eizan jardutean sauritu zan, eta naizta arik ona aldi luzea joan da izan, ondiño ez da sedotu, osatu. Orregaitik zure arrebea gaur-egun eskondu gabe dago. Berak diñoanez: "neskatil errukigarri orregaz, bere sasoirik onenean alargun geratzeko arriskuan ezarririk, zetarako eskonduko naz?". Ondo be ondo jarraitzen dauana Andra Antonia da, naizta zoritxar ugari jasan bear izan, ondiño gazte aurkitzen da. Izan be, a etxeok-andra bat da, etxe-maitale andra bat, bai bene benatan andrazko andra txalogarri bat da. Bera osasuntsu dan artean, bere auzokiderik estu ta larri bearzenean, ez da izango, Jakingo ba zeunke, seme berak zenbat maite zaitun. Bere

espanetan Inazio izena egunero agertzen da. Baña Indiatan, Ameriketan, zelan izan zara, seme?

Danatariko izan da, on eta txar, gaizki, AMeriketean legorrean ondo, baña itxasoan gaizki, txarto. Nire dirutsa guztia ekarran itxasontzia itxaso zabalean ondaturik, bera-gaz nire ondasun guztiak joan ziran, galdu nebazan, beraz, joan nintzan aifako txiro itzuli naz!

Aaaa ze samintasuna, tamal, seme! Baña, ze arraio! bizirik urten dozu, ta ori garrantsitsuena da. Ara, orregaitik ez zaitez larritu, osasuna izan ezkeru, ogi zati bate utsik ez dozu izango. Orduan Gueñesea batera joango gara, ez? Mando bi daukadaz, olan bakoitza berean arro joango gara...

Milla esker, Jazinta, baña Bilborantz itxasoratu bear naz, nire anaiak bertan dagozen ezkeru, bertara leen leenen joango naz. Gueñesera erriratu baño leenago ikusi gura neukez.

Ederto, seme. Ondo egiten dozu. Antziñekoek iñoen lez: Bere sendiak beragaranatzen ez dauanak, Jaungoikoaren leguntzarik, ezin lei izan. Egia da, Batxi, biotzgabe, maltzur bat da, baña baita be zure anaia, odolak beti erakarriten dau bat. Baña Jaungoikoagaitik, seme! Etxe-artean, aide, senide, artean, beti Judas anbat egotea, tamal da beneta!...

Baña Jone zu ikustean poztuko da. Ak, arek, zura anaiaren antzik be ez dau! Zure ama ber-bera da, bere amaren irudi antz-bizia. Beti bere etxetxua konpontzen, apaintzen, lanean... Ganera esku bikaiñak daukaz danerako!

Jazintak, bere otsara salgai albora urreratu jakon itxas-gizon bateri ogi bat saltzeko, bere iñoiz-amaieziñeko izketa, apur bat geroagorako baztertu bear izan eban.

Orduan, seme, Gueñeserako nai dozu ezer?

Zure aide, erritar eta auzokide guztientzat, gorantziak, bertatik laster ikusiko gara.

Biramon goizean goiztar, goizetik, Bilborantz urten zan itxas-ontzi baten barriro ontziratu zan. Ordu batzuk geroago uri aundi ta ospetsu aretan kaieratuz.

Inazio dendako ate aurrean agertu zanean, Jone ta Batxi bertan, denda barnean egozan.

Alkar ikustean, irurak azperenezko oiu poz-alai bat egin eben, eta bereala besarkada baten alkartu ziran.

Batxik bere anaiari bere maitasun beroa adierazo, agertzeko egin ebazan txera, biotz-beratasunak, azaldu eziñekoak dira, eta ondiño be, Jon ta Inazioren biotzak gaiñezkatzen zorion, poza azaldu al izatea, eziñagokoa.

Anai-maitasunaren leenengo samurtasun-aldia izanda, Inaziok bere anai-arrerebeari bidalian izan ebazan gertaerak azaldu autsezan, zelan itxas-ontzia itxas zabalaan ondatuta, berak ekarzan ondasun guztiak itxas ondarrean itxas-ontziaz batera geratu zirala, ta beraz ezeuki, beartsu, txiro aurkitzen zala.

Indianotarra izketan, berbetan, azalpen onetan jardun eban bitartean, Jone ta Batxiren besoak, Inazion idunean aurkitzen ziran; baiña Batxik, bere anaia Etxe-ederratik aldendu zanean baño txiroago etorrela entzun ebanean, Inazio izurriz kutxatuta, kutsudun etorrela esan ba eban lez, beragandik aldendu zan. Jonek ostera, bere

bularrean bere biotz-maitasuna adierazoz, estutzen eban; baiña naiko aurreragotik, antziñatik, menperatzen eban Batxin berikada batek, berè naimena menperatzen eban begirakadatariko batek, Inazioganago bere biotz-maitasun agertzea, bereala amaitu zan.

Inazio, Batxik iñotsan, zu gure etxetik aldendu ziñanetik, gure sendia dala ta, amaikatxu buru-auzte, neke, jasan bear izan dodaz, eta geiago nekatzerik bearturik izan bear dodala, ez dot uste. Txiro ba zara, neu be bai, neu be ba naz. Eguneroko ogia irabasteko, zure eguneroko ogia irabasteko, lan, bear egizu. Neuk, Jone ta bion ogia irabasteko egiten dodan lez, zeuk be egin eizu, egizu.

Orrek esan gura, nai dau, zure etxeko atea ertsiten daustazula!, biotz-samintasunez, Inaziok erantzun eutsan. Ederto dago, Batxi, zure etxetik jaurtitzen ba nozu, nik beste egoitz bat aurkituko dot. Zuk doilorkeriz, zitalkeriz, saldu zenduan gure aita-amarena, birerosiko dot, eta bertan neure gogoketa, neure txirotasun... edo aberas-tasunagaz biziko naz.

Berba, itz oneik esan ondoren eta bere arreba Jon negarrez ondatuta, utxi, itxita, aldendu zan.

Azkenengo etsimena!, etxetik urtekeran iñoan. Berak be, bere arrebeak be, bere nebea baztertzen eban!

Bilbotik urtenda Gueñeserako bidea artu eban.

Atsedean apur bat artu naian eta bide-batez bertatik agertzen zan ikuspegi zoragarrria so-egifñez, begiztatzeko, Altamira auzunera eldutean, une labur baten bertan geratu zan.

An, bertan, Ibaizabal aranean, Bilboko dorreak gailurtuta nabaritzen ziran, eta Santiago Eleiz-nagusiak bere kanpaiketaren ots, soifñu alai saratatsuz, abesti, eresi poz-alai zoragarri bat Jaungoikoari opatuz, agertzen da.

Inaziontzat kanpaiketa a bere biotzean il-barriak ziran zorion eta maitasun itxaropenaren iletatara deitzen ebala eritxion.

Bertan atsedean apur bat artu ondoren, burua makur, goibel, naigabetuta, bere biotz maitekorra etsimenez ondatuta, Inaziok bere bidean jarraitu eban.

Kastrexanako zubia igaro eban, zubi au, beste asko bezela, erritar arruntaren, erri-arruntaren, eretxiz, deabruak eraikia zan, eta beingo-baten Sodupe lurraldeak oinperatu ebazan, au da, bere jaiotze aranera erriratu zan.

Aaaa nire Jaun eta Jaungoikoa!, luzaro, aldi luzean erbesteratua izanda, norberan jaiotze aranera itzulirik, bera begiztatzea, ze atsegintsu izan bear dau!

Bide aldamenean zan mendiskatxu batera igonda, bertatik Etxe-ederra, bere jaiotze etxea, egoitza, uso zuri bat larrosa-mulu baten ezarrita bezela iruditzen jakon.

Baiña etxe areñan, egoitz maite, kutun, aretan, orain, gaur-egun, bere urruntzeaz, erbesteratzeaz, guztiz naigabetuta izan zan ama batek, ez eutsan itxaroten.

Kereixtegi lurraldetara eldutean, bera agurtzen, leio areiktatik alaitasunezko oiurik ez eban entzungo. Besoak zabal-zabalik, poz-alai bera besarkatze naian, etá atariko atetik bere ama ez eze nire aita ez anai-arrebarik be ez ziran urtengo. Bere asabaren egoitza, orain ezezagun batzuen bizileku zan; bere gaztaroko gogamenak bururaturik, bere biotzean itxaro-penezko aize ozkirri samur, gozo bat sortu-araz-

teko, etxe aretan sartzen be ez eutsoela zillegiko uste izanik, bere biotza samin eta oiñazez beterik zan.

Jaungoiko Jauna! gazteak esan eban, zergaitik itxaso zabalean nire ilobia ez da izan!

Bere begiak, negar-malkoz ezoturik ziran begiak, bere jaiotze ibarretik, aranetik, aldatu ebazan eta beste aldera begizatzean, poz-alaizko oiur bat egini, leiatsu bere biderantz abiaturik, besoak zabalik, larri ta irribarretsu, beraganatz joian neskatil gazte bateaz topo egin eban, bereala alkar-besarkaturik.

Gazte au, nezkatik gazte au, bere biotzeko arrebak Jone zan.

Inazio! Inazio!, nezkatil errukigarriak, bein eta barriro iñoan. Zure txirotasunean kide izan nai dot, zure alboan bizi gura dot, zure zori, edozelako zori, on edo txar, ardura-gabe zugaz bizi gura dot. Makala izan nintzan, bai, baiña nigandik zu aldendu zifananean, alendu orduko, nire koldarkeriagaitik lotsatuta, zure bakartasunean, zure atsekabetzaz gogoraturik, nire nebeagandik iges egiteko adorea izan neban. Aaii Inazio! Ze errazoi eban, zuzen egoan gure aita, Batxik ez ebala biotzik esaten ebanean! Batxi aberatsa da, eta zu txiro, beartsua zaralako baztertu zinduzan!

Ez, nire arrebak maitea! Inaziok, erdi zoratuta, atsegin, zirionez zoratuta, iñotsan. Zure maitasuna bat dot, ez naz txiro, beartsua. Zure maitasunaren utsa batetzea zan, nik bear nebana, beste guztiak zoriontsu izateko ba dodaz. Aberatsa naz, sekulako ondasunaren jabe naz, nire anai-arrebearen maitasuna egiazkoa ba zan jakiteko, jakin naian, orain arte ez dot azaldu nire egizko egokera. Gure zoriona an dago!

Inaziok bere eskuaz jaiotze egoitza erakutziz eta biak maitasunez bata-bestearen besoak kurutzatuta, euren bidean jarraitu eben. Bitartean Gueñesko Ama Donaren eleiz kanpaiak otoitzera dei egiten eben.

X

Inazio Gueñesera itzulita amabost bat egun geroago, notintsa, andra-gizonezko aldra ikaragarri bat, ibarren moltsoten zan eta Miren Donearen eleizako kanpaiak, tanboril soñuaz eres-neurkiz, eleiz alboan egoan landa kerizpetsua alaitzen eben. Zaindari Donearen jaiak ospatzen ziran, eta albo errietako biztanleak, jai beratarak joiazan.

Jazinta ogisaltzaillea, franelazko bere buru-estalki bat bere Toledoko artillezko jantsiaz, Bizkai Jaurerriko andra-nekazariek geienak diran bezela, garbitasun osoaz, apain, guztiz alai, eleizatik urten zan.

Andra-auzokide batzukaz topo egini, eurakaz alkar-izketan asi zan, ba dakigu, Jaungoikoari eskerrak, Jazinta ez zan mutua.

Zer, Agustine, eleizara zoaz?

Bai, eskongaiak ikustera noa.

Aaii alabatzu!, neskatil serafin bat bezela dago, eta mutil gazteak zeruko aingeru bat dirudi.

Eta aita-amabitiak, nortzuk dira?

Baiña andrea, nortzuk nai dozu izan daitezcan, ba? Antonia ta Inazio, obeto On Inazio, ba da Gueñesko aberatsena izanik, bere izen aurrean On ori ezartzea bearrezkoa da, naizta berak, beragaz alkar-izketan "berori" erabiltea be ez dau zi legiten. Aaa ze maltzurra! Zelan Kastron etsipetu ninduan!

Alabatxu, Jaungoikoak zoriontsuak bizi osoan egin dagizala.

Ez dauz zoriontsuak egingo ba!, abade jauna bera be gaztetuta da ta, amabost egun oneitan, azken oneitan, ain lodikote egiten eben larrosa margo areikaz, barriro jabetu da ta.

Zu etxe-artekoa izanik, eztegutaz zerbait edestu al izango daustazu.

Bai, zelan ez! Beratarra joateko be deitua izan naz eta. Bai, zelan Inaziok olako egun pozgarri baten, berari, Inaziori, leenengo titia edaten emon eutsan andra, bera ba zan, aitzuko eban ba!

Ara alabatxu, Inazio Gueñesera eldu zanean, leenen leenen egin ebana, abade jaunaren etxera joatea izan zan, eta bereala esan eban: "Ni aberatsa naz, baiña aita-ama bat bear dot eta baita be anai-arreba bat. Nire arreba Mateoaz eskondu daitela, eta berori On Joxe nire aita izango da, berori Andra Antonia nire ama, ta zu Mateo nire anaia. Seme-alabeen ondasunak aita-amarenak be ba dira, ta anai-arrebeenak euren neba-arrebeenak be bai. Alan da ze, ba dakizue, nire diru ta ondasunak, nire aita-ama ta nire neba-arrebarenak izango dira. Udabarri ta Udan Etxe-ederran biziko gara ta Neguan emen".

Alabatxu, Inaziok bere izketa amaitu ebanean, amaitu orduko, umetxu batzuk bezela, danak negarrez besarkatu ziran. Baiña ixildu zaitez, eskongaiak eleizatik urtetan dira ta. Bertara ariñeketan goazan, ba da ikustekoa da bikote au alkartuta.

Jazinta ta Eguzkiñe eleizako aterantz ariñeketan abiatu ziran.

Tamala da, alabatxu, Jazintak iñoan, Juangoikoak Martin eta Mireneri (G.B.) gaur eguneko gertaera au ikusteko ta beraz eurekaz gozatzeko, ordu laburtxu bat, berbiztuaz, opa ezifia!

Zuzen zara andrea!, Gueñestar erritar guztiak gaur zoriontsu dira, egun zoragarri bat, bai benetan gaur gure erritarrentzat.

Txiroen, beartsuen, artean Inaziok banandu dauazan erruki-sariak amaibakoak dira. Orrez gatera, ber-berak esana da, Gueñesen, Gueñesko errian bera bizi dan artean eta bere sakelean, diru-zorroko, ogerleko bat geratzen dan bitartean, jan barik iñor ez dala geratuko. Aditu eizu, danontzat zorion utsa, atsegingarria da bene-benetan, bera aberats erriratzea. Eta zer difaustazu Etxe-ederran alogoratzan dauazan notin, pertsonatzaz?...

Baiña zer, an bere etxean, esku-lanak egiten dabil, ala?

Izugarrizko, sekulako, lanak. Esan daiteken guztia gitxi, gutxi, da, alabatxu, lora-tegi, iturri, usotegiak, jauregi bat...

Jauregi bat!...

Bai alabatxu, erriko eleizea baño jauregi aundiago bat. Begiratu eizu, etxe zaarra

bere barnean oso-osorik geratzen da ta. Inaziok ezergaitik be etxe zaarrari ukuturik egitea be ez dau nai, gura... Baiña ixildu zaitez!

Baiña andra-gizon aldra a, ariñeketa baten arbiderantz, zergaitik doaz? Joan gaitetzan, goazen gu be bertarantz zer jazoten dan ikustera.

Eta auzokide biak atxintxi, ariñeketan, bertarantz abiatu ziran.

Erromeri, jaialdiko notin, pertsona, guztiak arrituta begiratzen ebana, lau txapel-gorrik ukondo-ukindoz gogor lotuta gidaritzen eben mutil gazte bat, ziurki, zalantzagabe Urrestiko espetxera, zan.

Baiña zer da ikusten dodana, alabatxu! Jazintak guztiz larrituta, esan eban. Ama Birgiña Begoñakoa! Batxi ba da!

Zuzen be, bera da!

Aaaii alabatxu! Zuzen zan Miren, errazioa eban Mirenek, Batxin azkena espetxean izango zala, iñoanean!

Mikel, zaranegilea, abade jaunaren etxean, abaderean balkoian egoan, eta bertatik, etxe aurretik Batxi igarotean, zerbait berari, Mikeleri, esan naian gelditu nai izan eban, baiña txapel-gorriak zizpakada bat lepoan emonda, ez eutsoen zilegi ta Kadagua gora, jarraitu eben.

Txoria abeslari izan zan, abestu eban!

JAUNGOIKOAGAN SIÑISTEN DOT

I

Mila ta zortzireunde berrogeta emeretziko Iraillako arrasti, arratxalde baten, erbesteratuta, nire urruntzetik ogei urte geroago, nire aita-amaren egoitzara etxeratzean, barne-ikarak eraginda nire biotza artega, urduri, ta nire begiak negar-malkoz ezoturik, ondiño legortugabe neukazala, alboko aran batera abiatu nintzan. Aran au, Enkarterri lurraldetako aran guztiak bezela, niretzat gogoketa, gogamen gozo, pozgarriak ebazan aran batera.

Pozbide Birgiña opatzeko, ni bidegintzan nintzan aranean, bazeliza bat egoan. Baseliza aretan, bere barnean, niretzat gogamen deunak, pozgarriak barneratzen ziran. Nire ama maitea, bere neke, samintasun aldietan, bertan otoitz egiñez pozaraziten zan, bein baño geiagotan bere eskutik lotuta, Ama Birgiñaren oiñetara eroan ninduan. Nik, umetxu bat bere besoetan eroala ikusirik, eta ondiño niretzat erlejiño siñisgaiak ulertu eziñekoak izan, Done ta Birgiñagaitik baño, ama bat izanik geiago maite neban.

Gogoketa, gogamen areik, gogoketa deun areik berbizteko gurari bizi-bizia neban, eta baita be bide-batez, bazeliza, aldare apal aretan belaunikoturik, Jaungoikoaren Amari eskerrak emon, eskertu.

Nire aita-amaren egoitzan barriro etxeratuta jazarri al izatea ta bateotua izan nintzan eleiza ber-beratan, barriro belaunikoturik Egile Alguztidunari otoitz egitea, bera, Pozbide Birgiña bitarteko, araterko izanik, lortu nebala, ziurtasun itsu-itsua neban.

Baseliza aretan sartu nintzanean eta nire amak millaka bider, sinismen eta astaldiz, pozez, belaunikotu zan arrilosa ber-beratan nire belaunak ezarri nebazanean, une areitan nire biotzean izan zan biotz-ikara, irriada, emen orain margotzen ez naz saiatuko. Biotz-ikara, irriada, guzti oneik, bear ba da sekula argitaratua izango ez dan liburu baten idatzita dagoz.

Baselizatxua, ni erbesteratu nintzanean baño zuriago, garbi, gaztetuta, apainduago egoan.

Ordu bete inguru aldare aurrean otoitz egīñik, atsegintsu emon neban. Nire gogoketa, nire otoitz-gogamenetan, Jaungoikoa ta nire gaztearoko gogamenak naasturik, agertzen ziran. Baseliza eleizpera urtenda, beratan arrilosa baten ganean jezarrita, apur bat leenago baselizara sartzea erreztatu eustan aguretuxua, egoan.

Nire araneko erritar, biztanle ta lurralde aretako arazotzaz nire buruan gordeta nebazan gogamen, oroimenak guztiz ilunak, laifñotsuak izanik, eurak argitaratzeko gurari, nai, bizi-bizia neban.

Nire jaiotze aranera itzultean, bertako biztanle, erritar ez-ezagunen artean egotean, ba da aldi aretan lurralde aretan bizi ziran erritar, errikideak, geien-bat ezezagunak ziran, euren itxura, izakera, bertatik erbesteratu nintzanetik tinko, bardin-bardin, aldatze-gabe nire gogoan izan da. Gertaera guzti oneik sekula be ezin izango dodazalako margotu, ze samintasun, atsekabe, Jaungoiko Jauna! eragiten eusten nire biotzean!

Arrasti, arratsalde baten, nire errira eldukeran, ia ezezagun ziran notintsagaz inguratuta aurkitu nintzanean, nire begiak negar-malkoz ezotu ziran.

Zer dozu, seme maitea?, nire aitak esan eustan, galdetu eustan. Berak, nire negarrak oiñaze, samintasunak eragiñak zirala, eta ez biotz-samurtasunak, ba ekian.

Non dagoz, Jaungoiko Jauna, emen berton itxi, utxi, nebazan notin, pertsona areik?

Eleizea kerizpetzen daben leizarpean, eun bat oinkada gugandik urbil egoan ortudeuna begirakada bateaz erakutsirik, eta nire buru ganean negar-malko bat izuri ta besarkatzen nebala, nire aitak esan eustan:

Or dagoz, seme!

Barriro nire begietara negar-malkoak agertu ziran, eta agure errukigarria, bere oiñaze, biotz-miña irribarretxu bateaz estaldu naian, leiatsu jarraitu eban:

Zer, seme! Zu be, paperatan, esakeratan gauza bat eta izakeran beste gauza bat diranatarikoa bat zara? Aurreragotik idatzitako "LARROSA MARGODUN IPUIÑAK" diñoskue, Jaungoikoak egin dauan erara bizia artzen, on-artzen dozula, eta orain guzurti bezela ez da zuzen ixī, utxi dagizuan.

Aita zuzen zara, errazoia dozul, erantzun neutsan. Baiña aldi, sasoi aretan nire biotzean senditzen nebana, ipuiñ aretan azaldu, agertu nebazanetik ona, arik ona, oiñaze, samin eta etsipen ugarik eraginda, nire biotzagaz istasuna ta nire arimeagaz goibeltasuna, jabetu dira.

Seme, doatsuak, zoriontsuak, siñisten dabenak, eta doatsuak negar egiten dabenak!

Siñisdun eta negartien artean, lerroan ezarri nindualako, Jaungoikoa nire biotz barne-banetik eskertu neban, eta arrezkero nire arimea, menpekotasunak babesgabe ez eban iñoz itxi, utxi.

Nire gaztarroan zearkatutako aran, lurraldeatzaz nebazan gogamen, oroimen laifñoak argitu naian, aguretuxuan alboan jezarrita, berari itaunka, galdeka, asi nintzan.

Nor bizi da orain etxe orretan?, baseliza alboan dagon, antziñakoa bai, baiña eder ta aundi, etxe bategatik, nire eskuaz erakutziz, itaundu neutsan.

Or, Zaltzedo'tar Diego bizi da.

Zaltzedo? Nire gaztaroan abizen orretakoak, beste onetan bizi ziran.

Nik aitazen neban beste etxea, esparru bat bitarteko zala, etxe aundiaren alboan ondiño ikusten zan.

Gutziz zuzen zara, erantzun eustan, agureak erantzun eustan, eta zuzen be Diegoren aldakuntza beste etxera, etxe aundira, kontatzekoa da, batez be zeaztasun osoz edes-tuaz, zuek liburu-egilleak, idazleek egiten dozuena beste edo geiago balioko leuke.

Eta kondaira orren jakintun zara?

Aita Gure lez, guztiz zuzen.

Ez dakizu zenbat eskertuko zindukedazan edesten ba daustazu!

Zeaztasunez bai, baiña neure buruan dodan antzera edestuko dot, baiña leenago Ama Birgiñaren argi-ontzia oriozten sartzea, zilegi eistazu, ba da argia amatatzera doa ta, ta eleizain-andreak amatuta ikusten ba dau, bere etxea argitzen dauan zorion-argiontzia be amatako dala, uste izango dau.

Orduan eleiz-zaiña baselizagaz guztiz arduratsua da?

Orretzaz esan leiteken guztia gitxi da, ta egia esan, orretarako zio bereziak dauz.

Zer? Beste kondaira bat dogu?

Ez jauna, Diego ta eleiz-zaiñaren kondaira ber-bera da, oraintxe ikusiko dozu, jakingo dozu.

Agure argi-ontzia konpontzen sartu zan, ertsi eban baselizako ate nagusia, ta nire alboan barriro jezartzera, etorren.

Habanako errekin, txokor, eder eder bat, edesleari opa neutsan, (Madriltar liburu-gille danak ez dabe esku-zabaltasuna), eta neuk beste eder bat bizturik, zurgau ta zurgatu, edeslari ta entzulea, leenengoak edestu ta bigarrenak entzun eben, emen jarraian irakurten dauanak aurkituko dauana.

II

Saltzedo'tar Jon eta bere andra Agustiñe, nire adiskide bereziak ziran.

An goi-goian, ameztietan berorrek ikusten dauan etxean bizi nintzan, eta jai-egunetan mezara jaitsiten nintzanean, bertan iluntzerarte geratzen ez ba nintzan, Jon eta bere andrea baketan ez ziran izaten, eurentzat bertan bazkaltzea, geratzea, atsegiñik aundienatarikoa zan. Eurakaz andra-gizon eta euren seme Diegoaz bazkaltzeak, zoriontsu egiten ebazan.

Jon errukigarria il zanean, Agustiñe andra alargunak eta bere seme Diego, eura-kaz geratzen bat nintzan, leen baño be atsegintsuago izaten ziran. Ba dakizu, bat bakardadean geratzen danean, guztiz goibel aurkitzen danean bat, benetako adiski-deakaz inguratuta egotea, sekulakorik guraritsuena izaten da.

Diego, semea, bere aita il zanean gazte zoro bat zan, txerrekeriak egitea baño besterik bere buruan ez eban; naizta amasei urte bateta izan, zoro utsa zan. Bere ain maite eban bere ama, bere babespen eta laguntza uts-utsean zala ikusirik, lanera bihurtuta jaseko gizon langile bat zan. Bere lan gogorrea bitartez etxealde aretako uztak ez ziran gitxitu, gutxitu, ta sendian artean be ezelako eztabaidarik ez zan izan.

Agustiñe errukigarria bere semeaz erdi-zoraturik egoan, eta ikusten ninduan bakoitzean, poz-negarrez esaten eustan:

Aaii Antonio! Ze seme ain ona Jaungoikoak opa dauts! Nire ildakoak G.B. burua jasoko baleu ta Diego, semearen jokaera ikusiko baleu, ni bezela negarrez izango litzake. Pozez negarrez. Jaungoikoak Jon eroan eustanean, Poz-erazle Ama Birgiñari, nire semea bere aita bezelako, bere aita aiiñako gizon langile, deduzko bat egin eistala, biotz-biotzez eskatu neutsan.

Ortu ganean Zaltzeko sendiaren etxeak daukan eguzki-begi eder, zoragarri a, ikusten dau berorrek? Bera zintzarri-joten dabezan matsparrak, orain euren orriak galtzen doaz, baiña Udan, euren ezotasunik bizienean aurkitzen diranean, eguzki izpi bat be gela aretan ez da sartzen.

Bertan, kerizpe bikain aretan, eguerdi aurretuxuan aize-ozkirriak leun-leun, firi firi, astindurik, ortuko lira ta igaliei euren usain gozoa ostutzen dautsezan toki zoragarri aretan, egun bero, sargoritsueta, beragaz bazkaltzen izaten nintzanean, antxe, bertantxe, maia jateko, bazkaltzeko, ezartzen eban.

Bazkaldu, alkar-izketa, berba, ta barre ugari egin ondoren, Agustiñe bere etxeko lanetan ziardun.

Agustiñek, baselizan jai-egunero izaten zan agurtza, errosariora, otoiitz egiten joateko ordua baño leenago, bere zeregiñak amaitzen ebazan. Diego ta ni, eguzki-begiko eskillera txiki batetik ortura jaitziten giñan eta bertan agurtza ordurarte, lora bat emen, kereix-txorta bat an, arago okeran bat, beste aldean mertxika bat artuaz, jolasten giñan.

Ortutik bidaliak egitea niretzat atsegingarria zan, baiña Diegorentzat askoz be atsegingarriagoa. Bere semea ortura jaitziteko asmuz leiatsu, urduri ikusirik, Agustiñek maltzurkeriz irribarretxen ebala, sarritan nabaritu nintzan.

Etxe aundian, On Errafael eritxon zaldun bat, bere alaba Goikundeaz, orduan ama bost bat urteduna, bizi zan.

On Errafael, Enkarterri lurraldetatik ume-umetxutan erbesteratu zan. Prantzi edo ez dakit nik non ogei urte emonda, guztiz aberats erriratu, itzuli zan. Etxe aundia bere aita-ama, bere asabak eta bere jaiotzen etxea izanik, beratan bere azken egunak emoteko arabagi bizi-bizia ebala, iñoan.

Bere aita-amak antziña il ziran. Eurak il ziranetik urte ugari joanak ziran.

On Errafael erriratu ta ile batzuk geroago, neskatil txiro, baiña polit eta deduzko bateaz eskondu zan. Zoritxarrez bere andreak umetxu bateri bizia emotean, berea galdu eban, il, zan. On Errafael barriro, umetxu jalo-barria bere sendi bakarra zala, aurkitu zan.

Igokunde, olan zan umetxuaren izena, Agustiñeri eskerrak, guztiz eder eta osasuntsu azi zan. Diego bere semea, egun areitan titi-gabetua izan zan, eta orrelan

Agustiñe nezkatiltxuaren iñude biurturik, bere semea azi eban maitasunez eta ardura bardiñagaz, azi ta ezi eban.

On Errafael ez zan gizon gaiztoa, baiña erreligiotzaz erretxi maltzuk, okerrak ebazan. Jaungoikoaren parkamena izango eban! Txiro, bear-tsuakaz gogora izaten ba zan, ume-zalea ez ba zan, Jaungoikoak opatzen eutsazan arazo, eginbearrak etsimen onagaz artzen ez ba zan, basoak orriz beteta ta lurraldeak, landa, larra, mendi-tontortxuak lorez estalduta ategin ez ba jakpzan, txoritxuak euren txio-txio alaiakaz zugatz adarretan, berantzat liluragarriak ez ba ziran, azkenez au da, lagun-urkoen poz-alaitasun eta atsekabe, samintasunetan kide izan, alaitu bera, lagun-urkoa, alaitzen danean eta negar, bera atsekabe ta oiñazez jota, aurkitzen danean. On Errafael olako ez ba zan, Jaungoikoagan siñisten ez ebalako zala, uste dot.

Bai, ze zorigaiztokoa zan gizon oril, une onetara eldutean agureak esan eban.

Bai, guztiz zoritxarrekoa zan, agureak jarraitu eban.

Emen ezizenez judatarra deitzen eutsoen, baiña judatarrak bera izan zan baño zorionsuagoak dira, ba da eurak, judatarrak, naizta guretzat siñismen oker bat izan, azkenean zeozen, zerbaiten siñisten dabe. Zerbaiten señismena ba dabe. On Errafael siñismen-gabe zan.

Baiña Jainkoagan ez eban siñisten? Ondasun-zalea utsa zan?

Egun baten beragaz izan neban alkar-izketa azaltzen zilegi eistazu ta azalpen onegandik zelako gizona zan atarako dozu.

Poz-aldi Birgiñaren jaiak ziran, baseliza ingurua alde guztietatik, jaiak ospatzen etozanakaz, beteta egoan.

Baselizatxua, bera argitzen eben argiakaz, eta lauzada ta aldarea apaintzen eben lorategi ederragaz, urrezko txingar eder-eder bat dirudian.

Ni, oitura zan lez, Agustiñean bazkaltzen geratu nintzaz eta oiturazkoa zan bezela, bazkaldu ondoren Diego ta biok, ortutik bidalitxu bat egitera, jaitsi giñan.

Etxe aundi ta Zaltzedonean bitartean egoan lurraldea, olesi batek banantzen dau, beraz, etxe aundi alboko solo-zatia On Errafaelena eta beste zatia, Zaltzedo egoitz alboko ortua, Agustiñena.

On Errafael eta Igokunketxu, olan deitzen eutsoen neskatiltxuari, bazkaldu orduko, gu bezela bidali bat egiñez astia emoten, jaitsi ziran. Arratsaldero, eguntxu baten be utxik egin barik, Diegoñ bere bulararrebeari, igali gozo edo lora usantsu anbat opatzen eutsan. Neskatiltxuak adikotasun bereziaz ordezkutzen eban. Esan dodan lez, gertaera arrasti guztietan, arratsaldero, izaten zan, utstxu bat izan barik.

Orregaitik, zalantza gabe, Diego ortura jaitsiteko larri, urduritsu izaten zanean, Gustiñek maltzurkeriz irribarretxu bat bere espanetan agertzen eban.

On Errafael Bilbora bere dirua ezarrita eban diru-etxera, ilebetesaria artzen joaten zanean, Jakifiñik ni errekin zalea nazala, guztiz zalea nazala, errekin gozo, onenatariko-koa ekarten eban, eta ni ikusi orduko, esaten eustan:

Anton, pipakada bat ez dozu gura, ala?, aditu eizu, onelako errekin onik, jakigelan ez daukazu, ee!

Ez dot nai izango ba, On Errafael!, erantzuten neutsan.

Eta biok pipakada bana errekin gozaten genduan bitartean, Diego ta Igokundetu olesitik aurrera, igali ta lorak euren izketa gaia izanik, eta zoro batzuk bezela barreka, jarraitzen eben.

Poz-aldi Birgiñaren jaian, On Errafaelek pipakada, errekin pipakada bateaz utsutsean ez ginduzan opa nai.

Ardao gozo, txolatxu bat ardao gozo edatera nire etxera igongo zarie. Zuzen be, ardao au, Kristok Lazaro berbiztuteko erabili ebana da. Bai, zalantzarik gabe, ardao ber-bera da.

Egia esan, berdinkatzen au ez jatan bat be atsegin izan, eta ondiño askoz be gitxiago, On Errafaelen abotik entzun nebalako. Baiña Diego ta biok, alai erantzun geuntsan.

Ba goazen arantz. Goizean etxean edan dogun txakoliñen ganean, ez da bat be txarto etorriko.

Zaltzedonekoak bezela, ortu albotik eukan eskillera batetik, etxe aundira igon giñan.

Igokundetxu, gu bere etxean ikustean guztiz pozik, bakaioitzari txolatxu bat ardao gozo edarazten arduratzen zan. Ardao-gozo ori zan bai, edan bear zana, eta beingoan danok sapailora, bertatik erromeri, jaia ikustera, joan giñan.

Etxe aundiko sapailoa emendik aurrez aurrez dagoan ezkerero, bertatik aldea, baseliza barnean egongo bagintzake bezela ikusten genduan.

Ama Birgiñaren aldare oiñetan andra-gizonak otoitz bero-beroa ziarduen, gero, euren biotzetan poz-alaitasuna ta begietan nergar-makoak, kanpora joiazan. Diego ta biok, biotz-ikaraz, notin, pertsona arein siñismena, begistatzen genduan. On Errafaelek, naizta ixilik egon, gertaera orreik isekutzen ebazan, eta bear ba da gu be bai. On Errafael ondo be ondo ezagutzen neban, eta ba nekian ze anketik zan anderra.

Onetan, andrazko bat negar baten baseliza eleizpean agerturik, eta baseliza barnera sartu eziñik, atean belauniko jausita, bere besoak zabalik, Ama Birgiñari oiuka iñotsan:

Ama errukigarria, nire errietako alabatxu maitea, gizkatu eizu!

Ama aren oiñaze, biotz-miña sekulako, izugarria zan. Guri, Diego ta niri be, berak iñoana entzutean, begiak ezotu jakuza. Igokundetxu, Diegok eban biotz-ikara nabari-turik, barreka asi zan. Ara judatar ori! maitasunezko abotsaz agirekada bezela. Diegok iñotsan. Andra ori olan ikustean, ez dozu biotz-samurtze eragiñik izaten?

Ez, zalekeri, burugabekeriak, ez daust biotz-biguntasunik eragiten. Igokundetxuk erantzun eutsan.

Zalekeri itzak, zer esan naia dauan guztiz ziur ez dakin umetxu baten agotik entzutea, nirezat tamalgarria zan. Naizta sumin, asera, ajola, ardura errukitsua atzakitza izanik, agertzen jātanean baño ez jat iñoiz gaitzezgarriago eretxiten, gertaera onetan neskatilatxuaren erantzunak asarre-arazi ninduan, eta igokundetxuri agirekada gogor bat egin neutsan.

Nire alabatxuak, On Errafaelek guztiz funtzez, erantzun eustan, zuek siñisten dozuezan lelokeri, burugabekeri orreitan ez siñisteaz ondo egiten dau.

On Errafael jauna, Jaungoikoagan siñistea burugabekeri, lelokeria deritxozu, ala? Ze Jaungoikoa ta arraio! Lagun-urkoari kalterik ez egin, eta al dan guztian mezede egitera saiatu, ez dago beste Jaungoiko ez Miren Donerik. Au bear ba da Erlejiñoa ez da izango, baiña bai zuzentasun ta maitasuna, ta naiko ta geiegi da.

Zuzen be, erreljiñoa zuzentasuna da.

Baiña zuzentasua, beraz naikoa da, ta erreljiñoa alperrikoa.

Nire aita zuzen da, errazoia dau, neskatillatxuak iñoak.

Zuk, Jaungoikoagan ez siñistek miresten nau, baiña Igokundetxuk ez siñistea... arritu ta ganera atsekabetzen nau! Gogor esan neban.

Baiña zer? Uste zenduen nire alabea aztikeri ta ergelkeriz, emen ume guztiekaz egiten dozuen bezela, nire alabea, barriko diñot, eziko nebala? Bene-benetan senditzen dodana, neskatillatxuak prantzez ez dakila. Or daukadazan liburu guztiak buruz ikasi dagiazan, eta batez be Voltaire nire idazle berezienanak,

Baiña, On Errafael, uste dau berorrek bere alabeari ludi onetan zorion apur bat emoten dautsola, beste ludirako itxaropen osoa kendurik?

Ez daukazu zuk beste txar ori!

Josus! neskatillatxuagan begiraturik, Diegok esan eban. Zure aitak, ilten garanean guztia amaitzen dala, uste dau!

Eta nik be bardin siñisten dot! Igokundetxuk iñoan.

Ama Birgiña-Agurtzara dei egiñik, baselizako kanpaiak, bereala agurtza, errosarioa, asiko zala adierazo eban, eta Diegok eta nik, eztabaida matrakatsu au, alkar agurtzu amaitu genduan, bereala agurtza otoitz-abesteko baselizara jaitsi giñan; arratsalde aretan txistu ta tanboliñ laguntzaz, Ama Birgiña-Agurtza abestuko zan.

Ba ni, On Errafaelek iñoskun, Voltairen idazkiak irakurten noa, bera da nire Ebaingeru, Evajelio, Barri-ona.

Guk, egia esan, Voltaire ori nor zan ez genkian, baiña "Barri-on"aren irakatsiak apur bat gora-bera zelakoak izango ziran, sumatzen genduan.

Baselizarantz abiatu giñanean, bertatik bere alaba gaixoaren gaizkamena otoitzka eskatuz entzun genduana, Ama Birgiñeak isuritzen dauan itxaropenagaz poz-arazita, aldendu zan; baiña andratxua, etxe aundiaren atari aurretik igarotean, Igokundetxu agurtu naian, balkoipean une baten geratu zan.

Zer! alabatxua gaixorik dozu, ez?, neskatillatxuak itaundu eutsan.

Aaaii! Guztiz txarto, Osagileak, Jaungoikoagandik bere gaizkamena uts-utsean itxaron bear dodala, esan daust.

Orduan, ni neure ama barik geratu nintzan bezela, zu be zure alabatxu barik geratuko zara.

Erruki-gabe ta atsekabedun oarkizun onek, ama errukigarri aren siñismena otzi-tuteko ez zan izan gauza, andratxua bere etxerantz itxaropen osoz abiatu zan.

On Errafaelek bere alabatuagan bururatu ta berak dauazan errelejiño eretxitzaz, zer deritxazu?

Ze eretxi izango dot ba! Zorigaiztoko areik euren erruen merezitako zigorra izango dabe. Naizta Jaungoikoak beste bizian siñismen-ukatzalei ezelako zigorrik ez ba leuke gordeta izango, ludi, mundu, onetan siñis-gabeaek zigor gogor-gogorra ordaindu leikie.

Gutziz zuzen zara, gizona, ludi onetatik aldendu baño leenago, siñismenak emoten dauskuzan poz-alaitasunetan, ordainketa bereziak izaten doguz. Ezereztu naian, oiñasturiak, tximistak, ezereztu naian, ekaitzak erazoten gaituenean, ez dot izaten bildurrik, Ama Birgiña Donea babesle izanik, eta berari otoitz eginda, berak arrisku guztietatik, gaizkatuko nau.

Nire asaba ta adiskideak Jaungoikoaganantz egazka diranean, ta entzun ta ikusi egiten nabela, ta egun anbatek, sekula geiago banandu ezteko, euren albora egaz igongo dodala jakiteak, nire arimea poztu, alaitzen dau.

Jauna toki guztietan nigaz da, nire neke, atsekabe eta poz aldietan nire kide da, ta jakitun, alguztidun ta zuzena izanik, babestu, gidaritu ta poz-alaitzen nau.

Siñisdunak, guzti au esan geinke. Zorigaiztokoak, au esan ez laikienak!

Baiña kondairaren gertaera batzuz aitorle izan nintzalako ta beste zeaztasun batzuk bertan, kondairan, agertzen diran notin, pertsonak gertaera orreik edestu eus-tazalako, ondo ezagutzen dodaz, eta beraz jarraitu dagigun aurrera.

Igokundetxu, basetxe-erri aretako neskatilarik politenatariko bat zan, ostera bere zoritxar, zorigaiztoagaitik, erritar guztiak errukitzen ziran. Bai, zoritxarra da benetan, bere aita siñismen-gabeak, bere biotzean siñismen-ukatzea jabetu eiten, egiten ebazan alegiñak.

Agustiñe ta Diegok, zenbat eta zoritxarrenekoa zala uste izaten ebenean, askoz be geiago maitatzen eben.

Igokunde jai egun baten, Agustiñenera elduta, bere semeagaitik galdetu neutsan.

Nire seme? Irribarreka erantzun eustan. Igokundetxuz dozu.

Atarira urten neban eta alan zan, zuzen be alan zan, olesi bitartetatik, ortuan alkar-izketan ikusi al izan nebazan. Nire maitasuna eurakanako ain aundia zan ezkeru, euren alkar-sendipenak jakin-naia, bizi-bizia neban.

Matsparrak atari aurrean egiten eban abaro itsuan estaldurik, Diego ta Igokundetxu ikusi ta euren alkar-izketa entzun al izan neban.

Aditu, jakin bedi berorrek, nik entzun nebana.

Neskatilatxuak bere eskuetan artu-barri zan klabelin-txorta bat eukan, lora guztiz polit usaintsuak, eta lora-txorta erdian klabelin berezi bat ezarrita eukan.

Norentzat dira klabeliñ orreik?

Neuk dodan senar-gaitxu batentzat.

Egia da ori? ilunbe, asarre, Diegok erantzu eutsan.

Bai, egia da, alan da.

Orduan agur!, Diegok gogor, atsea emonez, su-asarre erantzun.

Ja! Ja! Ja!, Ze lelo zaran! siñistu daustazu!, zoro bat bezela barreka, Igokunde-txuk iñotsan.

Orduan, norentzat dira lora orreik, ba?

Nire aitarentzat, gaur nire eguna da ta opari au egin nai dautsat.

Zuzen zara, errozoia dozu, gaur Jaunaren Igokundea da, bere betiko alaitasuna bizkorturik, Diegok esan eban. Eta niri ze opari egingo daustazu?

Oneitariko loratxu bat.

Eta bereala, kui-belar solo batetik, Igokundetxuk lora bat arturik, eta Diegori emonaz, irribarre maltzur bateaz, iñotsan:

Kui-belar lore

lora polita da

Lenengo aukerean

Gizonezkoei emoteko.

Diegok, kui-belarra artu, lurrera destaiñez jaurti ta negarrez, ia negarrez, lore bein eta barrero oinperatu, zapaldu eban.

Diegok izan eban asarre-aldia, oraingoan neskatilatxuak barrerak ez eban artu, ez, eta zio onegaitik, neskatilatxua damututa, atsekabetuta aurkitzen zan.

Ara Diego, ez zaitez asarratu, iseka, txantxa bat izan da ta, ia negarrez, neskatilatxuak esan eutsan.

Orregaitik ni asarratu? Guztiz oker zara. Nik klabeiñak nok emon, larregi be ba daukadaz, dodaz. Gaur arrastian, arratsaldean, ikusiko dozu, bai, intxaustiko jolaseran, ze politikak eroango dudan.

Bai, zeure ortukoak.

Ez, Kataliñen ortukoak, izango dira.

Ez, ez, Diego ez dot gura, nai, Kataliñen ez beste iñondokonetik, iñoren ortutik, klabeiñ ez larrosak artu dagizuzan! Orain bai, Igokundetxuri bere matrail gorritzak ganetik negar-malko dariola egoan.

Diego aurpegi ilun, asarre itxuraz jarraitzen eban.

Neskatilatxuak lora-txortatik klabeiñ berezi bat artuta, biotz-beratasunik aundienagaz besoa luzatuz, emon eutsan.

Eutsi, artu eizu, ta parkatu eistazu.

Orain ez dot nai, Diegok, ankerkeri eretxi jatan destaiñez, erantzun eutsan.

Orduan neskatilatxuak, su-asarrez, eskuetan eukazan klabeiñek aiiñako gorri-gorri eginda, gorrituta, klabeiñ ber-bera mozukaturik, bereala Diegon eskuetan ezarririk, bere etxerantz ariñeketan abiatu zan.

Etxeke eskileratxura eldutean, neskatilatxuak atserantz begiratu eban, bere aurpegia itzuli, bira eban, eta ikusi eban zelan Diegok berak be klabeiñatxua mozukatu ebala ta ondoren bere jakelo aletxean botoian, ipiñi ebala.

Arrast, arratsalde aretan, jai-egun guztietan bezela, zaartxuak, intxaustira gazteak dantzaten ikusten joan giñan. Bertan ikusi al izan genduan zelan Diegok, beste egun batzutan, Igokundetxu ta Kataliñ, nezkatil polit-ederra au be, bein banaka dantzatera ateraten ebazanek, zelan arrasti aretan Igokundetxuaz uts-utsean dantzaten ebala.

Diegok, abestu ta soiñua jo, polito, egiten eban. Olan bein banaka bere soiñu ta abestiak, eta neskatilatxuak jotzen eban panderoak, jaia alaitzen eben.

Arrasti aretan dantzaketa batzuk jo ebazan eta abesti au entzu zan.

Igokunde egunean
zuk emon zeustan klabeliñea,
klabeliñea ez zan, untzea zan
ta biotza zilokatu eustan.

Iluntzean Diegok etxe aundiraño, bere ate aurreraño, Igokundetxuri lagundu eutsan, eta baseliza aurretik igarotean. Diego burustu, txapela kendu ta kurutzte deuna egin eban.

Oraingoan meskatilatxua, gupida, agertze aregaitik, ez zan isekatu.

Une aretan bere arimea menperatzen eben sendipenakaz, errelijioak zer ikusi aundia ebalako, izango zan?

Nik uste dot baietz, eta guztiz ez nazala baieztatzeko, neskatilatxuaren zador batzuk edestuko dautsuedaz. Aldi apur bat geroago, Igokundetxu ber-berak agertu eustazanak dira.

Liburu baten ez dakit nok esan eban, Jaungoikoa izango ez balitz, asmatu, idoro egin bearko zala.

Diegok Igokundetxu maite eban, baña bera, neskatilatxua, zirikatzen, jolasten zan, guri be bardin zamar jazoten jaku, maiteen izaten doguzan umetxuek zirikatuz, atsegin izaten gara.

Ama batek, bere titia irrikatzerik bizienagaz espanetan, bere aboan sartzen saiatzen danean, bere umeari, semeari, bere amak bere bularra baztertuz jolasten ba da, joko arek, itxuraz kalte-gabeko joko arek, umetxuari eragiten dautsan miñ atsekabea zenbatekoa dan jakingo baleu, ziurki arrituko litzake, barriro ez leuke egingo.

Gizonezko maitamendu batek, beste edozein neskatil bateri klabeliñ anbat opatuz, edo beste kutunkeri anbat egiñez, bere neskatil-maitea zirikatzen jolasten ba da, bere maitearen biotzean jokaera orrek eragiten dauan naigabe, oiñaze zenbatekoa dan nabarituko ba leu, nabaritu al izango baleu, guztiz arrituko litzake.

Zertada batek eragiten dauan miña, artzen dauan gorputz-inguruak daukan beratasunaren aifñakoa da.

Berorrek, erritar-abesti zale dan orrek, onela asten dan guztiz ezagun bat gogoratuko dau:

Kataliñek ezarri eustan...

Udako gaba, gau sargori baten, Diego bere etxeko atarian soifña jo ta ke ziardun, eta etxe aurrean, aurrez aurrez entzuten egoan Igokundetxi zirikatze naian, abestiarren leenengo zatia uts-utsean bein eta barriro jotzen eban.

Egun aretan On Errafael Bilbora joan zan, eta etxera itzultean, gaba-erdi ingurua zan, nezkatilatxua negar baten aurkitu eban.

Zer dozu, zer jazoten jatzu, alabatxu?, itaundu eutsan.

Aita, ez eistazu itaundu, Igokundetxuk erantzun eutsan, ba da zuk ez eze ludiko iñok nire arazoa ezin lejskit zuzendu ta.

Zelako ezetz, edo? Diruak aldundasun aundia dau.

Baiña nire gaitz, samifña ezingo dau osatu, zuzendu.

Orduan diruak zuzendu ezin ba dau, zure aitaren maitasuna zure gaitz, samintasuna sendotu, zuzentzeko duifñ izango da.

Alperrikoa da; aita.

Baiña zein gaitz, gaixo da zurea ba, alabatxu?

Diegok ez nauala maite.

Orretzaz ziur zara?

Gutziz ziur.

On Errafael unetxu baten itxil-itxilik geratu zan.

Ez dau ikusten berorrek ludian nire gaixo, kaltearentzat ez dagola osaki ez pozta-sunik?

Egia da, alabatxu, baiña...

Aita, tamala da Jaungoikoarik ez egotea, egongo balitz, gizon-emakumei, gizar-teari, poz-alaitasun aldiak eskatzea alperriko danean, Berari, Jaungoikoari, eskatuko geunkioz!

Tamala da, bai, benetan! On Errafaelek erantzun. Une onetan On Errafaelek bere alabearen biotzetik Jaungoikoa baztertzen saiatu zalako, bere arima, biotz-biotzena samiriñ, atsekabe bat senditzen eban.

IV

Kataliñ benetan zan Diegon maitasunaren duiña, ta naizta bere biotz-barnean estaldu, nabaritzen zan maite ebal, ta beraz maite eban. Baiña Diegok danan ganetik Igokundetxu maite eban, bein baño geiagotan Diegon abotik, Kataliñek abesti au entzun eban:

Zelan nai dozu argi batek

etzango bi argitzea?

Zelan gura, nai dozu

nik biotz bi maitatzea?

Kataliñ errukigarria, polit-eder aifiako apala zan, eta Diegok abesti orretan bera ez maitatzeko agertzen eban zioa, ulertzen eban, eta bere zoria on-artzen saiatzen zan. Nezkatil eskongeaek, naizta errugabeena izan, euren burkide zorionsuei, eurak maite dabek, gizonezkoen biotza ostu, lapurtu al izateko izaten dabek azpi-jokoa ez erabilen, berak iñoiz ezetarik, ezelako azpi-jokorik ez erabilen, baiña alan da guttiz be, berak nai izan ezarren, Kataliñek une guttiz samiriñak, neketsuak Igokundetxuri eragiten eutsazan.

Igokundetxuk, Kataliñ bekaizkeriz ikusten eban, eta Diego atsegintsu zan bekaizkeria anditzeko arduratuz.

Nire errian; nire basetxe-errian, eleiz nagusian Anton Deuna opatzen jakon aldare bat dago, Udabari eldu orduko, bertako neskatilatxuak larrosa ta klabelediñez, aldare aurre osoa apaintze dabe.

Arrasti, arratsalde baten, lora-txorta eder-eder bat bere besoetan eroala eleizarantz joaten, Igokundetxuk Kataliñ ikusi eban, bereala bera be bere atsetik bertarantz, eleizarantz, abiatu zan. Apur bat geroago, Igokundetxu guttiz goibel itzultean, Diegok beragaz intxustian topo egin eban.

Nondik zatoz, Diegok itaundu eutsan.

Eleizatik.

Noiztik ona zara ain kristaua ba?

Igokundetxu unetxu baten ixil-ixilik geratu zan.

Ez dakit, azkenean erantzun eban.

Una beratan negarrez asi zan.

Zergaitik zara negarrez? Zergaitik egiten dozu negar?

Kataliñek Anton Deunari lora-txorta bat opa dautsalako.

Baiña, gertaera orrek, zergaitik arduratzen zaitu?

Eskongai bat, senargai bat lortu dagion eskatuz, opako eutsalako.

Naizta olan izanik, zerk arduratzen zaitu, zuk Jaungoikoagan ez eze Deunetan be sifisten ez ba dozu?

Ba da... Bada ez badan.

Bada-ebada onek, Diegori, siñisme-gabetasunak bere zalantzak dauazala adierazo eutsan, eta beraz siñes-gabedun bat siñesmenara narrastua izan leitekela, eta bardin siñismenezko edo siñismenentzaz izaten diran zalantzak, siñismen-gabetasunera, siñismedun, fededun, bat narrastua izan leitekela. Baiña Diego gaztea zan, eta zaarrak, urte askodunak argitasun osoaz azaltzen doguzan biotz-zadorrak, berak ezin ebazan ulertu.

Zorionez, Jaungoikoa beragandik aldendu nai daben, eta orretan ori lortzeko alegin guztiak egiten dabezan biotz-barneetan be beti, ziurki bereziki, ago, ta sekula be, bertan ez da izaten alperrik.

Arrasti, arratsalde, beratan mendiska ostean eguzkia estaltzen asi zan inguruan, etxe aundiko ate aurretik, bere lusail ederra buruan eroala, Kataliñen urtetako, sasoi, adin ber-berana eban nezkatil gaztea Isabel, igaro zan, eta oiuka deitu eutsan:

Igokundetxu, iturrira ba zatoz?

Bereala Igokundetxu bere lusailagaz etxetik jaitsita, biak gaztañediko iturriantz abiatu ziran.

Antza zanetik, Igokundetxu Anton Deunagaz kezkatu zan, naizta Diegok, Deun errukigarri ori, neskatil, gazteak uste daben lez, eskontzatako arazoetan ez dala arduratzen, esan, Igokundetxu goibel egoan.

Isabelek, Igokundetxu bezela, senargaia ba eban.

Isabelen senargaia Pepe eritxon mutil gazte bat zan, naizta Diegok Igokundetxu maite eban aiñako, ba da au eziñekoa zan, Pepek Isabel maite eban. Ostera, bere emaztegaia zirikatzeke zaletasuna Diegok bezela, ez eban, berak, Pepek, esakerak iñoan au, ez eban on-arten: "Maite zaitunak, kezka-eraziko zaitu".

Abestu dagigon, Isabelek iñoan.

Ez dot abestzeko gogorik, Igokundetxuk erantzun.

Samin, naigabeak, dozuz, ala?

Bai orexi, bai dodaz.

Abesten dauanak, samiñak uxaten dauz.

Baiña nirelako samin, naigabeak, ez.

Zeintzuk, zelakoak dira ba zureak?

Diegok ez nauala maite.

Ara, ara, guzur orregaz beste toki batera joan zaitez!

Ezetz egia dala.

Ba aditu eizu, nik sernargaiak bat maite dagien, osaki sekulakoa dot.

Zein?

Goizero, eleiz-otoitz dei-kanpaiketak entzuten dodazanean, Maitasun Eder Amari, Agur-Erregiña, Salve, bat otoitz opatzen dautsat, eta iluntzeko otoitz-kanpaiketak entzutean, otoitz eta eskari bardin-bardia egiten dot, eta Pepek guztiz maite nau. Guztiz maitamendurik da.

Orreik lelokeriak dira!

Bai lelokeriak..., Agur-erregiña otoitz egizu, eta ikusiko dozu zelan Diegok maitatzen zaitun.

Nik, Jaungoiko ta Deun orretzaz dirazan gauzatan ez dot sifñisten.

Ala, judatar ori!

Oba ba naz.

Isabel eta Igokundetxu unetxu baten ixil-itxilik geratu ziran.

Pepek eta zuk ifioiz ez dozue asarrerik izaten?

Ifioiz be ez, sekula be ez. Igandetako jolasetan eta jai-aldi guztietan nigas utsean dantzaten dau. Goizean, jagiten nazanean nire logelako leioan larrosa edo klabeliñ lora bat beti aurkitzen dot, berak solora lanera joaten danean juritzen daustana. Gabean lanetik etortean, gurean ni ikusten geratu barik, beranera, bere etxera, ez da joaten. Bilbora joaten danean.

Ule illearentzat zirgil bat ekarri barik ez da izten, Mendira joaten danean, klabilñ edo iraun-lora txorta bat, edo eskai-belar adartxu bat beti ekarten daust. Nik diñodana edo gomutatzen dodana, berantzat esate edo oldozterik onena izaten da. Goibel ba naz, bera goibel da, eta poz-alai ba naz, bera be poz-alai izango da.

Aaaa ze zoriontsu zaran!, bekaizkerik negarrez, Igokundetxuk esan eban. Bai, egia da, benetan zoriontsu naz!

Onetan eleiz dorreko kanpaiak otoitz egitera deika asi ziran, eta Isabel poz-alaitasun irribarretxuaz, kurutze deuna egin eta otoitz asi zan.

Ze otoitz egiten dozu? Igokundetxuk itaundu eutsan.

Maitasun Eder Amari, Agur-erregiña. Zuk be, otoitz eiozu, egin eiozu, egiozu, eta ikusiko dozu zelan Diegok maiteko zaituzan.

Bada-ezbadan, nik be otoitz egingo dot.

Igokundetxu otoitz egiten asi zan, baña bereala geldi-arazirik, iñoan:

Eeee! Nik burugabekeri orreitan, ez ba dot sifñistu gura!

Ba ordua, alabatxu, zuretzat txarrena izango da, Diegok ez zaitu maite izango.

Ostera Isabel otoitz egiten jarraitzen eban, eta zeregiñ onetan ziardun ebala, bere aurpegi bigun, gōzoak, azaldu ezifñeko zorion uts-utsa iruditzen eban. Une aretan bere biotz zortze-gorako aldundusun, zeru ta ludiko zorion goren-gorengoan bateaz erkidetuta izango balitz bezela, opatzen eutsazala, agertzen zan.

Bitartean Igokundetxu ixil-ixilik, burua makur, goibel, etsipenaren naigabea, samintasuna, bere aurpegiak iruditurik. Alako baten, arkaitz zeatz idatzi ta ixatxik

margoztu eziñeko oifazez, samintasunezko oiu ikaragarri bat egiñik, negar baten ondatu zan.

Zergaitik, beste batzuk ain zorionsu egiten dauazan burugabekeri, lelokeri orreik, apur bat alaitu naien, zergaitik difiot barriro, ez dodaz izango nik?

V

Etxe aundiko atari aurrean Isabel eta Igokundetxu banandu ziranetik unetxu bat geroago Isabelek Diegoaz topo egin eban. Mutil gaztea barruti, esparru, batetik, bere lana amaitu ondoren, itzulten zan.

Zu Diego, entzun eizu, aditu eizu, m Isabelek esan eutsan. Igokundetxu ta biok iturrira batera joan gara, ta zutzaz alkar-izketa luzea izango dogu.

Eta zer esan dozue, ba?

Endekatu, esker-tzarreko bat zarala.

Baiña, zergaitik?

Igokundetxu guztiz naigabetuta dozulako.

Maite-maite zaitunak, negar-eraziko zaitu.

Diego, Jaungoikoagaitik, zure txantzak beste garai baterako gorde eizuz, olan jarraitzen ba dozu, neskatil errukigarria samintasunez ilgo da ta. Gaztañedian zenbat negar egin dauan ez dakizu.

Egia da?

Egi osoa.

Baiña, zergaitik?

Igokundetxu guztiz naigabetuta dozulako.

Maite-maite zaituak, negar-eraziko zaitu.

Ez dozula maite, uste daualako.

Sifiñiste orretzaz, guztiz oker da.

Orduan maite ba dozu, zergaitik beragan maite-gabetasuna adierazoten dozu?

Jolastearren.

Jaungoikoagaitik, Diego, jolaste ori baztertu eizu, zuek gizonezkook, zuen biotzetan eragiñik, biotz-eragiñik, egiten ez dauan edozelako arazo, zio bategaitik, gure biotzetan, andrazkoen biotzetan sortzen dauan samin, atsekabea nabaritutako ba zeunkee, gugaz, ziur, errukitutako zintzakeze. Ez dozue ikusten, ez zarie konturatzen, guretzat, andrazkoentzak, ludi onetako zorion guztiak maitasunean dirala? Ostera zuentzat, gizonezkoentzat, maitasuna, ludian jaretsi al dozuezan milatariko zorion bat da.

Zuzen zara, Isabel, eta poztuten naz jakin-arazi daustazulako, berak ia beti eban txantxeta izketa aldatuz, esan eustan. Pepek zu maite zaitula esan deustan aifako, nik Igokundetxu maite dot. Nire maitasuna Igokundetxuganako, zugan Pepek dauana aifakoa da.

Pozez, plast-egiteko antzera, azkenengo itz, berba, oneik entzutean, Isabelek irri-barre alai bateaz Diego agurtu eban, atsegifi eta biotz-beratasunaz Pape gogoraturik, bidean abeslari jarraitu eban.

Diego bee etxera eldu zanean, etxeratu zanean, gabe iluna zan.

Seme errukigarria, ze nekatuta etorriko zara! bere amak esan eutsan.

Oraintxe ikusiko dau berorrek, nire neke ta arikaldiak, abesti bikote bat atarian egiñik, ze arin uxatuko dodazan.

Ondo egiña, seme.

Abestu ta kanpora negarrak

Ba da abestuz biotzak

alaitzen dira.

Seme, zuk abesten dozun bitartean, nik afaritxu bat gertuko dot, atsamarrak eurak be mizkatzeko aifiako afaria.

Gaba, polit, guztiz ederra zan.

Zeruan irargi, illargiak, Igokundetxun begiak aifiako ortzi urdiñean dizdiratzen eban.

Larrosa ta klabeliñak toki guztietan sortzen ziran, bai Agustifiñen ortuan eta baita obe On Errafaeleean, eta igali-zugatzak, batzuk lorez eta beste batzuk igaliz bete-beteta.

Gaba, eguaro giro leun, biguna, ortuko usain-gozo guztiakaz ataria urrindatzen, ederretsiten, saiatzen zala, dirudian.

Diego, eguzki-begira, matsparretik alboraturik ilargiaren artgitasun urria gozatzuz, jazarri zan.

Etxe aundiko ataria, ilargiaren argitasunera agertzen ez zan tokian, beraz ilunetan, Diegok, soin-enbor anbat mugintzen zala nabaritu eban, eta zalantza-gabe, Igo-kundetxu zala ba ekian.

Diego bere kitarrea artu, ta eresi au abestu eban:

Igokunde egunean

zuk emon zeustan klabeliña...

Bere aurrez-aurrez egoan etxeko atarian, soin-enbor bat mugidu zan. Diegok bereala doiñu gozoz, maitekiroz beste abesti au be abestu eban.

Kaisar-amdra ta erregiñak

zugaitik arbiatuko neukez

ba zu uts-utsean

nire biotzean zara.

Etxe-aundiko soin-enborra, dunboiloa, argitasunera urtenda, ilargiak argitzen eban ortura jaitsi zan. Unetxu bat be galdu barik Diegok bidali bardin bardiña egin eban, ortu beratara jaitsirik. Abestiak eraginda mugidu zan dunboiloa, larrosa ta zitori moltsotxua, Igokunde eritxon neskatil ber-bera zan.

Diego ta Igokundetxu eskongaitasunera, senar-emaztegaiak izatera, adiskidetasun bidetik eldu ziran, alkar itaun, itaunketa, ez erantzun gabe, aurretizko ongunde gabe, berez, barne-barnetik urtenez. Iñoiz iñork, "Maite nozu", olako alkar-galdeketa egin gabe. Diegok itaun, galdera, ori egitea bururatu ez ba jakon, Igokundetxuk bera mai-tatu ezin ebala bere buruan sartzen ez zalako zan, eta Igokundetxu itaun, galdera, ori egiten ez zan ausartzen, Diegok berari itaun ori iñoiz egin ez eutsalako zan.

Igokundetxuk gurari, nai, bizi-bizia eban Diegori itaun au egiteko: Maite nozu?

Izan be, "Maite nozu" battxu bat barik, zer da maitasuna?

Maitatu daben guztiak dakie, eta oneik jaio diran guztiak dira.

Igokundetxu, negarrez zara?

Bai Diego, negarrez nago.

Zergaitik negar egiten dozu, ba?

Nai, gura, izan dodalako.

Ez dakizu ba, maite zaitudala?

Maite nozu? Maite nozu?

Neskatilatxuak, "maite nozu"? itaun, galderak, bikotez iñoazan. Ziurki, leen esan eziñik min ganean ebazan itaun guztien ordaintze bezela izango zan.

Neure bizia baño geiago maite zaitut

Nire aita ta n ire ama baño geiago

eta obena izango ez balitz,

Karmengo Birgiña baño geiago.

Diegok, neskatilatxuen burutxu txikia bere bularrean estututen eban bitartean, erantzun eutsan.

Seme maitea, goazen afaltzen, Agustiñek atarian agerturik, oiuka iñotsa.

Oraintxe noa, ama, Diegok erantzun eutsan.

Maite nozu, bene-benetan maite nozu, Diego? Maite nozu?, neskatilatxuak barriro itaundu eban.

Pepek Isabel maite dauan baño askoz geiago, bere ama egoan tokira abiatuz, Diegok erantzun eutsan.

Bitartean On Errafael, alabearen ardura gabe, Voltairen liburu bat irakurten ziar-dun; bere eretxiz nezkatil gazteak eurak-euratar ibili bear ebela, uste eban, bizi bear zirala.

Igokundetxu negarrez, baiña oraingoan ez samintasunez, poz-alaitasuna eraginda baño, eta atariko eskilleratik gora igonda, eskuden ganean makurturik, erdi-makurturik, bertatik leenengo ortzi-muga begiztatuz eta gerotxuago zerua, bere biotzean eragiten ziran sendipeneentzat, ludia guztiz, loi, zikin, zeken eretxion.

Gizon-andrazkoak il, gaixotu ta il, lorak orri-galtzen dabenak, lurra suge pozoidu-nak elikatzen, ibai, erreka ta ibaiak zikundi ta gortzen diranak, zugatzak legortzen diranak, neskatil maitamendurik zanari, guzti au, gugaz bizi dan guzti au, erorkor, ziztrin, txatal eritxion. Berak zer zan jakin barik, azaldugarririk izan barik, bere arima menperatzen eban sendipenari dagokion maila aundiago, goiago, ederrago, liluragarriago, azaldu-eziñeko bat, zan bere elburua.

Bai, Isabelen antzera siñismenduna izan ba zan, eta Maitasun Eder Ama bere obe-gabeko maitasunean bitarteko izan zala, nabaritu ba eban, ze zerutar zorion, nire Jaun eta Jaungoikoa, bere biotz maitemenduak, zeru urdiñan an emenka argitzen eban goi-izar urre-braiñadunak adiakaturik, ze azaldu eziñeko, barriro difiot, zerutar zoriona be biotz-barnean izango eban!

Baña nezkatilatxua, siñis-gabea zan, Jaungoikoagan ez eban siñisten. Ostera une orreitan konturatzen zan, ulertzen eban, bai atsekabe ta oiñaze aundietan eta baita be

poz-alai, zorion geiegietan, zein tamala dan arimea ezin adiakatu esanez: Nire jaun eta Jaungoikoa!

VI

Arrasti, arratsalde, baten, ilunabarrean, eguzkiak bere izpi dizdiratsuak agur egitera joanean, On Errafael eta Igokundetxu sorailuan, balkoian egozan.

On Errafael, jazarrita "Las Ruinas" eritxon liburua irakurten, eta Igokundetxu bere alboan aurrez-aurrez Bilborako bidera adi-adi, larri, begiratzen; bertatil norbait agertzea itxaroten ebala adierazoz, zain egoan.

Onetan, Agustiñe lusuila buruan ebala, sorailu azpitik igaro zan.

Arrasti on, alabatxu, Igokundetxu agurtu eban. Neskatillatxua bere begiko zan, asko maite eban.

Arratsalde on, amañfude, Iturrira zoaz?

Bai, ur-ozkirri apur baten billa noa, gaur izan dan bero-sargoriaz, errukigarri a, egarriz itota etorriko da ta.

Belutxu, berandu, dabil.

Laster agertuko da. Leiatsu itxaroten dozu, ez?

Bai, egia da, leiatsu, urduri naz itxarote onetan.

Ba, alabatxu, alkatu zaitez nigaz.

Agustiñe, Diegon itzultzeatzaz nezkatilatxuak bat izanik, kide izanik, beragan alako esker-on bat senditzen eban, eta bururapen oneikaz bere bidean jarraitu eban.

Betaurreko barik, orain ez dot ondo ikusten, On Errafaelek esan eban, eta bereala liburua ertsita, jagi ta Igokundetxu egoan tokira joan zan.

"Las Ruinas" liburua irakurten egoan berori, ez? Igokundetxuk itaundu eutsan.

Bai, eta liburu au irakurten, iñoiz ez naz nekatzen.

Niri be atsegiñ izan jatan, baña orain ez jat bat be atsegintsu.

Zergaitik?

Ez dakit zergaitik!

Laster zuri, Diego ergel, ketoak, eta bere ama sintsa, jaunkozaleek irakurten daben "Año Virgeneo" guztako jatsu.

"Año Virgiñeo" ez, baña "Genio del Cristianismo" ta "Los Martires", Diegok irakurten dauazanak, "Las Ruinas" baño geiago atsegin jataz, guztatzen jataz.

Noiztik ona "Las Ruinas" ez jatsu guztatzen, ez jatsu atsegintsu, bat?

Bat ilten danean dana amaitzen dala jakin nebanean, ludi onetan amaitzen zala guztia jakiteak, nire biotzean eragin eustan su-asarrea izan neban une ber-beratatik ona.

Eta zer leba, ardura, dau ori olan izateak?

Zu ilten zaranean, ni ludi onetan bakar-bakarrik geratuko naz...

Bakarrik ez, milloi bat-erdi zuretzat izango da, laguntzarik onena dana. Isabel eta Kataliñek ez daukie olakori, eta umezurtz eta txiro, beartsuak, diran beste askok.

Bai, baiña orreik euren ama ilten jakenean, naizta ilda izan, ikusi, entzun eta eura-kaitik zain dagola, siñisten dabe: ta oiñazez, naigabetuta izaten diranean, otoitz-erreka egifñez, poz-alaitzen diran.

Ara, ara, alabatxu, inguruatzen gaitun talde, keto, ergel, orren antzera ez zaitez lelo, ezjakiña izan.

Itz, berba oneik Igokundetxu poz-alaitzeko ez ziran gauza izan, neskatilatxua aus-naskor, kezkatu, Bilborako bidea begiratzeko, adi-adi, jarraitzen eban. Olako baten, ara non, mutil gazte bat oinkada leiatsuan, alkondara utsean, bere jakea garrian krutzatuta loturik, buruan txapel gorria atzerantz ezarrita, erreketak egindako marrazki apatatsudun gorosti makila bat lepoan, garandoan zearretara makila ganean bere beso biak kurutze bat iruditurik, agertzen dan.

Gazte a Diego zan, andrazko biak itxaroten eban mutila.

Bereala Igokundetxun neke, oiñaze, guztiak iges egin eben. Mutil gazte e ikusi orduko, Igokundetxu beste nezkatil bat zan.

Diego, bere etxean geratu bearrean, aurrera jarraitu ta On Errafaelenera, joan zan.

Isabelen esatetatik, bere senargaiak ekartzen eutsazan ariguri gozo bakanatariko anbat, ixilean, eskupokoz, emongo eutsala itxaropen gozo guztia ebalu, Igokundetxu mailadi, eskileratik bera, beragaz topo egitera, arifieketan joan zan.

Bere itxaropenean Igokundetxu ez egoan guztiz oker, Diegok, kututasunez kartoizkotutako liburutxu bat ekartsan. Neskatilatxua leiatsu liburua azterkatzen asirik, bere leenengo orrian onela iñoala irakurri eban: "El Alma Desterrada", Ana Marienak idatzita.

Kristatu goi-argi ta minbera, samurrak argitaratu dauan eresi, olerkirik eder eta biotz-beroena, "El Alma Desterrada" da.

Bertan, Idazti-Deun errialdetan, bere ama ta adiskideak samin eta oiñazez mur-gildu, ondatuta bazterturik, oegabedun neskatil gazte bat ilten da.

Bere ama deunak, Larazoaz egin ebana, egin eban miraria, Lazaro barbiztutze, ilobitik bizirik ateratzea, barrizta egiala gure Jaun eta Jaungoikoari, biotz-biotzez itoitz egifñik, eskatzen eutsan.

Neskatil obengabea berbiztua izan zan, bere gorputzak ludi onetan barriro arnasantzen eban, baiña bere arimea guztiz goibel, alaitasun-gabe beti, sekulakorik goibel da. Zerua, naizta asti laburrean, aldi laburrean, bere egoitza izan zan, eta orain lurrean, erbesteratua senditzen da.

Diegok, Igokundetxun eskuetan laga eban liburutxua, irakurgaia, labor-labor azaldurik, au zan. Liburutxu arek eben erreljio ta elerti usain-gozoa, leenago edo beranduago, beluago, neskatilatuaren arimeaz jabetuko zala, Diego ziur zan, ziurtasunik aundienagaz uste eban.

Opari arek Igokundetxun biotz-barnean eragin eban poz-alaitasuna, Diego goibel, kezkatu etorrela nabariturik, bereala eten, urratu, zan.

Zer dozu, zer daukazu, Diego?, larri leiatsu, neskatilatxuak itaundu eustan.

Zure aitarentzat eskutitz bat dakart, ez dakit beratan zer barri datorren, baa emoleak esan daustanetik, zorionezko barririk ez da.

Diegok eskutitza On Errafaeleri emon eutsan, eta au ikusiko orduko, irakurri orduko, katabera baten, Jaungoikoa ta zeru goiko Deun guztiak aitatzuz, biraoka, eurak iraindu naian, etzun zan.

On Errafaelek Jaungoiko ta zeruko Deunetan, eurak iraindu naian biraoka zanean, sifiñisten eban.

Utsa, ezereza gitxiago da.

Diegoko ekarri eustan eskutitzak, bere diruak, On Errafaelek ezarrita ebazan diruetxea pot-egin, ondatu zala, adierazoten eutsoen, eta beraz artuendunak euren diruetatik, euneko bost anbat geienean eskuratu al izango ebela.

Biramonean On Errafael Bilbora joan zan, eta ziurtasunez ondatuta, ondasungabe, txiro zala jakiñik, samin, naigabez beterik etxeratu zan.

Etixeratuta laster, ordu batzuk geroago, ogeratu zan eta ari egun bira On Errafael errukigarria gorpu zan. Ilobiratu eben.

Il aurrean, bere eriotz aurrean, autortu egian eta Jauna artzeko abade jauna eskatu eban. Igokundetxu eskari onegaitik arritu zan ezkeru, irribarretxu bat egiten alegindurik, esan eutsan:

Alabatxu, oiturazko dana, ez da ukatu bear.

Bere alabearen aurrean, kanpotik onelan agertu zan. Nok daki, bere barnean Jaungoikoaren aurrean, zelan agertu zan!

Autor-entzule bateri baño geiagori baiztatzen entzun dautsat, aitorle, damudunak, autortzean agertzen ebezan guzurren artean, Jaungoikoagan ez ebala sifiñisten guzurretariko bat izaten zala. Beragan bene-benetan sifiñisten ebenean.

Onbide, ontasunaren, azalkeria izugarrizkoa ba da, ze tamalgarri, jauna, aje, makurkeriaren azalkeriak izan bear dau!

VII

Igokundetxu bera aitaren eriotzagaitik baltzez jantzita eabilen.

Bere biotza be doluz zan, sarritan bere begiak samin, oiñazeak eraginda, negarmalkoz ezotzen ziran, eta bere matrail larrosa margodunak, zitori margodunak itzultzen ziran, biurtzen ziran.

Etsetzar, etxe aundi aretan, Igokundetxu bakardasunik audienean aurkitzen zan. Ile batzuk aurrerago, leenago, neke, saminduna ba zan, maitatu ta mizketu egiten eban aita bat eban, eta maitasun edo zuduagaitik, balakatu ta menpeko ziran otseiñiak ebezan.

Orain, andra errukigarri bat, gozezko alogor bat ostaz-ostaz emon al izaten eutsana, laguntza ta nekametza bakana eban.

Igokundetxu, bere aitak bera ludi onetatik alde egiteko orduan, aberats eta zoriotsua itxiko ebala itxaroten ebana, orain guztiz txiro ta zorigaiztokoa zan.

Bein baño geiagotan bekaiztu izan ebazan sifiñiskeriak, eta umezurtz areitan, sifiñis-

mendun areitan, sortzen ebezan poz-alaitasun deunak, Igokundetxuk ez ebazan. Bere aitak beragan erein eban sifñismen-gabetasunak, sustrai sakon, gogor-gorrrak ezarri ebazan. Arima bide-gabe, zirdoi aretan sifñismen argi izpi anbatek argitzen ba eban, bereala bere inguruan eta bera inguraturik, eztabaida, zalantza, laifioak moltsotuta ziran.

Igokundetxu zenbat eta zoritxarragokoa izan, sifñismenaren bearrean zan, ere utsa geiago nabaritzen eban.

Bere etxeko gela baten, iguñiez begiratzen eban liburuz beteriko arasa bat egoan. Liburu oneitan bere biotzak biltatzen ebanik, aurkitzen ez eban lez, berantzat, Igokundetxutak iguingarriak ziran.

Bein baño geiagotan burutatu jakon, liburu areik sutara jaurtitzea, baiña bere gurari, naia, baztertzen eban; naizta euratan bere arimeak bear eban sifñismenik ez aurkitu, bere aitaren oroimen bizi-biziak ziran.

Ostera, bere liburutxu bat, sekula be nekatu gabe irakurten eban.

Bera irakurtean azaldu eziñeko poz-alaitasun bat bere biotz barnean eragiten eban liburutxu au, "El Alma Desterrada" zan.

Ana Mariak idatzitako kondaira txalogarrian, Igokundetxuk sifñisten eban?

Berak, bene-benetako argitasunez, Agustifñe ta Diegori, ezetz esaten eutsen, ez ebalá sifñisten ifñotsen, baiña berak be jakin barik, uste-gabe kondaira aretan sifñisten eban. Liburu aretan eztitasun deun beteriko agertzen zan zeruan, eta baita be berbizkunde aretan, sifñisten eban.

Sifñisten ez dan liburu sekula be atsegiñez ez da irakurten.

Diego ta Igokundetxuk sekula ezelan alkar-maite eben.

Diegok, Igokundetxu goibel, umezurtz, lagun-gabe ikusten ebalako, maite eban. Igokundetxuk, bere biotzean, Diegon biotzean, babes-leku, abaro bakarra aurkitzen ebalako, Diego maite eban.

Diegok, bere gaztaroko lagunagaz laster alkartzea nai, gura eban, baiña bere amari esaten ez zan ausartzen.

Ez dakit Españeko beste lurraldeetan mutil gazteak zelakoak izango diran, ba da niretzat nire jaiotze-ibarretik urrentze luzeena izan nebana, Valladolid izan zan, bertan ondiño gazte nintzala urte bi ikasten egon nintzan, nire ikasketak nire aita il zalako baztertu bear izan nebazan, eta nire poz-alaiturik bere laguntza izateko, etxeratu nintzan. Ez dakit beste lurraldetan bertako nekazariak zelakoak izango diran, baiña onetan, nire jaió ta bizi nazan lurralde onetan eta Jaungoikoari eskerrak, oiturak guztiz garden, zaindu jagoten dira, ta alke, begirunea ez da uts-utsean neskatiñen ondore berezia.

Igokunde jai-egun aurea zan eta Diego ta Agustifñe bazkaltzen egozan.

Zer dozu, seme, ain goibel eta jangura-gabetuta egoteko? Agustifñek Diegori itaundu eutsan. Makal zara, ala?

Ez ama.

Igokundetxuaz asarrerik izá dozu, ala?

Ez andrea.

Ba zu, zeozergaitik, zerbaitegaitik, goibel zara.

Diego ixil ixillik geratu zan.

Zergaitik zagoz goibel, seme?

Mutilak bere aurpegia gorriturik, erantzun eustan:

Ama, Igokundetxuk biar bere bizian leenengoz goibel eta bakar-bakarrik bere eguna, bere urtebetetzea, emongo dau.

Goibel bai emongo dau, umezurtz eta zorigaiztokoa dalako, baña hakarrik ez, ba da nik gugaz egune emoten etorri-araziko dautsat, zuk orretzaz txarto ez ba deritxazu.

Mutilak, alaitasun eta biotz-beratasun azaldu ezifiekooaz, bere ama begiratu eban, eta onek argi ikusi eban bere itzak bere seme maite eragin eben poza, bizitzeko naia, sekulakoa zala.

Nik biar beste mezede aundiago bat opatuko dautsut, Agustinek bere baitan ifioan.

Bazkaltzea amaitu eben, Diego goizean lanetik, solotik, kezkatu, goibel etorri ba zan, etxeratu ba zan, orain barrero lanera itzultean pozez, alai, barruti, esparruak, zearkatzen ebazan bitartean, Igokundetxuk bere abesti au entzun al izan eban:

Igokunde egunean

zuk emon zeustan klabeliña...

Arratsalde iluntzean, urrengo eguneko jaiak adierazoz eleizako kanpaiketak erria, basetxe-erria guztiz alaitzen ebanean, Igokundetxu guztiz goibel ortura jaitzi zan.

Agustiñek ikusirik, bera be bere atsetik jaitzi zan, eta olesitik zear bidalitzen eben birtatean, alkar-izketa au izan eben:

Alabatxu, gaur gabea eskegi bear zaitugu.

Umetxuak irribarre goibelki bat egin eban, eta bereala negarmalkoak bere larrosa matrail gorritzak ezotu ebezan.

Agustiñek, neskatilatxua negarrez egoala nabariturik, beingoan itaundu eutsan:

Ala, ala, negar-zotinkak beste egun batera baztertu eizuz, Jeremias bat deritxazu ta. Biar zure jantzi baltz orreik kenduko dozuz, aldi egokian, luzaro eroan dozuz, eta gurera gugaz bazkaltzen etorriko zara, ta arratsaldean intxaustian, nire Diegoaz dantzaketa batzuk be egingo dozuz.

Aaii, amaiñudea! Dantzatu nik!

Bai, biar Diego ta zuk, sapakon, tronpoi, bat bezela dantzatu-araziko dautsuet.

Oso zaila da. Oso gaitza da.

Alaituko zaituen soifñu, poz-alai baten soifñularia izango nozue. Alan da ze esana, biar egun osoan gurean etxekidea izan zaitezala gura, nai dogu.

Mila esker, amaiñaude.

Esker orreik, zeuk ondo dakizun batetzat gorde eizuz, eta biar zure utsik ez dogu izan bear, itxaroten zaitugu.

Bertan izango naz, biar zuenean nire utsik ez da izango, bere poz-alaitasuna geldi-arazi ezifñik, Igokundetxuk esan eban.

Biramonean, Agustiñe, Igokundetxu ta Diego, Agustiñen etxean, atarian, bazkaltze amaitu-barriak ziran.

Igokundetxu bera be, guztiz poz-alai egoan.

Diegok, bere eskuetan ardao-ontzi bete bat arturik, bera utsitera joiala, iñoan: Jaungoikoak onelako egun askotan, ugarietan, alkartu gazizala!

Olan izan daiten, olan gertatu daiten, Agustiñek erantzun, bearrezkoa da norbera eta guztiok, danok, zio orretzaz alegindu gaitez, ba da Jaungoikoak diño. Lagundu zaitez eta lagunduko zaitut!

Igokundetxu ta Diegok, Agustiñek esan gura, nai, ebana ez eben ondo ulertu, aitu. Ez nozue ulertzen? Agustiñek itaundu, galdetu eban.

Ez andrea.

Ba, argi dago, Igandean, datorren Igandean zuen leenengo deierak, eskondeiak, entzun nai neukazala, dirautsuet.

Igokundetxu ta Diegok poz-alaitasunezko oiu antzeko bat ezin izan eben ixil-arazi, ta lots eta pozez zizaka esker-oneko itz, berba, batzuk esan nai ebezan, baiña Agustiñek, bazkaldu ondoren oitura eban otoitz au egiñez: "Artu doguzan jakiagaitik, Jaungoikoa eskertu dagigun", ixil-arazi ebazan.

Igokundetxuk, otoitz eta negar, batera naastatu ebazan. Negarez otoitz egitea, ta Jaungoikoagan ez siñistea, eziñekoa da ta.

Otoitz amaitu ebenean, intxaustian Isabelen abots biguna, pandero soiñuna lagun ebala, entzun zan.

Ala, nire semetxuak, dantzaketa bat egitera!, Agustiñek, ondiño erdizorobotuta zan bikote, neska-mutilari, iñotsen.

Diegok, maitasun irribarretxu bat egiñik, Igokundetxu egoan tokirantz oinkada bat emon eta txapela kentzeko keiñua egin eban, eta neskatilatxuak beste irribarre gozo ta buru-makurtze bateaz, erantzun eutsan.

Neska-mutilak dantzaketa bat alkarregaz egiteko erabilten daben antzerki-keiñua au dala, jakiña da.

Eta ogeita amar egun geroago, erriko eleizan alkar-eskondu ziran.

VIII

Ondasunak eurak uts-utsean zorientsu izateko naiko izango balitz, Igokundetxu eskondu ta urte bigarreanean, zorientsua izango zan. Bere aitik diru guztiak ezarrita eban diru guztia, ta ile batzuk aurrerago porrot egin ebana, eskerrak bertako nagusiak izan eban ondoren dirutsuaz, beragan izan ebazan zoor guztiak ordainduz, leen-goratu zan, eta bere aitik bere diruak eta ondasun guztiak, beraganatu ebazan. Naizta jazokizun on au, albiste on au, Saltzedotar Diego ta Igokundetxu eskondu ziran aldi ber-beratan izan eta jazokisun orren ondorioz, Igokundetxu aberatsa izan, Diego ta biak alar-maitamendurik izan eta zorionez geroago ta geiago alkar maite, zorigaztokoia zan.

Igokundetxuk urte bete inguruko ume-neskatilatxu bat eban, bere etxeko poz-alaitasuna zan, baiña neskatilatxua gaixorik naiko txarto aurkitzen zan. Bere ama gau

eta egun, umetxu baten be aldendu barik, bere alboan jagoten, zain, arreta aundiz eta biotz-samintasun, oiñazez beterik.

Naizta ama maitale deun baten biotzean, Jaungoiko-gabekeri baltza izan leitekenik, eziñekoa eritxi, ondiño lgokundetxun biotzean zalantza poizudun sustrai anbat ba zan.

Diego ta lgokundetxu ta Agustiñek, Bilboko Osagille ospetsuenatariko baten etorrera, leiatsu, urduri itxaroten eban. Neskatilatxua arakatzeko deitua izan zan.

Osagileak bere etorrera larregi luzatzen eban, eta bitartean lgokundetxu atseka-betuta, samiñak beterik, bere bizia be makaltzen joian.

Azkenean Osagilea eldu zan eta arreta aundiz umetxua arakatu eban, seintxua arakatu eban. Zeregin onetan, umetxuaren ama errukigarrian izugarrizko kezka, larritasuna sortzen eban ixil-aldi goibel, asti luzedun bat izan zan.

Nire biotzeko alaba maitea, gaizkatuko da?, lgokundetxuk negarrez itaundu eutsan. Jaungoikoagaitik, zuzentasunez itz, berba, mezedez egin eistazu, ba da nire alabatuaren eriotza ber-bera baiño, zalantza, enura zital au, jasan gaitzagoa da ta!

Andra, Jaungoikoak ber-berak uts-usean umetxu au gaizkatu leike, Osagileak esan eban.

Igokundetxu ia konorte gabe, umexua il-zorian egon zeazkatxu alboan jausi zan.

Konorte-jabetu zanean, bere alboan Diego bakar-bakarrik egoan.

Ama errukigarria atsekatetuak, umetxuaren espanetan bere belarria urreraturik, eta seintxuak arnas-arten ebalabababariturik, Diegori esan eutsan:

Diego, nire biotzeko alabatuau au zaindu, jagon, eizu!

Ariñeketa baten mailadi, eskilerea jaitzita eleizpera eldurik, Atsegin Birgiñaren oiñetan balaunikoturik, samin, oiñazez negarrez, otoitz egin eban:

Birgiña Donea! Nigan errukitu zaitez! Nire erraietako alabtu au gaizkatu eizu!, eta zeure oiñetan makurtzeko bere albotik aldendu nazanetik, zerura igon ba dau, Galileoko neskatilatxuari bezela, nire seiñeri be barriro bizia emon dagiola, eskatu eiozu!

Eleiz baztar baten otoitzka egoan andra bat, bereala poz-alaitasunez eta atseka-bez batera, negarrez jagirik, ama naigabetu a besarkatzen leiatsu joan zan, eta alaba izena bein eta barriro gaiñekatuaz, maitasunez alkar-besarkatu ziran.

Andrazko a Agustiñe zan, bera be Ama Birgiñaren oiñetan otoitz egiñik, ume-neskatilatxuaren gaizkamena, osatzea, arren egiala eskatzen, eleizara jaitzi zan.

Ama! igokundetxuk esan eban, Jaungoikoagan sifisten dot! Jaungoikoagan sifisten dot, eta bere erruki deuna itxaroten dot!...

Alabatu, zuk ezeze beste iñok be beragan alperrik ez dau itxaroten! Agustiñek bere matrailak negar-malkoz ezoturik, iñoan.

Biak, barriro belaunikoturik, luzaro otoitz egiten jardun eban.

Neskati-umetxua gaizkatu zan, osatu zan?, kondaira au edestuten eustan aguretxuari, itaundu neutsan.

Or dau berorrek, etxe aundiko, etxetzarrek atarira begiratuaz, bertan andrazko bat, gaztea ondiño ta ederra, zortzi bat urtedun neskatilatxu bat, arto-soldua aiñako gorritzka ta serafin ederra, eskutik ebalabababariturik agertu zana, erakutsiz, erantzun eustan.

Eta andra ori, bere ama da?

Bai, Igokundetxu ori da, Ama Birgiñaren betiko andra-eleizaña da, eta erriko, basetxe-erri onetako andrarik siñismen beroenaduna, ibar osoko txiroen ama, ludiko andrazko zoriontsuena, ori da.

Andra-umetxuak agurtu ginduezan eta baselizatzuan sarturik, Ama Birgiñaren aldare aurrean belaunikorurik, otoitzka geratu ziran.

IX

Eguzkiak, urrunetako mendi-tontor ostetatik bere azken argi-izpiak opatzen esku-
zan, eta nik neure basetxarako bidea artu neban.

Leenengoz nire abots eta biotza Jaungoikoagan jaso neban; eleizea inguratzen daben zugatzen kerizpetan, betirako atsedeen-loa eben nire umetxutako adiskide guzti arein irudia barriro nire begien aurrean agertzen zan. Orduan bezela, milaka bider eguzkia sartaldean izaten zanean, Poz-alaitasun jaitetatik, guztiok alai, gogoketa ardurats gabe, kezka naigabetsu gabe, jaiotze ibarretara itzultean, nire arimeak izaten ebazan gogaldi sakonak gabe, eurakaz artu neban bide ber-beratatik abiatu nintzan.

Irudi areik, gozo ta mingotsak ziran gogoketa areik nire gogotik aldatze naian, alegiñak egin nebazan, saiatu nintzan, eta aguretxuaren edeste bigun, ozkirri, samur eta poz-erazlea, bururatu neban.

Ameztietan, sasi-zoko abarotsuak eta ilunabarrak eraginda zan iluntasunean, eta nire etxerako bidea galtzen zan toki beratan erdi-galdurik sartzean, ez dakit ze istasun, ze goibeldasun-deun eta gozotasunaz nire arimea, gogoa, jabetu zan.

Neure gogoketa laifodun, ilunakaz ain xor, neuganatuta nenbilen, neure atsetik etorren amabi bat urte inguruko mutiltxu bat, agur bero bat egiñik, ariketa neu aurre-ratu arte, beragaz ez nintzan konturatu.

Nire basetxea ikustatzen zan mendiska bateraño, bide ber-beratatik biok giñoia-
zan; gero mendiska goi aretan, bidea beste bitan banantzen zan, bata nire etxera, gurera joiana, ta beste bidea mutikoaren basetxerakoa.

Zu etxeratu baño leenago ilunduko jatsu, esan neustan.

Bai jauna, gitxienez ordu bete leenago, erantzun eustan.

Eta zugazti abarotsu ta bakarti orreititik, gabaz bakar-bakarrik joateak, ez zaitu bildurtzen?

Ez jauna, ba da norberak nozean-beinka esan ezkerro:

Josus, Mari ta Joshe

Gizon batek ikusten dauzan gauzak!

mamu, iratxorik ez da agertzen eta iñor ez da bateaz arduratzen.

Orduan zu, esaldi ori esanda uts-utsean, txapel-gorri bikote bateaz joango bazi-
ñake beste, aifiako nasai, ardura-gabe joaten zara ez?

Orrein laguntzagaz baño askoz be nasalago, Jaungoikoa gaiñeratu leikenik eziña da agertzea, ostera gizona menperatzekoa bai.

Jaungoiko Jauna, nire biotz barne-barnetik esan neban, siñismena umetxu onen ariman, bero-bero beragaz beti izan dagian, eutsi, zaindu eizu; ba da siñismena, zeruko ez eze ludi onetako zoriona be ba da ta!

Bidalian jarraitzean, mutikoak eta biok alkar-izketa mamitsua izan genduan.

Mendiska tontorrera urreratzen gengoan, eta sartaldera begiraturik, edoi baltz batek iluntzen, laiñotzen ebala nabaritu neban, baiña nereala justuri, iñusturi batek makalki, baiña apur bat argitu eban; ondoren, jarraian, urrunean, trumoaia eretxi jatan ots luzebegi ilun bat, entzun neban.

Ostosketa saratatsu, iñuzturi, jutzuri dizdiratsu, ekaitz gogor bat sortzen danean, nire barnean eragiten dauan larritasun, urduritasun bizi-biziaz, gaur gabeen uste dot ekaitza izango dogula, umetxuari esan neutsan.

Ziurki, ni etxeratu baiño leenago izango da, ta arrapatuko nau, mutikoak, erantzun eustan.

Eta ekaitzak ez zaitu bildurtzen?

Orretzaz ez dot bildurrik, ez ardurarik be.

Zergaitik?

Esaldi au eanez:

Barbara Donea // Bedeinkatua

Zeruan dago idatzita

paper eta ur bedeinkatuaz

Ez dago, ez da jutzuri ez beste ezetariko tximistarik norbera jo leikenik.

Barriri mutikoaren siñismena bekaizkaturik, ain beste urtetan eta zorigaitzetan nire ariman, gogoan iraun dauan siñismena babestu egiala, nire biotzeko indar guztiakaz Jaungoikoari eskatu neutsan.

Mutiko abeslari bere basetxeko bidetik joain, eta nik nire erriko kanpadorrea begistatu neban.

Nire jaiotze ibar, aranera itzulte une ber-beratan, bertan betiko atsedena eban, amaibako lo-zorionsuan ziran guztiak, nire begi alderraiak alperrik billatzen ebezan guztiak egozan eleizako kanpaiak, otoitzegitera dedadarka saratatsu ebiltzan.

Jaungoikoa ta ildako guztiak gogoan izanik, orduan barriri belaunikoturik otoitz egin neban, eta nire oinpean nasai ta eder edaturik agertzen zan aranerantz, eta itxaso izugarrizko ta muga-gabe, biak, itxasoa ta arana azken eguzki-izpiakaz argituta nire aran, ibarrean, ildako adiskideak, alderrai ara ona astia emoten, eta itxasoan Jaungoikoa, batzuk gizonarentzat poz-erazle izateko, ta beste batzuk kristau poz-erazle, ikuspegi zoragarria nire begian aurrean argetzen zan.

Jauna! "LARROSA MARGODUN IPUIN"en egilea zorigaitzokoa izango da, baiña ipuin onein idazburua bere biotzaren Oiartzuna dan biartean, bere zoritxarra etsimen onez iraungo dau!

KARDONA BAÑO ASKARRAGOA

Irri-antzerkia, antzerki gabe, ez deritxat ezetarako balio dauanik. Irri-antzerkia egin baño leenago, antzerkia egin dagigun.

Antzerkiak Madril aldeko toki bat iruditzen dau. Ezker-eskumatara kalemuturrak. Ostean, barrurantz, etxe aundi bat bere soailu, balkoiakaz. Ikusleen alderantz, oroi-erazleen askola, toki onetan egilea sarturik, orri, paper batzuetan antzerkilariek esan eta egiten daben guztia idazten dau, bereala ikuslei adierazoteko.

Egun-sentia da, eguzkiak bere goiztarrezko izpi alai dizdiratsuakaz egun barria agurtuz. Izeko Boelra otsarakada ikoaz platza erdian jazarrita dago.

Onetan, Bartolo burutsik alde guztietara zerbait galdu ba jakon bezela begiratzuz, urten, irteten da.

Aditu eizu, bada Bartolo ta izeko Bolera itz, berba egitera doaz eta.

Egun on, izeko Bolera.

Jaungoikoak zuri be emon daituzala, Bartolo.

Gaur, kintotzaz dan zozketan azke izango diran mutilak, ziurki, euren emaztegaiei opatzeko erosita, iko barik, itxi, utxiko zaitue. Ni zu lez izango banintz, ikoak saltzea ain ziur ikusirik, ain goiztar ez nintzan ibiliko.

Ba, zu be ez zabiltz ain atseraturik.

Ba dakizu ba, bart erroldan ibili nintzan, eta aizeak txapeka eroan eustan, eta barriro bururatu gura ba dot, emen nabil, bere bila, baiña naizta guztiz alegindu, ez dot aurkitzen.

Burua, zeure burua bilatu beär zeunke, bai ori, burua txapela baño bearrezkoagoa dozu ta.

Ara, ergel, lelo bat izateak za arazoak dakarzan.

Baiña zer, ez daustazu ikorik erosten, ala?

Arraioa, itxura txarrekoak ez dira, ez!

Dastatu eizuz, ikusiko dozu ze gozoak diran.

Zelakoak diran, ikusi dagiguzan ba, ikoak ikutatuz Bartolok iñoan. Au... apur bat gogor dago, au osteria,... bigunegia da. Au mingozki. Beste au... gozoegi.

Ala lisunsa bikaiñetarikoa dastatu eizu, ikoak garestiegiak dira ta.

Izeko Bolerak astaki tresna bateaz, Bartolo zemaizen dau.

Baiña izeko Bolera, ni lelo, ezjakiña nazan lez, ez ba dakit zer egiten dodan!

Orrek gaizkatzen zaitu, bestela burua tresna onegaz zatituko neuskizu Ala, zenbat iko gura, nai dozuz?

Andratxua, itxaron apurtxu baten, leenago sal-neurria akuratu bear dogu. Zean dira? Zenbatean dira?

Lau lauko librea.

Bai zera, apur bat merkeago izango dira, bai.

Ez da marebedi bat be gitxiago.

Arraio, arraioa, erregearen itza ez dozu izango zuk, ez?

Ala, txantxeta naikoa da ta. Zenbat nai dozuz?

Zorrear ba dira, emoistazuz lau edo sei libra.

Zer, orain ori be bai?

Baiña, izeko Bolera txakurtxirik be ez ba daukat.

Ala, ala, anka emendik, bestela zugaz zer egingo dodan, ez dakit!

Izeko-Bolera, ez naizu ikeratu, bada jan dodazan ikoak gaitz egingo dauste ta!

Plast egiten ba dozu, askoz be oba!

Baiña lelo, ezjakin bat izateaz, ze erru dot nik ba?

Barriro dirautsut, anka emendik, aldendu zaitetz emendik. Nire begien aurretik, estaldu zaitetz.

Bartolo ertz baten baztertzen da, ta izeko Bolerak samurki iñoan:

Aaaii Jauna! Jangoikoak bost zentzunak zaindu, jagon daiskuzala.

Kardona, mutiko azkarra, bere irribarre isekari lagun dauala, toki guztietatik onela esaten joaten dana" "niri adarra jo, nigaz jolastu gura dauanak, apur bat itxaron bearko dau", Bartolo aurkitzen dan beste aldeko ertztatik agertuta, itaun, galdetzen dau:

Zer, zer da ori, izeko Bolera?

Zer izango da ba! Apur bat ardura-gabetzen ba naz, ergel, keto onek iko guztiak jaten daustazala!

Arraioa, lelo ori aitatu be eistazu egin, bururaño nauka ta... Izeko Bolera, siñistu zeinke, bururatu zeinke, lelo, keto Geromagaz eskondu gura dauala?

Alkate jaunaren alabez?, Aita Semearen... inguru onetako neskatilarik aberatse-nagaz.

Zuzen zuzen be, ber-beragaz.

Baiña berak ez dauka jaramonik egingo, ez?

Bai, ez daitua egingo bat! Beragaz guztiz maitamendurik ba da. Zati zati egiten ba dabe be, nigaz ez dala eskonduko diño ta.

Ba, kontuz ibili-zaitetz, ia txakurkeri anbat egiten ba dautsu...

Niri, niri txakurkeririk orrek! Je Je Je! Mutila leloa da ta!

Bai egia da, zuk zelan jokatu ba dakizu, mutil azkarra zara-Kerdona deitzen dau-tsue, ta ezizena ezin obeto jatortsu.

Ikusiko dozu, zelako azpikeri anbat asmauko dodan eta lelo, ezkakin ori bere bizi osorako espetxeratuko dodan.

Baiña ze atzipe asmauko dozu, ba?

Ondiño ez dakit zelan, baiña zerbait asmauko dot eta ziurki garaile izango naz. Eta zeuk, izeko Bolera, zergaitik atzipe, aspikeri bat asmatzen nigaz kide ez dozu nai izan? Ia bion artean lelo, keto ori deabruak eroan dagian zerbait berezia oldozten ba dogu. Auzi onetan garaile izateko, izan naiten, zure laguntza ba dot, nire ortuko zugtz-ondo guztiak, au da euren igali guztiak, zureztat izango dira ta beraz guztiz aberastuko zintzake!

Ez izan zalantzarik, zerbait ona be ona, asmauko dot. Ba dakizu olako gauzeta-rako neurritik kanpokoa nazala. Olako naaste-borrastetarako Jaungoikoak jarri eus-tan ganora onegaitik, izeko Bolera ezizena ezarri eusten eta.

Bartolok bere begitariko bat erriko alkatearen sapaillu, balkoian, eta beste begia izeko Boleraren otsarakada ikotan ebazala, oiuka iñoan:

Arraio, arraioa, sekulako iko-gozea sortu jat, iko orreik jan nai dodaz!

Eta zer, ikorik ez daustazu erosten? Kadonari, izeko Bolerak itaundu eutsan.

Zegan dira ba? Zebatean dira?

Lauan.

Ara, libra bikote bat ipiñi eistazu, ia ortzak, agiñek, lanean eragiten ba dodaz.

Deabrua, Bartolok esan eban, neuk be libra bat iko erosteko beste diru ba daukat!

Eutsi eizu, ia, zure txapela, izeko Bolerak Kardonari iñotsan. Zu zara nire gaurko leenengo bezeroa, eroslea, semetxu.

Alan da ze... lau ta lau... amabi dira, atzamarrakaz zenbatuz, Kardonak esan eban. Eutsi, emen dozuz amabi laukook.

Arraioa, arraioa! Ondiño ergel ori emendik dabil? Ikusiko dau berorrek izeko Bolera, zelan arrikadaka eroango dodan. Ala Bartolo! Ala astokilo! Ala keto, ziztrin ori!

Olan dirautsan bitartean, Kardonak Bartolori ikoak jaurtitzen dautsaz, eta onek, arek bota ala jaten dauz, eta onelan jarraitzen dabe, batac ikoak jaurti, bota, ta bes-teak jan, alkar-izketa aldi onetan, au zan: Lelo, ezjakin, ketoa esaidazu, baiña ikoak emon eidazuz, eistazuz, eta kale ertz batetik aldentzen dira, estaltzen dira.

Ja! Ja! Ja!, ze mutil txantxelaria dan Kardona deabru au, izeko Bolerak barreka ito bearrean, iñoan. Zeozergaitik, zerbait gaitik, erriko mutil azkarrenatzat daukie. Ja! Ja! Ja!

Bereala Kardona itzultzen da, eta bere txapela uts-utsik erakutsirik, diño:

Eizakiak amaitu jataz eta izkilu-gabetuta geratu nintzan.

Onetan osaba "No-hay-Dios" alkatearen etxetik, alkatenetik urten, irteten da, Kardonak oiuka diñotso:

Zu, EE zu, erri-zaiña! Osaba "No hay Dios"!

Ara Kardona, Eziozu ezizenik iñori ezarri! Gutzaz, errizaiñatzaz, txantxetarik ez eizu egin, ba da txistu baño ariñago kerizpetara eroango zaitut eta.

Ba erri osoa eron bedi bertara, izeko Bolerak iñotsan, ba erri onetan ez dago iñor, osaba "No hay Dios" deitzen ez dautsunik.

Eta zergaitik deitzen dautsue, ba? Kardonak itaundu eban.

Jaungoikoaren izatea zalantzan atzakitzat izanik, gudaritzatik itzuli nintzanean, mezara ez neban joan gura izaten. Apur bat geroago eskondu nintzan, nire andreak leenengo aurgintzan iru mutil ekarri ebazan, urte beratan uzta osoa galdu jatan, mando bi il jatazan eta nire egoitza inpernu ber-bera biurtu zan.

Egun baten astotxu bat saltzen Madrillera joan nintzan, etxean, gurean egoan azken salgaia zan, nire etxean saldu al izan eiteken beste ondasunik ez neukan, eta bertara, uri ospetsu aretara eldukeran, abereak gaixo osatu-eziñeko bat izan eban, eta bereala il zan. Bere narrua ogerleko baten salduta, berala etxeratzeko bidea artu neban. Guzti au, gertaera guzti oneik, nire baitan gogoraturik, nire Jaungoiko sifñis-gabearen ondorioak ete ziran oldoztuz niñoala, ara non, gizon txiro, eskeko bateaz iru ume txiki gozez ilik eta erdi-bilosik lagun ebazala, topo egiten dodan, eta gizon arek, Jaungoikoak, emoten dodan bategaitik, emoten dodan amoin bategaitik eun ordainduko daustazala esanez, amoin bat eskatzen eustan. Nik, egia esan, Jaungoikoagan ez neban sifñisten, edo beintzat sifñismen epelekoa nintzan, baiña gizon aregaz, iru umetxu gozez eta bilosik ziranakaz, eta neu be, bera bezela iru umetxuduna nintzala ta eskean, amoin batzun eskean asitzako zorian aurkitzen nintzala, gogoratu neban: Aaii Jauna, biotza minberaturik, astoaren narruaz artu neban ogerlekoa oso-osorik emon neutsan. Eurakandik aldentzen nintzan bitartean, euren bedeinkapen eta goraltzeek entzun al izan nebazan. An, bertan nire ondasun guztiak geratu ziran, baiña etxera itzultzen, etxeratu nintzanean, ze uste dozu aurkitu nebala?

Soka, lokarri; anbat zeure burua urkatzeko?

Ez, orixe ez, ber-bera ori jazoko jatan Jaungoikorik ez balitz, baiña Jaungoikoa dagon ezker, gudarostean, soldadizkako taldean, erregimeentuan izan neban nagusia il zala, ta ni bere laguntzaile, asistentea, izanik, niretzat mila ogerleko ondoren bezela itxi, utxi, ebazala, eskutitz bat artu neban. Bereala erriko kaletatik zear oiuka urten, irten nintzan: Aaii Jaungoiko Jauna! Nire etxean, nire bizi-modua, obetzen doa, kristau on bat biurtu nazala ikusirik, erriko agintariak udalzaiña izendatu ninduen, eta gaur egun erritarrik zoriontsuena izango nintzake, osaba "No hay Dios" bazterturik, osaba "Hay Dios" deituko beleuskide.

Baiña aitu eizu, aditu eizu, zuzen be orrexetarako deitu dautsut eta; zu zuzentaz zerbait zaran ezker, leengo egunean atserritarren lepoberotzeaz dala ta,

epaileak ni ta lelo, ezjakin orren aurka daroan auzia buruz, ez dozu ezer asmau?

Ez dot sumautuko ba, ezer baño geiago! Gaur goizean epaileagandik ekarri daben paper, ofizio, bat, alkateri, endoreari, udaletxean emotetik nator eta.

Ba dakitu zer diñoan? Paper orrek zer diñoan?

Ez dot jakingo ba! Ezelako ingera barik neure aurean irakurri ba dau!

Arraio! zer diño?

Zu, zeure neurritasunagaitik, neurritasun onagaitik, mila erreal eta auzi-diruak orainditzera gaitz-etsi zaitue.

Arraio, arraioa... ta Bartolo?

Bartolo guztiz azke geratu da.

Baiña ber-bera garrotadak emon ebazana izan ba zan, nik, bera atserritarrakaz asarre-erazi, zirikatu borrokarako eragin, uts utsean egin neban.

Bai, baiña Bartolo lelo, ezjakin bat izanik, ez dauala zigorrik, erabagi dau, eta berak ordaindu bear izan ebazan auzi-diruak, zuk emon bear dozuzala, epaileak deritxo, ta alan erabagi dau.

Arraio, arraioa, guzti au be nire jazo bear!

Ala, ala, gaur zuzendaritza jaunak, gudaritza, kintopekoak dirala ta arduratsu dira. Zu Kardona nasai egon, ez eizu izan bildurrik, gudaroste soldadiskarako ogeta amar mutil gauza diranak aurkeztu diran ezkerro, ta lau mutil uts-utsean zeregin orretarako eskatu, bakana izango da zu euratariko bat izatea, zu ain zorigaiztokoa izatea. Ara aitu eizu, kanpaiek mezara deika dagoz. Joan zaitex mezara, zoaz mezara, ba da Jaungoikoa ba dago.

Bereala udalzaiña aldendurik, estaltzen da.

Bai, arraioa, mezatarako nago ni! buruko ule, ileak atera bearrean, Kardonak diño.

Gizona, izeko Bolerak diñotso, mila erreal gora-bera ez zaitex ernegarazi.

Izeko Bolera, diruagaitik ez ba da, ni erretan nauana, lelo, keto, orrek zigorrik izan ez ezen ganera, nitzaz, nigaitik barreka ibiltea da... Baiña arraioa, demontrez, zelan barre ez dau egigo ba, nik mila erreal ordaindu bear ba dodaz, berak espetxe batera joan bearko leuke ta.

Ederto seme, ori ondo be ondo oldoztuta da. Espetxe baten sartzean espetxeraztea lortzen ba dozu, gero Geroma lortzeko etsai, areriorik, ez dozu izango, ta erriko neskatilarik aberatsenagaz, Geromagaz, eškontzen ba zara, zer izango dira zuretzat mila erreak geiago edo gitxiago?

Demontrez, errazoi ba dozu, zuzen zara, izeko Bolera. Oldoztu, ausnartu eizu, ia olako naaste zoragarri bat sortzen ba dogu, nik neure aldetik alegin guztiak egingo dodaz, keto ori espetxeratzeko.

Agur seme.

Alkatearen etxeko balkoipean, asun moltso artean egoan kape bat, bere etxerantz abiatu zanean. Kardonak ikusi eban, eta bere baitan diño:

Arraio, arraioa!, kapel au norena ete da?

Bart, ortik erroldan ibilita ergel, keto anbatek galdutako kapela izango da.

Aaii izeko Bolera, ze gogoketa zoragarria une onetan bururatu jat!

Edestu eistazu, seme, edestu eidazu.

Apurtxu baten itxaron eizu, beingo baten itz, berba, egingo dogu ta. Bat! Bi! Iru!
Une onetan Kardonak, Bartolon kapela alkate jaunaren balkoitariko batera jaurti-
tzen dau, ta poz, alaitasunez plastegin bearrean, jarraitzen dau:

Aaa ja ja ja! Orain bai! oin bai! Or dago bai ederto, arraioa!

Baiña mutil, zer egin dozu?

Orain bai izango dira izatekoak! Ergel, keto ori espetxeratuko dabe ziur, iru ta bi
zazpi diran lez. Izeko Bolera, orain bai zuzen be bear zaitut. Aurten nire igalietan,
Igali-zugaitzetan ez da izan igalirik, baiña datorren urtea, igali uzta ugaritsu urtea
izango da. Ergel, keto orren kapela ikusten dozu?

Baiña, baiña naiago izango neuke kereix-zugatz baten ganean soso ta biragarroak
ixaten ikustea.

Ez, Geromaren balkoian, gelako balkoian askoz be obeto dago. Entzun, aditu bedi
berorrek, eta onetzaz txikik be ez. Bart Bartolok alkatearen alabearen logelara igonda,
balkoitik jaitsitean, bertan bere kapela aitzuta itxi, utxi eban. Beraz, balkoi-igole ta
neskatil-azarkatzalea, kapelatik ikusten da nor dan. Eta alkateak, bere egoitza azar-
katu ta bere ala bearen garbitasun, izen-ona naspilatu ebana, espetxeratzen dau.

Zugan ainbeste jakitun, zure buruan ainbeste jakituri ezarri dauan Jaungoikoa,
bedeinkatua izan bedi beti, semetxu!

Baiña zer, ezjakin, keto bat ni ala? Arraioa, ulertu daust berorrek, ez?

Sekula bezela, guztiz argi dago. Olako seme ain jakintsu, buruargiek ludi onetara
ekartzen dabezan amaak, bedeinkatuak izan bedi!

Erritarrak ergel, keto orren ibilaldiak jakitea baño beste ezer ez dogu bear.

Albiste ori zabaltze, edatzea, erritarrei jakin-erazitea, ori neure zeregiña da. Nik
erriko platzan lan au egingo dot.

Eta nik lan ber-bera kale baztertxuetan Alan da ze, izeko Bolera zeregiñi onetan asi
gaitezan.

Aurrera ba, Kardona!

Barriro kanpadorreko kanpaiak mezara deika dagoz, mezea emoteko sasoia da,
ordua da, ta Kardona pozez, atsegiñez, eskuak igortzen aldatzen da.

III

Platzàrantz, erriko platzarantz, andra-gizon aldra izugarritzkoa doa, gero bertatik
mezea entzuten eleizara sartzeko asmuz. An da, bertan da, izeko Bolera, Bartolon
kapela dagon balboa aditu-eraziz, bertatik igaroten diran andra ta gizon guztiei izku-
tuki, izkutuan berba, itz egiten. Alkatea ta bere alabea be euren egoitzatik urteten
dira, Geromak bere burua zazpi bateaz estaltzen dau.

Alkatea ta bere alabea alkar-izketan doaz.

Josus, aita, zelan alengitzen zara leenengo mezara joaten!

Maltzur ori, zer gura, nai dozu, mezea entzun gabe geratu naiten, gero erritarrak udalzaifari bezela, osaba "No hay Dios" esan.

Orduan zoaz meza nagusira.

Ez dot gura, gaur udal-etxean soldadizkarako mutilen zozketa da, ta bertan udalgizonak nire begira egongo dira.

Guda-mutilen zozketa gaur zortzi da.

Zer dakizu zuk, barritsu ori!

Beti izan da olan eta.

Bai egia da, legeak olan agintzen dau, baiña emengo udal-agintariiek gaur egitea erabagi dabe, ta egun orretan, au da gaur zortzi, egifa ba zan bezela ezartzea, egun orretarako data, fetxea ipiñiz. Madriletik etorriko dan jaun ospetsuak deiturik, erriko agintariiek jan-edan zoragarri batera joango gara.

Legea betetzeko era polita!

Ze lege ta lege bako! Errietan olako lelokeriak, baztertu egiten doguz.

Orduan ederto, zoaz zu, zeu bakarrik leenengo mezara, ba da ni meza nagusirako geratzen naz.

Bai, bai, maltzur ori ulertzen dot! Zu mezara zeu bakar-bakarrik joaten nai dozu, gero ergel, keto orregaz alkar-izketan jarduntzeko. Ez, mirail, ispilu orretan ez zara ikusiko. Bein baiña geiagotan, Kardonagaz eskondu bear dozula esan dautsut, erriko mutilik azkarrena da ta.

Eta zuek, gizonezkook, zuen azkar, jakitun izate ori, zetarako dozue?

Ixildu zaitetz, barritsu ori miña erauzi, guzterkatuko dautsut eta! Ni jakitun, azkarrara izango ez banintz, bein baiña geiagotan etsipetuko ninduzun, ez da egia?

Gura, nai baneu berori etsipetzea...

Zuk ni etsipetu! Ain errez ikusten dozu, ala?...

Ba ni Kardonagaz ez naz eskonduko, nik Bartoloaz eskondu nai dot, eta eskonduko naz.

Bartolo lelo, ergel, keto bat ba da.

Ene! Mezarako irugarren deadarra da! Goazen mezara!

Eleizara buruko zapi barik sartuko naz!

Ze buruko zapi ta zortzi lauko... Errietan olako ergelkeriak baztertu egiten doguz.

Ala goazen, goazen maltzur ori! Azkenean zure erruz errian "osaba No Hay Dios" ezi-zena ezarriko dauste.

Alkatea eleizarantz arifieketan abiatzen da, ta ertz bat igarotean, bere alabeak beste kale batetik iges egiten dau, oiuka iñoala:

Bai, bai, zugaitik Bartolo ikusi barik geratuko nintzan, joan dan lganetik ona, beragaz ez naz egon eta!

Kale beratatik, nezkatilatxua joian kale ber-beratatik, ara non, Bartolo guztiz atsekabetuta, bere buruaz berbetan, ergel, leloak egiten daben lez, non agertzen dan.

Demontrez, arraioa, ludi zabala izango da, baiña niri jazoten jatazanak beste bateri ez jakoz jazoko. Iltea be, norbera iltea be, ergel, keto bat izatea baiña oba da.

Geroma ikustean, berari uko egiten dautsan poz-aldi, atsegifaren bila arifieketan doa, ta nezkatilatxua besarkaturik, dirautso:

Aaii nire biotzeko Geroma maitea, ze zori-gaiztoa gurea!

Ala, ala, astokillo ori, zezen bat besarkatu eizu, eta astanduz, baztertuz, izarrak be ikusi-azoten dautsan belarrondoko izugarri bat emonez, eskatilatxuak, erantzuten dautsa.

Ji! Ji! Ji! Bartolok zispuruka diñautso:

Zugandik olako agurtzerik ez neban itxaroten.

Neskatil andra-gai bat zergaitik besarkatu bear dozu, zuk?

Baiña andratxua, ergel, keto bat nazan ezkerero, ez dakizu ba, zer egiten dodan ez dakidala?

Ba eskontzen garan orduan, neuk zurtu, azkartuko zaitut.

Bai, baiña zelan arraio eskonduko gara ba. Ortik zabaltzen doan azpikeri, guzur ori, zure aitaren belarrietara eltzen ba da, betirako, neure bizi osorako espeteratuko neu ta!

Aaii Bartolo nire biotzekoa! Ze guzur, azpikeri da ori, ba?

Demoniñoa, zein izango da ba! Bart zure logelara balkoitik igon dodala.

Egia da ori, egiz diraustazu ori?

Neu ergel, keto bat nazala ain zuzen be, egia da ori.

Eta guk orain zer egin geinke ori guzurtatzeko?

Orretan platzatik zear, mutil gazte bat, bertso batzuk abesten doa, eta Bartolok abesti orrek entzuten dauz. Bartolon eretxiz bertso oneik, euren daben amezkaria galdu ez dagien, arik eta egun batzuk igaroarte erritarrak ez leukiezela entzun, uste dau.

Demoniñe, arraioa, une onetan ze burutasun txantxagarria dot!, bertsoak entzutean, gabonetako zozketa nagusia beraganatu eban be ez pozago, Bartolok, iñoan.

Eta zer da ori?

Ez dirautsut, ba da nigaz asarratu egingo zintzakez.

Mezea entzutetik, eleizan sartu zan gendetzea, eleispean agertzen da.

Ene bada, gure aitak ikusiko gaitu! Geromak esan eban, bereala arifieketan bere etxerantz abiatuz.

Geromatxu, maite nozu?

Bai, maite zaitut.

Bai, maite zaitut.

Orduan, agur.

Agur.

Eta bikotea badandurik, bakoitza bere bidean doa.

Bartolo ariñeketan igeska doala, udalzaiñagaz topo egiten dau, ta onek diñotso:

Bartolo, ba dakit bart oben guztiz astun bat egin dozula! Aditu eizu Jaungokoa dago!

Udal-zaiñak bere bidean jarraitzen dau.

Udaletxeko arkupetan erritar mutilen, kintopetakoen zozketaren asiera zan, baiña naizta gertaera au erritar guztientzat garrantsi aundikoa izan, ardura-gabe ziran. Beste jazokisun bat, euren alkar-izketa, obeto esanda euren marmarratzearen gaia beste gertaera bat zan, eta ondiño Bartolon kapela balkoi ganean ikusirik, barre egiten eben.

Bartolo arkupetik negar baten bazterten da, aldentzen da, bere negarraren zioa, soldadizkako zozketa aretan, laugarren zenbakia atera ebala zan. Ostera Kardona apur bat geroago arkupe beratatatik guztiz alai, pozez beterik agertzen da. urte aretan erritik lau mutil kinto joan bear ebenak izanik, eta berak. Kardonak, bostgaren zenbakia atera eban ezkerre, zeregiñ au betetzera ez, eban joan bear.

Antza danetik, soldadizkea, gudarostea, gazteentzat eta baita be adifnekoentzat, ez da izan ifioiz atsegingarria.

Udal-gizonak amaikatakotxu bat artzen alderatzen dira, au da, Valdespeñako ardao apur bat, lukinka ta ogi zatitxu batzukaz lagun zirala.

Alkateak leenengo zurrutadea egin eban orduko, Valdespeñako ardao pozo biurtu ba jalon bezelako aurpegia ipiñi eban. Baiña zergaitik? Azkanean bere belarrietara be eldu zan, erritar guztiek ekiena. Bere alabeak bere alke, izen-ona galdu ebala, obeto esanda, bart Bartolok galduazo eutsolako, ta gertaera au baiztatzen eban, bere kapela, Bartolon kapela, ondiño alkatearen etxeko balkoian aurkitzen zala, zan.

Osaba "No hay Dios"!, oiuka, su-asarre bitzetan diño: Bereala, beingo baten, atxilotu bedi maltzur ori, ta ukondo bietatik lotura gogorrez lotuta aurkeztu eidazu emen berton.

Agindu au, udal-zaiñak txistu baño ariñago bete eban, eta erritar geinak, Kardona tarteko, kide zala, ergel, keto a atxilotuta ikusirik, ariñeketan doaz udal-etxerantz.

Bartolo!, oiuka udal-zaiñak atxilotuari dirautso; okerkeri bat egin ba dozu, ez eizu ukatu. Aditu eizu, Jaungoikoa dagola! Bartolo!, oiuka berea be, diño alkateak, ez da egia bart nire etxe, egoitzara ez zintzala sartu? Ez da egia, nire alabearen dedu, izen ontzaz errian zabaldu dan guztia gezur-irain, laido uts utsa dala?

Alkate jauna, keto, ezjakifiak, ifioan, bart jazozan guzti-guztia, ementxe, berton berorregi esango dausat.

Egi-egia esan eidazu!

Ez dot esango ba, arraioa!

Asi zaitex ba itz, berba egiten, ba da zure azalpena entzutean, kintokaz jardun bear dogu ta.

Ba jauna, bart Geroman logelako balkoipetik igarotean, bereala bururatu jatan: "ori bero-berrotan egongo da, baiña deabrua!, lotan ba da izartu daitela". Lurretik arri kozkor bat artzen dot eta bakoira jaurtirik, Geroma atorra utsetan agertzen dan...

A ze zapladak, maltzur ziztrin ori!

Lizunkeriek esaten asi nintzan, eta berak barreka ifioan: "gizonezkook biragarro onak zagoze, bai". Ara kapela, kapelean mozutxu bat bialdu eistazu ta bereala alden-duko naz, ba emen baen izugarrizko aize otzdun bat da ta luzaro ezin neinkete egon.

Bartolo, dirauts berak, igon nai dozu?

Ez, ez, zure aita konturatzen ba da, entzuten ba gaitu...

Nire aita, erantzuten daust, txarritzar bat bezela, lo zurrunka dago...

Txarritzar bat ni!

Nik zer dakit ba! berak olan esan eban eta. Onetan, igon eizu, ez dot igon nai, zure aita..., non diñastan:

Atea idegitera noa.
 Eta idegi eban?
 Bai ondo be, arraioa, idegi eban bai!
 Ama auntz baten alabea!
 Geldiro, geldiro diñozunagaz, bere aita zara ta!
 Orduan idegi eban maltzur orrek?
 Ez dautsut esan baiezt ba, gizona?
 Eta zuk zer egin zenduan?
 Ara ze galdera, itaun ganorabakoa; ergel, keto bat nazan ezkeru, zuenean sartu nintzan.
 Eta igon ziñan?
 Bakloitik jaitsi nintzan.
 Aaaa! zantar maltzur ori, zelako espetxeratzea izango dozun!
 Bai zera!
 Zelako "bai zera"? Legepean zagoz, ez dozu urten, irten biderik.
 Legeek nigaz ez dabe zer ikusirik.
 Zergaitik ez, zital, arlote ori?
 Keto, ezjakin bat nazalako.
 Neuk jakitun-azoko zaitut, iñoren egointzan gabeko ordu-azkenetan sartzea...!
 Errietan olako burugabekeriek baztertzen dira.
 Udal-zaiña! maltzur, zital au atxilotu eizu.
 Nigana urreratzen ba da, emongo dautsadan ukubilkadeaz muzturrak apurtuko dautsadaz.
 Zuzenbidea lagundu, udalzaiña lagundu!
 Kardona ta beste mutil erritar batzuk lagun izanik, danan artean, Bartolo lotu, atxilotu dabe, baiña udalzaiñarentzat, joiazan ukubilka bik, Kardonan aupegia aurkitu eben, bere aurpegian topo, jo eben.

IV

Emen dator orain alkatearen bakar-izketa bat. Jost-irudi, komedietan ez dira izaten guztiz gaizki begiratuak, bardin zamar jazoten da liburetako eskein-itzak ministro, agintarientzat diranean. Baiña, ala ba doa, ia deabruak largarritzazko elertia, beragaz eroaten ba dau.

Txakur eta katuek be, ergel, keto ori, bart nire egoitzan sartu zintzala ba dakie. Beraz katu ta txakurrek be auzi onetan aurkako aitorleak izango litzakez, eta maltzur ori espetxeratzea guztiz erreza izango litzaket. Bai, zuzen ba, zin egiten dot, maltzur, zital orrek bere azurrak espetxe anbatan ikusiko dauz, eta laster.

Apur bat leenago, aurrerago, aitatu dogun mutil bertso-irakurle, abeslea, barrero bertso ber-bera abestuz agertzen da. Erritarren ameskeria orain ezingo geinke lez

ezereztu, ez da eragozpenik mutilak abesten dauana, erritarrek jakin dagien. Mutilen abestiak olan diño:

Nezkatil bat etsipetu dauanak
Salomon jakitunak diño
Beragaz eskontzen ez ba da
Jaungoikoaren parkamena ez dau izango.

Bertso oneik, leen Bartolon adimen iluna argiratu ba eban, oraingoan alkatearen adimen argi-gabea argitzen dau. Alan da ze, gure antzerkirako bertso onek balio-tsua dira.

Baiña argitasun onegaz, zergaitik Kardonaren adimenaaz be ez zan jabetu? Kardona erritar jakitun, buru-argikoena ez balitz, erriko lelo, ezjakitunentzat izango geunke. Baiña alkar-izketa barritsu alde batera bazterturik, alkatearen bakar-izketara joan gaitazan.

Baiña, astokiloa ni, zelan ergel, keto ori espetxeratuko dot, alabearrez nire suiña ba da! Nire egoitzan, sendian izan dan izen-on galtzea, barriz eskuratzeko; urten bide, irten bide, bakarra nire alabea maltzur orregaz eskontzea da. Bai, eskonduko da, zin egiten dot. Osaba "No hay Dios! Osaba No Hay Dios!"

Osaba "no hay Dios" agertzen da.

Bartolo espetxetik atera eizu, ta nire aurrera ekarri eistazu.

Osaba "No hay Dios"ek agindu au bereala betetzen dau, ta erritarrek ergel, keto a arkupera ateratzen dabela ikusirik, bertan moltsotu ziran.

Bartolo! garratz eta oiuka alkateak, diño: nezkatil bat laidotzen dauan mutila, beragaz eskontzen ez ba da, gizonena, gizartearena, ezeze Jaungoikoaren parkamenik be ez dau izango.

Nik be bardin bardin deritxat jauna, Bartolok erantzun eutsan.

Orduan ederto, nire alabeaz eskonduko zara.

Poz-pozik jauna ta gogotsu.

Ori ez, demoniñe, zezen bat birturik, Kardoñak iñoan. Geromaaz eskonduko dana, neu naz.

Ezin leiteke, eziña da, alkateak difiotso.

Emakume bat zaintze, jagotea zer dan, barreka, mar-mar, lelo bat iruditurik, Bartolok iñoan.

Jakin bedi berorrek eta baita be emen bertan aurkez dagozanak, Geromaren logelako balkoira igotea, Bartolok balkoira igotea, neuk izeko Bolera lagun izanik, asmatuko gertaera bat da.

Orduan zu ta Bolera, izeko Bolera, ladoitzaleak izan zarielako, espetxeratuko zaituet.

Bertan aurkitzen ziran guztia, txaloka asi ziran.

Arraio, arraioa, au be niri jazo bear!

Zuk diraustasuna batzuk siñistuko dabe, baiña beste batzuk bear bada eztabaidan geratuko dira, ta orrelan jazo ez daiten, nire alaba Geroma Bartoloaz eskonduko da.

Baiña nigaz eskondu ezkeru, dana geratzen da zuzenduta, Bartolok iñoan Bietatik bat uts-utsean izanik, nire suintzat duiña ez zara.

Batzarkide guztiak Kardonaren aurka txistuka ta oiuka asi ziran, eta au bere arazoa ain ilun ikusirik, burua makur, txakurkeri ta irain itzak mar-martuz, aldendu zan.

Eeee Kardona! Bera egoan lekutik izeko Bolerak oiuka deitu eutsan:

Orduan zure ortuko igali-zugatz guztiak niretzat izango dirala, ados gara ez?

Ez, ez, ni ez naz eretxi bardiñekoa, etsi etsi eginda, Bartolok erantzuen dautsa.

Zergaitik ez, semetxu?

Euratan neure burua urkatzeko bear dodazalako.

Aurrez aurrez egozan batzarkide guztiak, Kardonan erabagi txalotu eben. Aaaa keto, ez jakin aundia...!

Gudaritzarako zozketa asi da.

Leenengo iru zembakiak, gudaritzarako gauza dira.

Lau zembakia!, idazlariak oiuka esan eban, eta berala Bartolo aurkeztu zan.

Ba dau berorrek gudaritzarako eragozpenik? idazlariak itaundu eutsan.

Bai jauna, ezjakiña, keto bat nazala, Bartolon erantzuna izan zan.

Alkate ta udal-gizonak arazo au azterkatzen saiatzen dira, ta azkenean, Bartolo gudaritzarako ez dala gauza, ez dauala balio, ta beraz beste bat, beste zembaki bat agertu bear zala, erabagiten dabe.

Bost zembakia! barriro idazlariak oiuka diño, ta oraingoan Kardona etsimenduta, buruko ule, ileak zuzterkatzen, aurkezten da.

Ba dau berorrek gudaritzarako eragozpenik?, idazlariak oitura zan lez, itaundu eutsan.

Bai jauna, astokilotan astokiloena nazala, ezjakin, keto utsa nazala, Kardonak uste osoan, ustekeriz, erantzun eban.

Udal-gizon guztiak eta batzarkideak be, barreka asi ziran, bitartean euren baitan iñoela: ze mutil maltzur, biurria!

Bere gurari, naiaren aurka, Kardona gudaritzarako gauza zala, erabagi eben. Sorbalda ganean izkilu, fusila, eroetako balio ebala.

Demoniñe, arraioa! bere burua ukubillkadaka astintzen eban bitartean. Kardonak, sei zembakiduna deitu dagiela, iñoan; ba da nik, bereala ergel ori garbituko dot, ilgo dot, eta nire burua neure ortuko zugatz baten, urkatuko dot.

Barriro batzarkide guztiak, barrera, txaloka ziran.

Osaba "No hay Dios"! kinto ori, arik eta gudaritzara eroateko eguna eldu arte, espetxeratu eizu, oiuka alkateak, iñoan.

Ez zan izan arazo erreza Kardona menperatzea, basa-katu baten trebetasunaz bere burua babesten eban, baiña azkenean udal-zaiña, Bartolo ta beste gazte erritar batzuk lagun zirala, lotu ta atxilotu eben.

Kardona!, udalzaiñak, ukarain-burdiñak ezartzen, ixilean diñotso: Jaungoikoa dago!

Ondo be ondo-dakit ori!, Kardonak, oraingoan bigunki, erantzun eban.

V

Jost-antzerki onek bere laburpen eta guzti dau, eta orrek esan nai dau, on-ona dala. Antzerki onak ain urriak diran ezkerro, buruzagi anbatek antzertu edo idazle anbatek beraganatzen ez ba dau, miraria izango da, baiña olako ausarta anbat ageritzen ba da, legepean eurak ezarrita, egileak izorratu dagizala!

Laburpena amabost egun geroago da.

Kardona erriko beste kintoakaz, gudaritza betetzen joateko, erritik urteten da. Bere ortu albotik aldamenetik igarotean, igali-zugaizari gegiraturuz, guztiz kezkatu, atsekabetuta doa, bertan egozan zugaiztariko baten bere burua urkatzeko aukerarik izan ez daualako.

Geroma ta Bartolo eskondu ondoren, eleizpean dagoz. Orain bai, ergel, keto ori, alkatearen etxean sartuko da!

Eskon-barrien lagun diran andra-gizon aldra artean, osaba "No hay Dios" ikusten da.

Bartolo!, udal-zaiñak oiuka iñoan; maixelaria zigortua izan da, ta errugabea sari-tua. Gertaera onek, Jaungoikoa ba dagola baieztatzen dau.

Bai, Bartolok erantzun, zuzen be orexegaitik kezka, biotz-min bat dot.

Zein?

Kardona gudaritzara doa, neu, lelo, ezjakiña nazala azaldu nebalako.

Eta zarala, uste dozu, ala?

Sumatzen dot.

Neuk be, Kardona baño azkar, zuurragoa zarala, sumatzen dot.

ILDAKO BATEN GOMUTAPENAK

Erauskin molso baten aurrean zer sentitzen dodan azaltzera ez naz iñoiz saiatu, ba da nigan eragiten daben sendipen, idarokitzea ain ilun, ain izkutuki, ain sakon, biotz-barnekoa da, ta ez uri edo oroigarri ospetsuak zio izanik uts-utsean, baita be txabola apal, txiro baten erauskiñak. Euratzaz azalpen bat egitea be, guztiz argi azal- tzea, eziñekoa deritxat.

Atzo basetxe-erri txiro bat zearkatu neban, eta bertan ezer aintzakotzat artzeko ez neban ikusi, zuzen be guztia zan arrunt, giro edozein beste erri bezelako; etxeak, egoitzak, kondaira, oiturak, grifñak, gizasemeak, guztia guztiz arrunt eretxi jatan, eta egia alan zan. Baiña gaur erritxu ber-beratatik igarotean eta bertan erauskin bakar batzuk uts utsean aurkitzean, biotz-goibel eta azaldu eziñeko sendipen bateaz artega, urduri, adi-adi eurak begiratzen gertu naz.

Erauskiñak nigan sortzen daben biotz-eragiña, ez dakit oiñaze ala jakin-miña dan; baiña nire biotz-barnean, nire arima, gogoan zerbait ilun, laiño, ituna, mendiska biz- karra azken eguzki-izpiak sartaldean urre margozten ikusten dogunean, senditzen dogun aiñako arima-eragin bat dala ziur naz.

Andrazko txiro batek, bere biotzean sendipen ugari izanak eraginda, zerbait esa- ten dakiñak "LARROSA MARGODUN IPUIÑAK" liburutxuan agertzen diran ipuiñeta- riko baten diño:

"Aaa Jauna, ze tamal, naigabetsua da egoitz bat utsik, etxe su-gabe bat, ondatuta ikustea! Ibai bazterrean dagon errota ondatu orren albotik, nire seme ta biok igaro- tean, gure begietan negar-malkoak agertzen dira sute, sukaldeko su-keak eraginda baltzitutako ormak, otz, bakardadean ondiño bertan irauntzen dauan aulki, jezarleku arek, orman aizto edo burduntzi anbateaz egindako izki areik, eta leioa alboan ondiño

ikusten dira untze ugertuak, zer ikusia dabe, bai, gure negar-malkoakaz, eta ez gitxi. Bai guzti oneik, gure begietako ezotasunaz, zer ikusi berezia dabe”.

Baleiteke, bear ba da itz, berba oneitan, erauskiñek biotz-barnean sortzen dauan sendipen ilun, adierazi-eziñakoen erantzuna berba, itz, oneitan, barrero difiot, izatea. Asaoko, urrunekoa, eder eta iluna bat-batera da, orregaitik gogoketak, ederrak eta goibelak dira.

Zer dira ba erauskiñak, gogoragarri utsak ezik?

II

Orain edestuko dodana, ez da ipuiña, egia osoa da, askoz be oba dana.

Egun baten nire adiskide ta biok, Kastilla Barriko mapa bat azterkatzen gengoan, arteroko mendean egindako erri-bideak, zuzen be, ziran.

Zelakoa da erri au? Gaudarrama ibai sortaldean agertzen zan, Salcedon de los Canales, atzamarraz erakutziz, itaundu neutsan.

Ori, nire lagunak esan eustan, iltzat, iltzat izan eizu, ilen artean izan eizu. Ildakoen bezela edestu eizu.

Mezutzaille izendatu ninduan nire laguna ederretsita naian, berton, zelan Salcedon de los Canales erri errukigarria il zan, eta zelan bere aitzatutako erauskiñen ganean negar egin neban, edestuko dot.

Madrilletik lau legu bitartean, irureun bat biztanle ebazan errixu bat, Salcedon de los Canales eritxona, izan zan.

Salcedon'eko biztanleak, Salcedontarrek, antzi-antziñatik, betirik, ibaia eragozpen gabe bere bidean jarraitu al egian, bera, ibaia, laguntzen saiatzen ziran, zeregiñ au oiturazkoazan. Ibaiak bere aldetik, bere bazterrean, ibai bazterrean, Saltzedotarrek lantzen ebezan ortu ta solo emankorrek erazotu-gabetzea, eta erri gaizto, berun, alper edo ibaia aurrera jarraitu dagian oztopoak ezartzen dautsazanei sigortzeko, beragaz eroaten dauazan sugar-erenetariko anbat urira igon dagian ez zillegituz, bere eskerona agertzen eutsen.

Mende onen asieran, Salcedotarrek jakitasun-igalia daztatu eben, au da, ibaiak izen arabiarra ebala jakin eben, eta goi-matasuna, karitatea muga-gabea dala gogoratu, kontuan izan barik, bereala siñismengabei laguntza ukatu eutsen.

Gudarrama ibaiak, bere bidalian aurrera jarraitzen galazoten eutsoen areazko ormak gaiñeratu al izateko, sekulako alegiñak egin ebazan, eta izugarrizko orrokadakaz uriko biztanlei, bere laguntzen etorri eitezan, dei egin eutsen. Baiña uritarrek euren laguntza ukatuz, anaitasunezko zeregin au betetzen ez ziran jaitsi. Orduan ibaiak su- asarrez aran, ibarreko ortu loratsuetan sarturik, guztia ezereztu eban, zugaitzak mostu ta barazkiak uzteldu. Orrez ganera beregaz eroan sukar-eren erlatza azkaturik, au ibar, aranera zear joanez, uria menperatu ta bertako biztanleekaz izugarrizko gogorkeriak egin ebazan.

Mila ta zortzireunde amazapzi inguruan, Salcedon de Canales Españako estadistika mapetan, lurralde biztanle-gabe, eremu bezela agertzen zan, eta bere erri-argiritegia Villaviciosa de Ondon-egaz batera, uri onegaz alkartuta, bertan aurkitzen zan.

Urte luzeetan, urte askotan, luzaro, erri alai ta zoriontsu, mende luzeetan izan zan erri alai ta zoriontsu onen kondaira, oitura ta beste gora-bera batzuk jakin naian, erri-argitegira biztanle bat be ez zan aurkeztu.

Mila ta zortzireunde amazortzian, erri aretako erri-argiterian ikerketa batzuk egiteko asmuz, Villaviciosara joan nintzan. Madrilletik urtekeran, Salcedoneko azken alkatea, Segoviako zubi alboan txabola txiro, errukigarria baten arrats, mistoak, eta beste gauza batzuk saltzen, bere bizi-bide negargarria ebala, jakin neban.

Eta alan zan, bertan, Salcedon izena aitatu nebanean, bat-batean bere begiak negar-malkoz ezotu jakozan aguretxu bateaz, aurkitu nintzan.

Salcedonetik azkenengo aldendu zana, neu naz!, erbesteratua izan dana, ta bere aberrira itzuliko ez dala ziur danaren samintasan sakonenagaz, esan eustan.

Eta berori ez da bertara iñoiz itzuli?

Iñoiz be ez!

Eta zergaitik?

Bertara eldutean, bat-batean ilgo nintzakelako; erri aretan, nire aita-amak, nire andrea, nire seme-alabak, nire anai-arrebak eta nire danak adiskide, betirako atsedentzen izanik, larrosa ta zipretzakaz apainduta izan zan, egoan, ilobitegia, orain an, bertan ez dalako aurkitzen!

Aguretxu aren samintasan, biotz-miña ulertzen neban; bai, ta nire bidalian goibel, oidozkor jarraitu neban. Neu be bardin zamar nintzan, aguretxua bezela erbesteratua zan bat, an urrunean, asao, jaiotze ibarretik guztiz asao, urrun, biotz-biotzez maite nebazan izaki asko lotan dagozan, eta bear ba da, beratan nire betirako atsedean lekuan izan leiteke ilobi toki bat ikusten neban!

III

Sacedon de Canales non dago?, Villaviciosa gaintzen dauan mendiska batera eldutean, zaldi-burdi gidariari galdetu neutsan.

An, be-bean, aran onen beste aldean, zugaitzez erdi estaldurik, ibairañño jaitsiten dan ibarzka, nabaila, bat ikusten dozu?, zaldi-burdi gidariak sartalderantz begiraturaz, esan eustan.

Bai.

Ba, sakan, troka, axe da.

Bañña Sacedon, non dago?

Sakana, troka aretan egon ei zan.

Eta erriaren ezer ez da geratzen?

Ezer ez dala geratzen, kontuan eizu. Beintzat berezirik, ezer be ez.
Zugaitzen alboan, eskumara, zerbait, zeozar nabaitzen dala, uste dot.
Bertako eleizearen dorrea da, uts-utsean orixe geratzen da.
Eta erria egon zan lekuari, lurralde areri, "Illaren Sakana" zergaitik deritxoe!
Erria ilda dalako, uste dot, izango dala.

Zaldi-burdi gidariaren logika entzutean, irribarretxu bat egin neban, eta egia esan, etimologista askok erabilten dabena, naizta arrokeriz buru jakitun agertu, sarritan lojika epel, makalagoa izaten da. Egun aretan Sacedon de Canales nire burutik baztertua izan zan.

Biramonean bertako erri-argitegira joan nintzan eta gela aretako bazter, toki, okullu ilunenean, guztiz aitzuta, bazterturik, autz eta amaraun, armiarma-sarez inguratuta, Sacedoneri egokiozan paperxortak ikusirik, ez dakit zelako senditzen miragarri bat nigan sortu zan; uste neban, uri ondatu aren espiritua, gaitasun bezela ez zala il, eta berantzat espetxe ta abaro ziran paper-txorta areitatik, beragan errukitu gaitzezala, eskatzen ebal.

Sacedonen leen-agiriak zortzi egun begiztatzten, arakatzten egon, saiatu nintzan. Bere biztanle, bere plazak, lurralde, bere asarre ta eztabaidak, bere jai ta ileta, ta eleizkisunak, bera maitetasun eta bere zorigaitzak, au da bere bizitza ta arazo guztia-kaz ain barneraturik izanik, bere izena be, negar egin gabe esan ezin eban aguretxua bezela, Sacedonen neure bizi osoan bizi izan nintzala, ta beráz orrexegaitik ezagutzen nebala, uste neban.

Arrast, arratsalde baten Gudarramako bidean, bidegilea nintzan. Bide arek, zabor, erauskiñek, nigan sortzen dabten sendipen muga-gabea nire barnean bizkortzen asi zan, ba da beratan, bide aretan, sasi ta bedar jaun eta jabe ziran bide aretan, antziña baten bide zabal eta maiztatu izan zala argi agertzen ebana, orain bide-zior, estu, basamortu bat zan.

Aldi baten, sasoi baten, bidea Salcedonerako bidea zan, eta gaur egun bertatik "Illaren Sakanera" uts-utsean joan eitekean.

Orduan, une aretan, nire umetxutako, aurtzoroko gogoketa bat bururatu jatan.

Nire errian, nire basetxe-errian, larra orlegi, ezo bat tarteko izanik, basetxe bi egozan. Neskatiñ lirain eta mutil gazte, jaseko, alkar-maitamendurik ziran bikote baten egoitza ziran. Sarritan eta luzaro alkar ikustera joanez bide-zior bat sortu eben. Mutil gaztea il zan, eta amabost bat egun geroago barriri bedarra erne, sorturik, bidearen lorratzik be ez zan.

Beste aldi baten Sacedon de Canales eta Villaviciosa de Odon'erako zan bide bakarra ibiliaz, beratetik igarotean, au izan zan bururatu jatan oroimen guztia.

IV

Arrasti, Arratsaldea, erauskiñek idarokitzen eben sendipen aifñako gogai, goibel eta iluna zan.

Guadarrama ibai bazterrera eldu nintzan, eta an aurrez-aurrezko bete bazterrean, an bertan, aldi baten ortu ta zugaizti eze, emankorrak edatzen ziran lurralde aretan, antzira, osin pozoitsu ta ietegi alperrikoak uts-utsean aurkitu nebazan.

Ibai saratsu, suminkor zan. Beste aldi baten ain emankor izan zan aran, ibar aretako lurrak menperatuaz, ibarra betirako zorigaiztoko bat egitiñik, naiko izango ez ba zan bezela, su-asarren jarduten eban.

Bakardade, eremu aretan geratzean, bat be atsegintsu ez ikusirik, aran, ibar, gorantz abiartu nintzan.

Nire bidalian irureun bat oinkada ez nebazan emongo, nire gogoan azkenengo zortzi egunak bizi izan ziran uri a bilatu naian, nire begiek jaso nebazan, eta ingurua, lurralde arek, beste aldi, sasoi, baten bizia ta alaitasuna jaun eta jabe izan ziran toki areitan bakardadea uts-utsean ikusirik, nire biotza lertu jatan.

Aaii! Egoitz itzal, muga-gabeko, otz, goibel, eremu bat zan, nire begien aurrean agertzen zana!

Nire eskumara arri, zabor eta erauzkiñen artean, nekez erne al izan ziran lazto batzukaz solo bat, eta soloaren erdi-erdian, kurutz eta kanpai-gabedun kanpadorre bat, ludi ta zerurako alperrikoa zan kanpadorrea, sifisimen eta maitasun gabeko biotz bat dan bezela.

Ezkerrera, sasiarte naspilatuek eta euran artean, zaartzaro ta uzte, babes-gabeak, eta bear ba da, baita be, nire Jaun eta Jaungoikoa; jai egun alaietan euren kerizpean, euren babespean izan ziran maitasun gogoratuaz, guztiz akiturik, uzkuriturik ziran ezki batzuk, agertzen ziran.

Nire eskumara, mika batzun oiua, karraskadak, eta nire ezkerretara, errekatxu baten zurrumurrak, nekazarien golde baten, euren azken eggoitza goldezkatu ta laidoturik, kezkatzen ziran ileen abots erostari, negartia iruditen jatan.

Ondo egiten dozu, oiuka niñoa, ondo egiten dozu Segovia zubiko agure erruki-garri orrek, bakar-leku, eremu onetara itzuli ezteaz, ba da bakardade oneik oiuka diño: "Aaa, zuek, emendik igaroten zarienok, ikusi eizue, begiratu eizue, gure aifako samin, oiñazerik ba dago".

Eleiz erauzkin ganean, erauzkin deunen ganean, belaunikoturik, negar eta otoiitz egin neban.

Orduan, une aretan, nire biotzean senditzen nebana zetarako azaldu: biotz-gabeak ezelan be ezingo dabe ulertu, ta biotz-dunak azaldu barik be ulertzen dabe ta!

Gero nire esker-aldean egoan sartraka, sasiarte baten barneratu nintzan, errekatxuak, goibel itun zurrumurruten eban inguruan, zuzen be "Illaren sakanean"! Nik, Villaviciosako argiritegian jagon, zaintzen diran paper artean, onelako jazokisunak, gertaerak, irakurri dodaz: (Antonio Truebak idazten dauan bezela, zeazt-zeatz ezarriko dot)" E otro si dio que la querella acaesció en la alameda allende el arroyo, do es fuentecita de la villa, e do se ayuntzan loz mozoz é mozaz las tardes de disanto para solazar...". Iturritxu, erriko iturritxuan nire espanak ozkirritu gura nebazan, eta inguru aretako neskati gazteak jai egunetako arratsaldeetan, arrastietan, jolasten ziran zumureetan, jezarri nai neban.

Baiña, ur-batu lupetsu, zikin batzuk, eta euren inguruetan zumur enbor batzuk purruskatuta, uts utsean, aurkitu nebazan!

Orduan biotz-ikaraz nekatuta, nire begi ezotuak lurerantz makurturik, Jaungoikoagan biotza jaso, Baragan ezarririk, ludi au bere iragankor ondoren, zero amaibeko izango ez balitz, ze neketsu, goibel izango litzaken gogoratuz, gogoketa oneik nire baitan izanik, guztiz goibel, itun "Ilaren Sakana"tik berantz joan nintzan.

LOZOYA

I

Kanporatu eban bularra ibaiak, eta onelan itz, berba, egin eban. (Fr. Luis de León-Prof. del Tajo)

Urza bera baño be ezkirriago ta zidarra aiñako zuri, mendistartxu Lozoya saltuka, otzangaitz, millaka deabrukeri Oliva aran, ibar, baketsuan egiñik, zearkatzen eban; baiña ara non, mila ta zortzireunde berrogeta-amabigarren urtean, madrillar zaldun batzukaz topo egiñik, oneik zer diñotsen:

Gelditu zaitetz or, lagun maitea! Erregiñaren agindu bat dakargu, au da, berori atxilotu ta Madrillera eroatea.

Joan bedi inpernura! Lozoyak bere urratsak, oinkadak gelditu gabe, erantzun eutsen. Erregiña zein Madrillgaz, zer dot nik ze ikusirik?

Ori ez da gure ardurea. Berori gelditu bedi, ta ez bedi ibili txantxetan. Gu morroi, otsein, batzuk baño ez gara, ta agintarien aginduak bete bear doguz.

Ba, ez nazala geldituko, barriro dirautsuet! Arrio arraioa! besterik ez litzake bear izango orixe baño. Aran, bakar-leku apalenean be, Jaungoikoan legepean, baketsu bizi ezin al izatea! Iñori kalterik egin dautsat nik, ala?

Gizona, ez zaitetz leloa izan, Madrillera ez zaituegu eroango ezer kantegarrirako, zure kaltegarriako. Campo de Guardia deritxon tokian, jauregi eder-eder bat berorentzat eraikiko dabe, Madril barnean zear, bide estaldu batzuk, burdi, notin, eguzki, euri ez aizeak ñekarazi ez dgien, egingo dabez. Uri ospetsu orretako egoitz aundiki, oparotsuenetan on-artua izango da, ta euretan egunero ta beti sartzeko baimena izango dau. Lorategi, antzoki ta jolastoki guztietan ezetariko eragozpen-gabe sartu...

Ba, gorantziak jauregi, etxe, bide, ta antzoki ta jolastoki guztiei, ba da ni ederki bizi naz, aurkitzen naz emen, eta ganera ez dot alkar-izketatarako astirik. Aitu dozue? Poztuten naz zuek ezagutzeaz.

Entzun bedi berorreki!...

Beste belarritik, onetatik ez dot entzuten eta.

Guzti au esanik, or doa Lozoya leen baño ariñago, marmar asarre, sugar, Madriltarren aurka bakar-izketan.

Isabel II alde! Madriltarrek oiuka iñoan, eta bereala atzur-aundi, pikatxoi, aizkora, palak eta abar, bildurrezko espetxeratuen aurpegidun eundaka gizon, euren eskuetan eroezela, agertu ziran. Jo emen eta kendu an eta bestean ipiñi, ezarri, azkenean, ez dakit zenbat denpora geroago, Lozoya errukigarria menperatu al izan eben eta Madriltarrak nai izan eben lekura bidaritu.

Aran, ibar, aretako biztanleek, atxilotuak berak baño be negartiago ziran. Lozoya gaitik, Closis eta bere antzeko Galateas ta beste sasiolerkari batzuk esaten dabezan burugabekeriek esan leitekez, baiña Lozoyak oinparatzen, bere urak edatzen ebazan tokietan, lora usaintsu, liluragarriek sortzen ziran, eta nezkatil menditar guztiak, Lozoya ispilu, mirail, izanik, bere uretan begiratu.

Baiña jauna, atxilotuak iñoan, Madrillen txistu baño ariñago iruntsiko nabe. Ain mizkez, ain kututasunez urestatu dodazan lora orrein usain liluragarria usaintzeko astirik be ez dot izango.

Oraingoan atxilotuen bildur, kezkar, ez ziran betetu. Madrillen zalapart, zirriparra batzuk izan ziran, euria be ugari izan zan, lur-ondatzeak an emenka ta bidea ez zan bat be egokia lanerako. Orrez ganera dirua be guztiz urri bearrak, ordaindu al izateko, ganera Madriltarrak, bere bidalia mendistarrak guztiz atsegintsu egiala, gura, nai eben.

Ile ta urteak be joan ziran eta gure Lozoya bardin-bardin aurkitzen zan, baiña azkenean, alako baten, mila ta zortzireunde berrogeta amazortziko Lorailean, goiz loratsu, alai baten, Lozoya, espetxeko atezaiñak, atxilotua purruskadaka urten naian egoan aterantz abiatuz, esan eutsan:

la ba, eldu da egun zoragarria, alan da ze, semetxu, Madrillera ta lelokeri anbat egitera ez zaitetz ausartu. Zure bidalia antolatzeko eun milloi errial baño gelago ez doguz eralgi, orain berori zabarkeriz jokatzu, Jaungoikoaren gari-lurralde orreitatik joan daiten.

Baiña jauna, bidea, beintzat diñoenetik, guztiz aldatz-gora da, ta ni ezin izango naz Madrillera eldu... Jakitun batzarrekoek eurak be euren izenpetzeaz baieztatu ba dabe.

Gizona, umekeritzen ez zaitetz saiatu, sasoi dozu, adifneko gizona zara jakiteko jakitun-batzarreko bazkidea izan leitekela ta jakitasunatzaz... porrot egin. Ori bai, Madrillera eltzeko eragozpenik ez dozula izango, zin egiten dautsut. Zu gelditu-azoteko alegin guztiak egin dabezan mendi batzuk be, zigor gogor, bereziak izan dabez, erdi bitan bananduak, idegita izan dira.

Alan da guztiz be, ni ez naz guztiz ziur, kezkatsu naz, Jakiña, nire bidali antolatzailleak atserritarrak izan ziran, eta ara, ba dakizu, atserritarrak...

Jaungoikoagaitik, zer diñostazu gizona! Españatar uts-utsak, antolatzailleek Españatar bereziak izan dira... Baiña, zure gurari, naiaaz nabaritzen naz, konturatzen naz, zure berritsukeri orregaz, asti apur bat, denpora apur bat irabasi nai dozu, baiña ni, zuk ezeze zu baño askok azkarragoak be ez nabe nekarazitzen. Ala, bizkor, urte bedi beingoan kanpora!

Au esanez batera, espetxe ate-zaiñiak, bertako atea idegi eban eta Lozoya uestegabe kanporantz abiatu zan, eta furrustadaka, zezean bat zezentokiko atea idegita dagola ikustean, urteten dauan bezela, Madrillerako bidea, oiñez baño be arifiago, bizkorrago artu eban.

Madrillera ez joian arifieketan, uri ospetsu aretara berak ain bat leen eltzea nai, gura ebalako, ez, ez bada be, zirki luraturik zan bide aretan, zirrutu anbat beratatik iges egin al izateko aurkitezah ba eban naiagaitik baño. Alan, zulotxu txikianen aurrean aurkitzen zanean, zast! beratatik iges egiten eban, baiña beti egoan bere alboan langile anbat gertu, birao ikaragarri bat lagun ebala, iñotsola:

Nora zoaz, auntz madarikatuaren seme ori?, eta arrikada edo basabustin zati batez, leenengo bidetik jarraitu-azo egiten eutsan.

Lau ordu luze bidaliz jarraiturik, berak ain maite eban ibar, aranetik, amabi legu urrun aurkitzen zan, eta Madril leenengoz ikusi al izan. Bere arreta-gabeko bidali arifieketan, bide ta kale zirkiletan egozan zabor, zikinkeri ta auts guztiak beraganatu ebazan ezkerro, guztiz asarre, su-asarre ta gorrotoz beterik, egoan. Partidor deritxon ostaetxera, Manzanares ibai arranditsu lurraldetara jaitseitean, arantxuan dagon ostaetxera eldutean, jarraigoko nagusiak oiuka iñotsan:

Gelditu! Gelditu! Ez zaitetz ain urduri, bizkor izan, jauna. Zer! Madrillen igeltsogin bat bezela sartzéa gura zenduan, ala? Itzaron eizu apur bat, ez zaitetz larritu, ba Madril uri ospetsu ta aundiki orretan sartu baño leenago, apur bat apaindu bear zaitu, gizon jaseko baten irudia izan bear dozu, ba Erregiña bera be, zuri arreta egi-tera joango da.

Baiña izan leiteke! Erregiña ber-bera be bai!

bai, jauna, Erregiña ber-bera, zure ama besotakoa. Zuzen be, gaurtik aurrera, erregezko bere izena izango dozu.

Ba, nire Erregiñari ez jako damutuko.

Zuk, zeure esker-ona agertzeko zer egingo dozu?

Zer egingo dodan? Bere jauregi-etxea inguratzen dabezana lurralde guztiak ures-tatuaz, lorategi polit, usaintsu bat biurtu.

Zuzen be, lorategiak uraren bearzen leiatsua ba dabe, bai—. Baiña itxaron eizu apurtxu bat...

Ederto, zuek gura, nai, dozue asti guztia itxarongo dot, bere zoriaz etsimendurik, erantzun eutsan. Madrillera eldukeran, bertako ardaosaltzaille ia guztiak, euren etxeak, opetziz, egiten eutsoezan txera ta gorezpen guztiakaitik baño, jakin-arazi eutsoen barri onegaz pozago zan.

Olan ederto, olan guztatzen jat!, Udal-zaiñian esan eutsan, Guztiz zuzen, errazoizkoa agertzen zaran ezkerro, geu be zugaz adikorrek izango gara. Madril, Errege-lurraldera sartzeko une ospetsu, itzaltsua eltzen dan bitartean, gura, nai, ba dozu, ibarkatxu orretara apur bat jolastu ta ozkirritzeko urten, irten eizu, baiña kontuz emendik asko urruntzeaz.

Eskerrik asko, aintzat artzen dot, bitartean bere baitan olan iñoala, Lozoyak erantzun eutsan.

Zuek nigandik apur bar urrurutzen ba zarie, ni barriro zuzen menpean izan baño

leenago, euria ugari izango da, mutilak. Erregiña niri arrera ona egitera irten, urtengo dauala, ez da niretzat sifiesgarri, ostera ni gozotu-azoteko guzur biribil-biribil bat dala, bai.

Eta alan jazo zan. Erri-zaiñak ardao zurrutada bat egitera, uragaz betuletaraño beteta egozan eta, aldendu ziran orduko, gure menditar maltzurra, apurka-apurka loratxu bat urestatzen ebala edo beste a laztantzen ebala iruditurik, astiro-astiro ibarzkatxu bera, dariola abiatu zan; beingoan, ariñeketa baten, deabrua atsetik erazoka izango ba eban bezela, Manzanares inguruko lurraldetarantz, bidean aurkitzen eban guztia porrokatu, laskituz eta bere oiñetakoetan arroba bat txatxek eroango ba bezela sarata egiñik, joian.

II

Uda aldia urreratzean Manzanares ibaia apal, atxikitsu ibilten da, baña milla ta zortzireunde berrogeta amazorkiko urtea eldukeran, zio bigaitik kezkatu egoan. Menditar gazte, zoli, mardul bat, gomendio bereziakaz, berak Errege-erriko urkaria izateko uste ebazan eskubiak beraganatu gurean, naian, Madrillera bidean eta asti labur bat barru urira elduko zala, bere belarrietara albiste au eldu jakon. Mende luzeetan Madril uriko urkari, ur-ekarlea izateko uste eban eskubidea, naizta alperrik izan, jo ta ke lortu naian, jardun eban. Egia esan, iñori ez jako guztatzen, antziñan-antziñatik beraganatuta ebala uste eban eskubide bat, kendu naian leenengo agertzen dan edozeiñ zalaprostari norberan ganetik jaso, ezarri eiten.

Manzanarez ibaiak ia iñoiz be ezin izaten dauz ertsi bere gegiak, eta batez be zubienak, baña iñoiz baño gitxiago aurrerako gaban, eta bere oizko atsekabe, ezbearren ganera ta beste kezka batzuk eraginda, bere ubide apatz, leun ganean lo zorroan konkordatuta egoan, baiña ara non, une ontan, Moncloa aldatz-gora aldetik, sarata aundi bat non entzuten dauan. Alde guztietara begiratu eban, baiña bere ikusmena guztiz arre, ilun, eban lez, ez eban ezer ikusi ta barriro bere burua lumardi apatzean, ezarri eban.

Lozoyak berak be bere ikusmena ez eban guztiz argi; bidean beraganatu eban autsa zala ta, bere begiek erdi-itsututa ebazan, eta beragaz, Manzanaresegaz topo egin arte, ez eban ikusi.

Arraio-arraioa!, Manzanaresek, beragaz topo egin ebanari zaplada bat emonez, esan eban.

Itsututa zara gizona, ala?, apur bategaitik zuurra ez daustazu apurtu. Ez zagoz zu, ez, astokillo makala, norberan gañera, ura doa esan gabe, jausten zara!

Parkatu eistazu, adiskide, Lozoyak, izerditan erantzun eutsan. Ara, atsetik erazoka jatostaz eta zugaz ez nintzan konturatu, be.

Zure atsetik erazoka, zergaitik datoz, ba?

Beingoan guztia edestuko dautsut, baiña bitartean okullu anbatan estaldu naizu, ba ikusten ba nabe, arrapatzen ba nabe, gizon galdua naz.

Zure arazo orretan, uste dot, ez nozula naastauko!, zelan da berorren izena, zelan deritxo?

Lozoya zure serbitsu osorako.

Lozoya! Maltzur, deabru ori nire aurrean, aurrez aurrez aurkeztzeko ausarta zara! Baiña zu ikusteaz poztuten naz, onelan lau edo bost egi biribil-biribilak jakinazoko dautsudaz. Olan dala ta, zu zara nire betiko eskubideak kendurik zeureganatu gura, naia dauan ergel, ketoa? Esaidazu azpikari, naastatzalle orrek, ni mende luzeetan Madrik uri ospetsua lorinduten, bere atsean ain luzaro ibili nazala, gero edozein zarrapastari, neuri deduzko jatorkidan toki berezi bat beraganatu naian ageturik, ontzat artuko dodala? Arrera kutuna egingo dautsodala, uste dozu?

Baiña jauna, ni neure nai, gurariaren aurka ba nator... (A la fuerza).

Neuk emongo dautsut indarra, maltzur, lausengari, txiki orreri... apal orreri...

Zu txikiagoa zara.

Ni txikiagoa?

Bai jauna, ba da zure txikitasunagaitik Errege-urian ez zagoz...

Bai, ni uri orretan ez nago, iñoren aurpegi-garbitzailea ez nazalako.

Zuk garbitu ezen ganera, loitu, zikindu egiten dozu.

Gizona, ez naizu iraindu, begiratu eizu bide orretatik galduazo neikezula.

Udaro ikuspegitik estaltzen, galtzen zara zu.

Ixildu zaitez gizona, ixildu, zeu itoteko gogoia sartuarazten daustazu ta ...

Zer ito bear dozu, zuk!

Uda aldian beratan be, naizta guztiz argal egon, itoten dot nik.

Bai, bai! Batzuk ur oso gitxitan itoten dira ta...

Beno, beno, baztertu dagigun alkar-izketa au, ta itzuli zaitez etorri zaran bidetik.

Bai, arraio arraioa, ez naz joango ba!, zure aundikeriakaz buruko ule, iletarango naukazu ta...

Ez zarala joango? Ona zagoz zu! (Truebak, "está V. fresco diño")

Zugaitik beste orren beste, iñok ez leuke esango.

Gizona, txistua iruntsiango ez eistazu eragin...

Beste gauza askoz zikiñagoak irauentsiten dozuz zuk.

Zertzuk dira nik irauentsiten dodazanak, maltzur ori, ba? egoitzatan, etxeetan bearezko ez diran gauzak irauentsiten dodaz nik.

Bai usaintzen dot.

Ba geiago berorrek usaindu ez dalazan, berorren zuurrak nik zapalduko dodaz, zikin, goingarri ori.

Eta bereala, Manzanares'ek sekulako ukubilkadea Lozoyari aurpegi-aurpegira jaurti eutsan, eta apur-apur bategaitik ez eban zuurmots itxi.

AAaa maltzur, zikin elezuri ori! menditarrak, bere burkidegana katamotz bat iruditurik, eta erazo gogor bat egifik, esan eban.

Alkar-zankotuz, biak lurrera jausi ziran, eta Florida lurraldetatik berantz biribilkaturik, sekulako iskanbila sortu eben.

Virgen del Puerto inguruan, euren kaltzerdi ta galtzazpikoak garbitzen egozan

ibai-andera batzuk eurakana elduten ikusirik, eta bale, lumera anbat zala uste izanik, Madrillarrei deidar egiñez jakin-azo eutsen euren ganera zer etorkien.

Ixildu zaitzeze, basauntz alaba, orreik!, Lozoya larri ta estu, bere abaro, babes-leku, non egoan agertuko zala, uste izanik, oiuka iñoan.

Eta egia esan, igasle errukigarri aren bildurrak ez ziran ziogabekoak, ba da igesketatzaz bere zaintzaileak konturatu ziranean, beingoan eurakanatu eben eta nai ta nai ez, Partidorreko bide-ostatuan atxilotu.

Manzanares'ek bere burkideak izan eban zoritxarraren buruz, guztiz atsegintsu, pozik, alai, eta beste aldetik Lozoyak bere zoritxarra dala ta, esan ebezanak, edestutekoak ez dira, entzutekoak askoz be egokiagoak dira.

Arira dator, ibai orreik dirala ta, nire atsetik, ostetik zurru-murruak entzuten dodaz. Edestutea nai izatea dala, neu naastatzaile bat nazala, guzurti bat, ibaiek itz, barbarik ez dabela egiten...

parkatu bedi jaunak, ibaiek itz, berba, egiten dabe ta sarritan, larregitan esango neuke nik, guztiz gogor. Ni jakintsua izango banitz, ibaiek itz, berba, egiten dabela zueri baieztatzeko, mila apaimen aurkestuko neiketzuez, baiña ez nazan ezkeru, Luis de Leon anaiak esan ebanagaz naiko dot. Berak izenpetuaz baieztatzen dau, On Rodrigo Toledoko lekoretzetatik Cava lotsagalduaz Izizunkerietan ebilenean, Tajo ibaiak bere burua arroputz bat egiñik bularra puztuaz, bera ixilik egotekoa ez zala, on be ondo adierazo ebala. Luis de Leon anaiari, ain zintzo ta deuna bera, gezurti ta naastatzailea deitzeko ain burugabekoak ez zariela izango, uste dot.

Baiña goazen arira, goazen gure gizonagaz.

Azkenean Lozoyak ainbeste erosta ta alienka izanda, Campo de Guardias inguruan, berantzat eraiki eben gaztelu ederra aldatzea lortu al izan eban. Bertan apurka-apurka nasaitzen joian. Egoitza izotz gela bat, eta adimen garbi ta biotz ozkirri, obebakodun gizaki bateri dagokion oldozte garrantzitsu bat egin eban, auxe da:

Zer, ni Madrillera zetan nator? Egarrituta diranak ur garden, ozkirriaz azetzen. Egikisun errukigarri, txalogarri bat da au, ta beratan saiatu bear naz. Manzanares berekoi, zeken orren antzekoa ez naz izango. Ala, ala, zaldun orreik erabagiten dabenean, agintzen dabenean, Madrillera sartuko gara, eta aldra, talde guztiak, ¡Ura edatera!

Menditarrak bere matarian ain deuntasun ikaragarria izan eban, eta zio onen ondorioz, guztiz leiatsu, bere agindu, mezu deuna betetzeko asiera, une doitsua eltzea, itxaroten eban.

Eta une, sasoi au, eldu zan. Fuencarral atetik Lozoya Madrillera sartzean, bera goraltzen eta bedeinkatzen, arrera ona emonez urten, irten zan gendetsa arek eraginda, poz-alaitasun azaldu eziñeko bere barnean eban, eta saltu bat egiñik, larogei oin andra-gizon aldra ganetik gora jašo zan.

An, urrunean, Manzanaresen egoitza aldetik, barre algara saratatsu bat entzun zan, erdeñuz eta isekaz beteriko barre-zantzo bat, eta San Isidro bizkargunean, olan barre egiten ebanari ixiltasun osoa eragin naian, abotz bigun, maitale bat durundatuta, entzun zan.

Lozoyak, errege-uri ospetsuan, bere egikisun errukigarria egiten saiatuz, alde batetik bestera zearkatu eban, eta Egoalderantz Manzanaresen bila, aier, gorroto guztiak bazterturik, bada griña txar guztiak, egikisun onak uxatzen dabez, Manzanaresetik, barre algara iraingarri bat egiñik, zelan diñotson:

Zer, adiskide, zer jaso jako berorreri, gizona, ain argal eta arre, ugertsu etorteko? Jaseko! Ozkirria! Morrozko sendoa! Ja! Ja! Ja!

Ixildu zaitetz, zorigaiztoko zantar, zikin ori! Egun baten Isidro deritxon errekatik bereala porrostaka sortuko mendiska ganean egoan iturri errukigarri, deunak, iñoan. Unetxu bat leenago, atzo Paular'en kereizpe bedeinkagarripean egoitza ebanak, zerurantz jasotean, egin zenduan barrerik? Deun eta garden da guztia zerura jaso, goraldtu egiten da! Orain argal eta minduta ikusiaz, barre egiten dozu?, poztuten zara? Ludi onetan lagun-urkoa lagundu, mezedo egin eta egikisun onatan saiatzen dana, zeruko ateetara argal eta minduta eltzen da!

Iturri deun, txalogarria, ixildu zan, Manzanaresetik bere oaska ondarreko lupetzetan bere laidoa eskutatu eban, eta uri nagusiko eleizako aldare guztietan Lozoya errukigarria bedeinkatua zan.

GIZONA TANKERA DA

Gizon bik, gizona tankera dala esan dabe. Buru txarrekoa nazanez eta jakintza laburrekoa, beste gizona guardi sibil bat izan zala, bai ziur naz.

Nire andrearen begirunez zabal-zabal esan gura dot, nigan tankera gizona, giza-semea, dala. Autortze au egiñik, andrazko nire irakurleen artean, nigaz maitemendurik izango dirala, ez dot zalantzarik.

Ze mantxunga zure gizonaren tankera ta lañotasunean dozu, nire andra maitea!

Baiña batek txantxerako dauan griña au baztertu eta apur bat zentzun geiagoaz berba, itz, egin dagigun.

Ludi onetan iru gauza dira bere karantz, orraze bakar, bereziak diranak, izkia, aurpegia ta arimea. "Urliak Berendiaren antza dau", eta antza dauala esaten ondo da, ondo esanda dago, bardin-bardiña dala esango ba geunke edo alatsua, ez litzake egia osoa izango.

Aitatutako iru gauza oneikarikoak gizasemea zeinkatzeko balio dauanak utsutsean izanik, eta guztia au ertzaiñak ondo be ondo jakin; aizun, gezurrezko agerkidunaren ganean bere esku zigorgarria ezartzeko gertu egoten da, ta eriotzaile gaizto, atxilotu bat igeska bere askatasunaren bila, lortu naian arriskuan izan baño leen, bere argakia, atxilotuarena, eskuratzen zain izaten da. Baiña gizasemea bere arimaren bitartez, zelan zeinkatzen da? Arimaren argazki bat, antza-iruditzeko oiñarria izan daiten, zelan lortzen da?

Gizona tankera ba da, izakera agertu dala ontzat artzen dogu. Egia da, tankereak be beste edozein gauza bezela, guzurtu, iruditu egiten dira, Maitasuna bera be, naizta goi ilkiza, jalgidura, ta arimearen izate urrin gozo berezi bat izan, beraz diruetxe ta bantuetao diru-txartelak baño be agurgarriago izan bear leuke, baiña oarkari azkarra danak, arin ezagutzen dau egiazko tankera zein dan eta zein guzurrez-

koa. Tankera, estiloa, arimea da, ta orraze bakar diran iru gauzatatik, arimea bat da.

Barriro esan dagigun, ludian naizta antzekoak ugari izan, aurpegi, orraze ez arima bardin-bardindunak bi ez dirala, ta jarraitu dagigun gura ipuiñagaz.

Orain edestuko dautsuedana, ez dakit zelan deitzen dodan ipuiña, bada egi bere-bil-berebilla da. Aldi aretan, sasoi aretan, Mostoles uriko matdrillar egunkarien ordezkarietan, zeazt agertu zan. Jazoriko au saratatsu agertu zan.

Egun baten, gutun-banantzailleak nire etxeko atean deiturik, Madrilletik bost legu bitartean dagon Navalcanero deritxon urian idatzitako eskut-itx bat emon eustan.

Eskut-itx au irakurri orduko, egunkari bat erosi ta leenengo aurkitu neban mando bat akuraturik, bere ganean Navalcarnerorako bidean nintzan.

Bidaliz iru bat legu bitartea egin nebanean, au da, Mostolesko uritik igarotean, uri aretako komandantea zan guardi sibil kabo batek, ertzain-etxeko atean liburutxu bat irakurten egoanak irakurtzea bazterturik, bere liburua sakelean sartu ta nigana urreratuta, gizabidez galdetu eustan:

Zalduna, pasaporte edo erri-bizitzako-txartela, mezedez agertu zeinkedaz?

Ara jauna, Madrilletik oldarka urten, irten, bear izan naz, eta ori dala ta zuk eskatzen daustazun txartela, artzea aiztu jat.

Olan dala, oldarka, irten bear izan zara, ez? ertzaiñak, guardia sibillek eirez begiraturuz, galdetu eustan.

Bai jauna.

Bai, argi dago, zure eurpegia asaldurik, senetik urtenda daroazu ta.

Zuzen be, nire orraze, nire aurpegia guztiz asaldurik, irtenda eroan bear izan neban. Une aretan, zuzen-zaintzailekandik euren eskuetan jausi ezteko igeska doan eriotzailea, edo bere ama ilzorian dagola, barri, albista, artu dauan gizaseme batek izango leuken orraze, aurpegia euki bear izan neban.

Bidali au egitera beartu ninduan arazoa, artu neban eskut-itza, ez zan gitxiagotarako.

Zalduna, guardia sibillek jarraitu eban, berorrek parkatuko daust baiña nire egin-bearrak, zu atxilotutea agintzen daust.

Atxilotu ni!, arrituta esan neban.

Bai jauna, nire arritzeak beragan aieru barriak eraginda, guardia sibillek esan eustan.

Bereala mando ganetik, lurreratu nintzan.

Ara jauna, nire bidean unetxu bat be galdu barik, gelditu barik, jarraitzea bear bearrezkoa dot.

Senditzen dot jauna, baiña neuk be neure eginbearrak bete bear dodaz. Uri onetan ezagutzen zaitun gizasemerik ba dozu?

Ez jauna, baiña gizon naiko ezaguna naz, baleiteke ber-berorrek be nire izena ezagutzea.

Zeintzuk dira ba, zure izen abizenak?

Truebatar Antonio.

Idazlea?

Bai jauna.

Jaun orren idazkiak, idaz-lanak ezagutzen dodaz eta guztiz atsegin jataz.

Berak, idazleak, dauan idatz-gaitasunagaitik ez da izango, ba da nireztat trebeta-sunik ez dau, beintzat arlo orretan.

Ba, nire guztokoak dira, euretan, bere idatz-lanetan, zuzen be zuzen idazten dau, argi ta garbi, gauza bakoitzari dagokiona adierazoz, au da ogiari ogi, ta ardaoari ardao esanez, orrez ganera bere idatz-lanak guztiz ekandu onekoak diralako, ta au, erri-ekandu on zaintzaile dan Guardia Sibil batentzat, ez da txantxetakoa; baña baztertu dagiguzan alkar-izketa oneik, eta mezedez sartu bedi Guardia Sibil-etxera, gero bertatik Madrillera bikote bateaz itzuli zaitezcan.

Nire izu-ikara lardazkia, au entzutean, izugarrikoa zan. Baiña ni Truebatar Antonio nazala, zalantzan zara?

Ez dot zalantzarik, berori Truebatar Antonio idazlea ez dala ziur naz, eta baita be, berorrek aren izena eskuaratu dauala.

Ze zuzentasun dozu, ze errazoitan finkatzen zara ori esateko?

Bere idaz-lanak, idazkiak goraltzen ez dauazan idazlerik ez dot ezagutzen, eta berorrek, itxuraz ber-berorenak diranak goraldtu ez eze, eurakaitik guztiz irainkor, itz, berba egin dau.

Baiña, gizona, beti Deun dan Ama Birgiñagaitik, apaltasuna...

Ze apaltasun ta apaltasun bako! Gaur egun apaltasuna deritxon izakera ori ez da erabilten.

Guardia sibillagaz gai onen buruz, apaltasunatzaz, eztabaidatzen saiatzea, astia galtzea zala ikusirik, arazo onetatik urtetzeko, beste jokaera bat, besta bide bat artu bear izan neban.

Baiña jauna, berorrek, neure bidalian jarraitzen zilegi daistan, zer egin bear dot?

Zeure burua ezagutzera emon, zeinkatu.

Au da, berorrek ezagutzen dauazan nire idatz-lanak, idazkien egilea nazala baietz-tatzen ba dot, nasai berori geratuko da?

Bai orixe, ta orrez ganera, berorren eskua neureagaz atsegintsu estutuko dot.

Eta zergaitik?

Idazle ori, gizon ospetsu, deduzkoa dalako.

Eta ori berorreri, nok esan dautso?

Bere tankerak, tankera gizona, gizasemea da.

Au entzutean, guardia sibillagaz literaturatzaz eztabaidatzea, baztertzea erabagi neban.

Erri-zaiñak, guardia sibillek, bere sakel, boltsillutik, ni egile apal-nazan "Baserritar Ipuñak" liburutxua atera eban, eta jarraitu:

Liburu onen idazkerak ezin izango nau atzipetu.

Baña tamala da, liburu ori nik idatzia da, ta berorrek zalantzan...

Liburu au, egilearen eskuz uts-utsean idatzita egongo balitzake, berorrek itz bakar bat paper baten idatzita, idatziaz, bere egilea zarala errez adierazoko leuke, baña irarkintza, inprentaz, egia izanik, frogapen ori alperrikoa da.

Ara jauna, asmakisun bat, bururapen bat izan dot.

Zein? Adierazo eistazu, esadaizu.

Nire izkia berdinkatu ezin dozun ezker, baleiteke nire idatz-tankera berorrek berdinkatu al izatea.

Zuzen zara jauna, errozoia dozu. Gela orretan sartu zaitez eta ipuin txikitxu bat, idatzi eizu.

Bai, bai. Zuzen be, une onetan ipuifietarako nago ni...

Ba orduan, nire naigabetasuna ikusirik, bekoki iluez iñostan: Euren eginbearra betetzen irten dan bikotea itzultzen danean, eurakaz atxilotuta Madrillera joango zara.

Zemakuntz gogor au entzutean, nire gorputzean izugarrizko bildurgarriagotan, neketsuagotan, sarritan aurkitu nazala, gogoratu neban, eta naizta nire gogo, ariemea arduratsu, urduri, larri izan arren, ipuifiak idatzi al izan nebazala, ta erabagi sendo bat artu neban.

Unetxu beratán asmakísun, burutapen bat izan neban, eta egia esan, une larri aretatik urten al izateko, burutasun au artero zelan ez neban izan, ez dakit. Ipuifia idazten asi baño leenago, zaindariari, guardi sibilleri, olan esan neutsan:

Berorrek, tankera gizona, gizasemea, dala diño, ez?

Bai, ta barriro baieztatzen dot olan dala.

Begiratu eizu, zure aurrez aurrez dagon gizonatzaz, eta zure eskuetan daroazun liburutxu orren tankera, bardin-bardiñak ba diran, ala ez.

Guardi sibille unetxu baten oldozten, gogoratzen geratu zan, bere buruan alako zerbait ikusten dauan antzera, baña guztiz naastuta, ilun, erantzun eustan.

Ori, igeska joateko zuk asmau dozun irten bide bat da, ez?, baiña nigana olako atxakiak ez zaitez etorri. Tankera gizona da, baiña ez gorputzezko gizona, soinduna, tankera, gizon morala da...

Ba, ba, metafisika orreik baztertu eizuz, iñotsan, ba ni euren zalea bat be ez naz ta.

Alan da ze, gela txikitxu baten sartu nintzan, eta ordu erdi geroago guardia sibille irakurten egoan ipuif au idatzi naban.

II

Navalcarneroko uria, bere ertzainza, ezarrita, finkatuta dagon toki polit, jauregi ta etxe eder eta bere erritarrekaitik, Madril-errialdeko uritariko geien guztatzen dan bat da, guztiz atsegintsu jatana. Mendiska baten tontorrean ezarrita, bertatik ia-ia Madrilgo probintzi, errialde osoa begizatzen dauala; batez be uri aretako eleiznagusi ederreko goiara igon ezker, begien aurrean ikuspegi atsegingarri, liluragarria agertzen da. Oker ez ba naz, bertatik Madril-errialdeko lurralde geienak ez eze, beste lau probintziko lurraldeak be ikusten dira, Segovia, Guadalajara, Toledo ta Cuenca.

Madrillen ia neure bizi osoan atxilotuta izanik, nire biotzean sortu ta il ziran ainbeste itxaropenen espetxetik egun batzutan aldenduta, bizi barri bat izatea, nire biotzean bene-benetan zorion uts bat zan.

Bein baten espetxe au eten al izan neban, eta Madril sortalde ta sartaldetik mugatzen daben mendizkatatik alderrai nebiltzala, an urrunean, guztiz asao, eguzkiak bere azken argi-izpiak estaldu dauazan mendiska-tontor ganean, erri txikitxu bat, bera gaiñeratzen eban kanpadorre aundi goi-goi bat, luze bat, zerurantz jasoten zala, begiztatu neban.

Madril ta bera inguratzen daben lurralde zelaiek, alde guztietatik bere ikusmenpean dauan erritxu ori, zelan deritxon itaundu, galdetu, neban.

Navalcarnero, erantzun eusten.

Izen arrunt au ez zan izan nire guztokoa, ez jatan bat be atsegingarri, baiña eguzkiaren azken izpiakaz argiturik, kanpadorre aren txairo, lilura alaiak, eleiz-nagusi baten irudia agertzen eban. Orrelan niretzat, apur bat leenago nire belarriek entzun eben izen arrunt a baño ikuspegi au garrantzitsu, atsegingarriago zan, eta ibili ta ibili, aurrera nire bidalian, leenengo ilun nabarrean eta gero ilargi, iretargi, argian jarraituz, Navalcarnerora eldu nintzan.

Uri onetara eldutean, bein baten niretzat guztiz errez izan zan mezede txikitxu bat egin neutsan sendi bat bizi zala, gogoratu nintzan.

Egun baten, bertako, uri aretako Probintziko batzar-etxe aurrean, unitar andrazko bat negar baten aurkitu neban. Zergaitik negarrez egoan itaundu neutsan. Bere seme bakarra, naizta ama alargun baten semea izan, eta beraz legeak agintzen dauan lez, soldadizka egiten joaterik berantzat bearrezkoa ez izan, ba da bere eguneroko lanagaz, bere ama ta biak, elikatuak ziran, bere amagandik aldenduta soldadizkara joateko izendatua izan zala, erantzun eustan.

Nasaitu zaitez, andrea, esan neutsan. Zure errian zuzengabekeri bat egin ba dabe, probintziko Batzar-etxean oker ori zuzenduko dabe.

AAii jauna! Bai, Probintziko Batzar-etxekoei gure errazoa, gugaz egiten daben burugabekeria, nok argitasun osoz azaldu izango bageunke, olan izango litzake.

Zeuk, ber-ber orrek, andratxu, edo zeure semeak, azaldu leikie.

Baiña zelan, jauna, semea ta ni gizon aundiki, zaldun orrein aurrean mutututa geratzen ba gara! ostera gu biokaz lege-gizon bat aurkeztzen ba da, nire semea soldadizkara ez joatea, izan leiteke. AAaa jauna! seme bi izan eta bat be barik geratuko naz, bata aldendu jatan eta bestea nire albotik kentzen dauste!

Emakume, andra aren atsekabe, samintasunak nire biotz barnean zerbait nabarmen eragin eustan, eta naizta nire nasaitaşun ta berba, itz, jarioa auzi-epaille ospetsuen aurrean aurkezteko, guztiz gizon egokiena izan naitela ez uste izan, bere semea gertaera babestzeko gertu nengoa, eta andra errukigarri areri olan adierazo neutsan.

Andratxuak, biotz-enez on-artu eban nire eskeintza ta goraltze, eskerrik beroenak izan nebazan. Mutilak, bere semeak, auzi onetan bere aldetik eban arrazoi guztia, guztiz zuzena zan ama-semearen jokaera, ain zuzena, ba naizta ni arlo onetan ez-jakin osoa izan, eta beste aldetik lege-gizon ospetsu, abogadu guztiz trebeak, bi ta bi bost dirala egiztatzeko gauza zanak, gure eretxiaren aurka gogor jokatu, azkenean auzi-epaileak, mutila, andra alargunaren semea, azke izateko epaia erabagi eban.

Ama alargunaren semea ordezkatzeko izendatu eban mutilaren ama ezagutzea be, nire zorionerako, ez neban bear izan, ba da mutilak, mutil ordezkoak, Gotzon eri-

txona ta gazte jaseko, ona eretxi jatanak, soldadizkara bere ordez joateko beste bat izendatu eban, eta nire ipuifneko mutil biak alkarregaz erriratu ziran.

Alan da ze, Navalcarnerora eltzean, Klaudia andreagaitik itaundu neban. Probintzi auzi etxe aurrean negarrez aurkitu neban andrazkoa olan eritxon, eta bera ikustera joan nintzan, baiña ez egun batzutarako ostatu eske, seregiñ onetarako erriko beste etxe bat adierazo ekidan, baño.

Klaudi ta bere seme Juan, ni ikustean bene-benetan poztu ziran eta ezelan be ez eben zilegi, ni eurenetik aldentzea.

Bai orixe, besterik ez litzake beariko!, Klaudia andreak esan eban. Nik bene-benetan senditzen dodana, neure etxea, zuretat egun batzutarako egoitza izan daiten, Isabel II'en jauregia, ez izatea da, baiña naizta nire etxea txiro, apala izan, gure naia oparotsu, aberatsa da, ta gure artean pozik izan daiten, aleginduko gara, saiatuko gara. Zuek uritarrak, Madritarrak batez be, gauza on ugari daukazue, baiña ez nik daukanatariko ta asko guztako jakon bat, au da, loraz beterik eta zugatzak igaliz korror, zamatuta dagon, ortu eder bat.

Ba egia esan, Isabel bigarrenen jauregia, erantzun neutsan, olako ortu liluragarri bat aifnako atsegintsu, ez litzaket izango. Neure bizitza osoan amesik zoragarriena beti izan da, etxetxu txiki lorez eta igaliz beterik inguratuta dan bat eukitzea.

Ba ames ori lortzeko dirutsua izan bearrik ez da. Aberatsa izatea ez da bearrezkoa.

Baiña idazle bat ez izatea, bai.

Ez zaitut ulertzen.

Ba nik, ulertzen dot, ama, Jonek erantzun eban. On Antonio zuzen da, Españan naizta guztiz ondo idatzi, idazle trebe bat izan, diru oso gitxi eskuratzen da. Neuk esatea ez dago bat be ondo, baiña nik, neuk be bikain idazten dot, idazle trebeenetarikoa bat naz; leengo egunean auzi-epaileak ber-berak, luma ederra, polita daukadala esan eban, eta alan da guzti be paper-agiri bakoitzagaitik, idazten dodan pliegu bakoitzagaitik, errial bat baño ez dauste ordaintzen.

Ixildu zaitetz, ixildu, ta ez zaitetz izan lelo, ezjakin bat. Ze ikusi dau zuk idazten dozunak, liburuak argitaratzen dabezan zaldunen idazkiakaz? ..

Eurak idatz-araziten dakiela ta nik ez, orixe zuzen be gure artean dagon ezbardintasan bakarra.

Eta gitxi deritxazu, ala?

Alan da ze, ama, bakoitzak dau bere jakitasuna. Ez da egia, On Antonio.

Bai olantxe da, Jon, eta batez be zuk bezela atsedeen-gabe euren ama jagon, zainzeko lan eta lan egiten dabenak, orreik bai dabe benetako zientzia.

Ori bai, gai orretzaz, bere ama zaintze-buruz, jauna, nire semea neurritz kanpokoa da, ez dago orrelakorik. Bera ez da bere anai aifnako langile ta buru onekoa, Pepe bere anaia aifnako jakituna, baiña ostera, txoriburu arek lez bere ama ez dau baztertu, laga. Barregarri arek, Habana edo ez dakit nonbaitera, bere amangandik aldentuta joatea erabagi eban, eta ziurki errukigarria itota itxasoan geratuko zan, ba da beratzaz ez dogu barririk izan, ez dogu ezer jakin...

Baiña alkar-izketa onetan arduraturik, ez gara konturatu berori zaldiburdian guztiz nekatuta etorriko dala, ta afuldu ta atsedeen apur bat artzea atsegin izango jakola.

Zaldi-burdian ez, andere, oiñez etorri naz...

Baiña, zelan izan leiteke ori? Zelan ausartu da berori?

Lurraldeak zearkatzea guztiz atsegintsu izaten jat. Alderrai, unetxu batzutan mendiska onetan geratu, gero ibartxu aretara jaitsi, emen loratxu batzuk artu, geroago anbean zugaitz bat edo ikuspegi, lurralde polit bat margoztu...

Guzti orreik bai benetan, bat poz-arazten dau, atsegindu.

Bai, zuek poz-araziko zaitue, Jonek iñoan, ba nireztat ez dira bat be atsegingarriak.

Bai, bai! Danok zulako astokiloak izango bagintzakez, jan-edaten, erretan eta nezkatilakaz lizunki jolasten... uts-utsean atsegin apur bat izaten dabenak...

Zuzen be, orixe da ba atsegin-erazle bakarra!

Aaii aaii aaii!... zuentzat zuen izakera ori!..., On Antonio jauna ez dakit, mutil onek nogana emon dauan. Bere anaia, nire seme errukigarria, ludi, mundu onetako jolas-keta guztiak, atseginkeri guztiak; liburu on bat irakurri, soiñu eresi on bat entzun edo lagun zentzudunakaz egoteagaitik, baztertzen ebazan. Bere aita G.B. iluntzeko ilunabarra baño apur bat leenago bere lanetik etorten zanean, mendizka goitxu baten ganean jazarrita errekin bat erreten eban bitartean urrenetako mendietan eguzkia sartzen, estaldutzean, abesti gozoak entzun eta zelaiuneko kanpadorreko kanpaiak otoitz egitera deiturik izaten ziran kanpaiketa entzutean, gizon deun arentzat, atsegin oso ta bake-erazle azaldu ezifiekoa, izaten zan.

Bai andrea, alan izaten dira gauzak, ludian, munduan, danatariko giza-semeak egon bear dabe ta...

Au be, bere aita ta anaiagandik guztiz ezbardia da. Au atsekoz aurrez jasten da. Bere aitak, bere gogo guztia, borrherek biar ikusiko dauan ortuan eban, eta onegaitik balitz, beifionezkero larrosa bat eze eze zugaitz bat be bertan, ortuan, ez litzake ongongo. Bere esakerea da, lorak eta igaliak ez dabela dirurik emoten.

Neuk esango dautsut...

Ara On Antonio jauna, ez bedi berori orreri olako gauzak esaten, nekatu ez dauz ulertu al izango ta. Ala, orain danok afaltzera, biar Jaungoikoak nai ba dau, astiroago jardungo dogu, jarraituko dogu.

Irurok guztiz gogoz, alai, jatun afaldu genduan, eta ondoren Klaudiak, neuztat gertu eban logelarantz, lagundu eustan.

Ondo atsedendu dagiala berorrek, On Antonio jauna, Jonek esan eustan, eta irribarretxu bat egifnik jarraitu; gaur berorrek lo egingo dauan ogean, orain ile bi lo egin ba eban, nigan baten baño geiagotan aldarte asarrez gogoratuko eban.

Eta zergaitik ori?

Zergaitik izahgo zan ba, gaberdi baño be beranduago, beluago, Errosari gitarrea joten egoten nintzalako...

Eta nor da Errosa ori, ba?

Nor izango da ba, antziaña izan neban emaztegitariko bat...

Goazen, goazen, ergel, txoriburu oneri ez bedi jaramonik egin, eta ogeratzera etorri bedi, Klaudiak bereala logelako ate aurrera lagunduz, iñostan.

Logela au, gela txikitxu bat zan, txirotasunez altzaritua, baiña guztiz zuri, garbi

ta bikain, apain orniduta; txirotasuna esku maitagarri batek oparotasunera biurtu eban.

Nire gelan bakar-bakarrik geratu nintzanean, une aretan nire egoitza zana azterkatzen asi nintzan, eta balkoi bat zala uste nebazan zure batzuk idegi, baateru nebazanean konturatu nintzan, zure areik ortu txikitxu baterako atea zirala; nire begien aurrean, ortu txiki, txukun, polit bat agertu zan; arterako egunean Klaudiak aitatu eustan ortu txukuna.

Gaba, sekulako ezin obea, ederragoa, zeru, ortzi guztiz urdiña ta ilargia, irargia, argitasun berezizkoak. Benetan gaba liluragarria.

Orturako atea idegi nebanean, idegi orduko, nire gela osoa lora ta igali usaiñez bete zan. Ortura urten neban eta larrosa, klabelin eta beste lora batzukaz inguratuta egoan platzatxu txiki baten, eskuz egindako aulki apain baten, ilargi, irargiaren argitasuna begiratzan, jezarri nintzan.

Gaberdiko iluntasunean, zugaitz adarrak aize ozkirriak astindurik, nozean beinka igali elduak zugaitzetatik jausikeran egiten ebezan otsak, entzuten ziran. Igaliek artzeko jagi ta barriro nire jezarlekura, itzultzen nintzan. Bertan, gaba iluntasunez beterik danean, ilargi guztiz argi, giro usain gozoduna, ta zerua, ortzi goia urdin, nilako arima ameslaridunak mugiltzen diran oldozketatan, azaldu eziñeko gogoketatan, bein eta barriro, mugiltzen nintzan.

Ortuan beste aldetik, etxe bat egoan eta etxetxu onen eta ortua inguratzen eban ormaren bitartean, kale ilun, zaarkotz bat. Etxe onen balkoixu bat, kale orretara jotzen ebana, bertara ilargiaren argi-izpiak ez ziran sartzen, eta beraz guztiz ilun egoan.

Sarritan uste izan neban, balkoixu aretara emakume bat, andrazko bat agertzen zala...

Ba dakit nondik zoazen!, guardi sibillek nire ipuiña irakurtea bazterturik eta nigana begiratuta, esan eban. Balkoixu aretara nezkatil gazte anbat agertuko zan, eta zu bereala beragaz maitamendurik, orain leiatsu, zuzen be bera ikustera zoaz.

Gizona, ipuiña irakurten jarraitu eizu, gaur alkar-izketatarako ez nago ta, txantxetatarako gitxiago...

Baiña..., berori nora doan, ba diñot...

Ala, aurrera lelo bardiñagaz!

Guardia sibillek irakurtea jarraitu eban, baiña ez nire urduri, leiatasunagaitik, bere jakin-naiak eraginda baño.

Bereala kaletzar aretan oinkadak entzun nebazan, eta barriro uste izan neban, oinkadak entzun ziran kaleko balkoian, norbait agertu zala, ta bereala balkoipetik joiana, gelditu zala.

Errosa! gelditu zanak, esan eban.

Gotzon! balkoixutik erantzun eutsan.

Emen dogu ba bikote bat maitamendurik, nezka-mutil bi maita-miñez alkar-izketa mamintsuan, iñoela:

Zure ama ogeratu da?

Ez dakit.

Zer, asarratuta zagoz, ala?
Eta zelan ez naz egongo, ba.
Zergaitik?

Ni maitatzea baztertu egin dozulako.
Eta nok esan dautsu ba?

Ni-gana zatozen ordu onek adierazoten dau.
Emendik legu bat urrun dagon Sacedon larretik oraintxe ba nator.
Eta bertara biar barrero itzuliko zara?
Egun-sentirako, argitu baño leenago bertarako bidean izango naz.
Eta gaur goiztar joan zifan?

Izarrakaz bertara eldu nintzan.

Eta zergaitik orrenbeste lan egiten dozu?

Ara, nire aita zaarra da, ta igez, joan dan urtean, ni gudarostera joan ez naiten, sei milla erreal zordun geratu zan. Bat gaztea izanik, ta lanerako egin-beartua izan, gogor lanean jokutzen ez ba dau, nok egingo dau lan, bear da?

Zuzen zara, errazoa dozu.

Ain-beste lan egin bear ez leukena zu zara, ba da beti zabiltz egun osoan iñurri bat bezela lanean atsedean apur bat be artu barik.

Nire ama be zaartxu dago ta ez da gauza ezetarako be, norberak, batek egiten ez ba dau, jakifia da zelan egongo dan etxea ta ingurukoak.

Bai ori olan da, baiña zu ain polit-ederra izanik... senditzen dot olan ibili bearra.

Ala, ala isekari ori!

Isekaria ni! Bateo egunean Errosa izenez ezarri eutsuen, eta zuzen be abadea ez zan leloa, ez.

Ba zuri, Gotzon ezarri eutsuena ba, ez zan izan gitxiago.

Abade ber-bera izan ba zan! Nik orain gura, nai dodana da, beingo baten, laster, beste gauza bat ezarri daiskula.

Eta zer ezarriko dausku ba?

Buztarria.

Ene! Ze lotsa egun orretan.

Ba, nezkatilatxu, laster elduko da.

Bene-benetan diraustazu?

Antza danetik, poztuten zaitu, ez?

Zure ondoan beti egon gura, nai dodan ezkerro, ez naz poztuko ba!

Eta nik, zure ondoan egon nai dot.

Ala, ala, guzurti ori!, zuri, orrek, nire ondoan egoteak, leba, ardura gitxi emoten dautsu.

Ara Errosa, txantxetan be ez eistazu esan, ez zaitudala maite. Berton Jaungoikoak il naiala, neure bizian baño be geiago maite ez ba zaitut. Soloan, errian, etxean gau ta egun, toki ta ordu guztietan, gogoan zaitut.

Diraustazun guzti ori, egia da? maitamendurik nezkatilatxuak esan eban.

Umetxua, ez da izango ba!, biotz-eragin bizi-bizia agertzen ebala ta begiak negar-malkoz ondaturik, esan eban.

Ara, Jaungoiko gure Jaunaren maitasun ta zurea be bai, ez dagidazala izan, guzurre ba diñautsut.

Ba, nik be bardin bardin maite zaitut.

Bart, Juanegaz ikusi zindudazala amesetan egin neban, eta amurruz negarrez izartu nintzan.

Ba, zure ameseta ori guzurrezkoa izan da, Juan nigana barriro ez da itzuli ta ez da etorriko be.

Naizta Juan Koldar, oilo bat izan eta leengo egunean erriko mutil guztien aurrean, zugaz geiagotan ikusten ba dot, aurpegia zatituko dautsadala esan, ez naz neugaz bat be nasai, lasai, izan.

Egon zaitex ba ziur, zure zemakuntza ez ba da izan naiko, gauza, zure naia lortzeko, baketan itxiko nau, ba leengo egunean guztiz argi esan neutsan astoko kas-kailu bat zalako ez nebala maite, ta ganera zu maite zaitudala.

Bedeinkatua izan bedi, ludi, mundu onetara ekarri zindudazan ama...

Aitatu dözun ama, bere ogetik deadarka daukat, ziurki txantxetarik naiko dala, uste izango dau. Alan da ze, agur. Eutsi ta biar arte, erdu.

Nezkatilatxuak larrosa bat jaurti eutsan, ziurki bere burutik, berè ule, ileetatik kendukoa izango zan, eta mutilak artu eban, ba orma ganetik, esku bat euliak arrapazten ibiliko balitz bezela, ikusi neban.

Balkoitxu ta kaletzarra unetxu bat geroago, ixiltasun eta bakardadez osotuta geratu ziran.

Ni luzaro ortuan geratu nintzan. Une aretan nire buruak oldoizten ebana, gogorazten ebana, biotz arein maitasun eta gaba aren dirdira, argitasun eta egurats, giro usaintsu aren aurrean senditzen ebana, ez dago espanik, aorik esan al dauanik, ez da be arkatzik azaldu leikenik.

III

Guardia sibillak, ipuiña irakurtea aldatu eban, bereala niri esateko:

Ba daki berorrek, bikote ori, nezka-mutil orreik, guztiz atsegingarriak egiten jatazala?

Nik nai, gura dodana, erantzün neutsan, berorreri beste au interesgarriagoa izan dagiola.

Eta guardia sibillek jarraitu eban:

Egun-sentia, eguzkiaren leenengo argi izpiak ur egozala, biramonean, biramon goizean, txoritxuen txio txio abeslariak entzun orduko jagi eta bereala ortura urten nintzan.

Goizaro sekulakoa, ezin obe, liluragarria zan. Ostera ortua, aurrerako gaban ilargi argitasunean agertu jatan polit-eder, olertitsu ez neban aurkitu; baiña alan da guzti be, bere loratan zan oparitasuna, zugatzak igaliz beterik, zamatuta, ta bere abaro kerizpetsuak, maitamendu ninduen.

Bertako lora-usaiañak arnasatuz, igaliak gozatu ta nozean-beinka alboko balkoira Errosa agertzen ba zan begiratur, ordu bete baño geiago egon nintzan, eta niretzat minutu bat izan zan ordua.

Ikusten ez nebanean, nire begien aurrean agertzen ez zanean, ain polit ederra iruditen jatan nezkatila, orain bera ikusteko nai, gurari ain bizi ain bizi-bizia zergaitik dodan, ez dakit.

Guardia sibiliek maltzurkerizko irribarretxu bat egin eban, esaten lez: zu nondik zabiltzan ba dakidala diñodanean, ziur naz! Baiña egin neban keifñu batek, nire larritasuna agerturik, irakurten jarraitu eutsan.

Ortua begiratzan, lorategia begiratzan liluratuago nintzan une beratan, Jon, bere eskuetan eskutitz bat ekarrala, agertu zan.

Egun on, On Antonio.

Egun on, Jon.

Zelan atsededun gara?

Ederto eta zu?

Ni, Errosagandik aldendu nintzanetik, txarritzar baten lez lo egiten dot. Eta benebenetan ondo egiten dot lo, arraioa. Emakumeakaitik arduratzen dana, lelo, ergel bat da, danak dira zital, gaizto batzuk...

Dan-danak ez, Jon.

Bai, ondo diñot, dan-danak.

Zure ama be bai?

Ara, zelako urteker! Nire ama ez da emakume, andrazko bat.

Zer da ba?

Zer izango da ba, nire ama.

Jonek izakera bigun, adikor bat ez eban, baiña gizon, seme maitatsedun benetako bat zan, eta erantzun onek beragaz adiskidetasunerako bide bat ezarri eban.

Ba dakizu, zuen lorategi txiki au, bitxi polit bat dala?

Nire amak olan esaten dau, baiña niretzat altxorrik ederrena, amabiko bat ontza, bera salduta lortzea izango litzake.

Ludian, munduan, ez dago diru naikorik, lora oneik eta igaliz zamaturik dagozan zugaitz oneik, ordaindu al izateko...

Diru ugari euki ezkeru, platzan lora ta igali zenbat gura, nai, dago eta erosi zeinke.

Jonek ez eban izan erantzunik; ulertu, aitu ezin dauan batentzat, polit-eder eta adei-bera zer dan azaltzea, alperrikoa da.

Eskutitza irakurten asi nintzanean, bereala alboko etxeko balkoixua idegi zan eta beratan Errosa agertu. Errosak lorategira begiratu eban, eta bereala bere aurpegia, bere izenkideek aiañako gorri-gorri biurtu zan. Ez dakit gertaera au, ezezagun bat, au da ni, ikusi ebalako izan ba zan, ala ezagun bat, Jon, bere aurrean egoalako izan ba zan, dana dala, leiatsu barrura itzuli zan: nezkatilatxua, Errosa, etxe-barneratu zan.

Errosa, eguzkiaren argitasunez, argi dizdiratsuz, naiz biotzaren argitasunez begiratur, bardin-bardiña zan; ule, ile, zuri, aurpegi zuri ta matrail gorritzka, begi

urdiñak, eite, aurpegikera gozo bizi, eraginkorra, pago ta izaipetatan bildurkor sortzen diran loratxu bigun, mardulen antza geiago eban.

Balkoitik aldenduteaz ondo egin dozu, auntz gaizto baten alaba orrek, Jonek, balkoitik estaltzen ikusi ebanean, esan eban.

Gizona, nezkatil errukigarri orretzat, zergaitik dozu amurru ori?

Zikinkeri bat egin daualako, kulape, kalabazak emon daustazalako.

Zeuk be, zerbait, gaiztakeri anbat berantzat, egingo zenduan ta.

Ez jauna, tximukeri orreik, berari guztatzen jakozan ergelkeri orreik, atsegin ez dodazalako, izan da zio guztia.

Zeintzuk dira txikumeri orreik, ba?

Ara, nobelatako gauza orreik, berari ain atsegintsu jakozanak, miru, ergel orreri. Gizaseme, pertsonak, arrunt, oiturazkoak izan bear dabe.

Baiña nobelatan, liburuak onek ba dira, gizasemeak arrunt, oiturazkoak izaten dira.

Dana dala On Antonio, neskatil orrek eta nik batera, alkarregaz jarraitzea eziñakoa dala ikusi dagian, ara emen, berton, egun baten idatzi eustan eskutitz bat, oraintxe berton erakutsiko dautsat berrerori berak idatzitako eskutitzen ganera, neure erantzunagaz idatzi neutsan idazki bat.

Ederto, ederto, baiña nik leenago beste onetan zer daiñ austen jakin nai dot.

Bitartean, aitatu dautsudan eskutitza ia aurkitzen ba dot, saiatu bear naz, eta baita be nik bialdu neutsanaren aldaki, kopia, be, berorrek ikusi dagiazan, nai dot.

Lorategian, Jonek bakar bakarrik itxi ninduan.

Eskuratu neban eskutitza, Madrilleko egunkari baten argitaratzaile batena zan. Beratan ipuin argitaratua izan ez zan bat, premiatsu, leiatsu eskatzen eustan.

Nire ipuin ia guztiak, orain ementxe idazten nagonaren antzera, leiatsu idatzia izan dira. Aurrerago idatziko dodazanak, Jaungoikoak ez dagiala zilegi larritasun one-gaz idatzia izan daitezala. Ez jatan bat be eziñekoa izan argitaratzaile arek eskatzen eustana, ta bereala, beingo baten, idatzi bear naben ipuiñaren gaiatzaz oldozten, asmatzen nengoan.

Paper batzuk bere eskuetan ekarzala, Jon nire gogoketak, asmakisunak aldatzen etorri jatan. Une labur baten baketan itxi eistala eskatzeko nengoan, baiña bear ba da paper areitan, nire ipuiñaren gaia egon leitekela uste izanik, ez neutsan ezer esan.

Emen daukaz berorrek aitatutako paperak. Au, ergel, mika orren eskut-itza da. Irakurri bedi beorrek, nik baño obeto ulertuko dau ta.

Eskutitza Errosana zan, idazkera utsez beterik, baiña izki berebilen eta zearkatugabe, papera ez zan gain-ganekoa, zuria, guztiz zuria ta apainkeri barik, onelan iñoan:

“Jon, zure lorategian abesti zantarrak, zikiñek ba darabiltsuz, geiagotan eurak entzuten balkoira ez naz urtengo”.

Eta Errosari ain sikin, gaiztoak eretxitzen jakozan abesti orreik, zeintzuk ziran ba?

Je! Je! Je!, astokilo bat bezela barreka, Jonek erantzun eustan, ludi abesti gatz-dun, sestokarienak, batzuk andrazkoakaitik itz, berba, txarto egiten dabe, esate bate-rako onelakoak:

“Itxasoa idatz-ur balitz
eta zerua paperezkoa,
arraintxu idazleek
esku bietara idatziko ba lebe
Eun urte be ez leukie izango naiko
andrazkoen gaiztakeria azaltze
Eta beste batzuk ausartak, bizizkoagoak, ara emen onetariko bat:
Nezkatilatxu bat garbitzen joan zan,
Galtzerdi bikote bat...”

Naikoa da, naiko da, bere abestian geldi-arazi neban Jon, eta Errosan eskutitza irakurten jarraitu.

“Gaur goizean, bart balkoian eskegita itxi neban kaiolea zatituta aurkitu dot, eta beratan egoan txoria, kanarioa, ilda, ta kaiolapean egoan klabelin-lorontzia be, mila zatiten apurtuta. Leengo egunean, nigaz eskondu orduko, klabelediñak kalera joango zirala, ta kanarioa katuntzat janaria izango zala, esan zeustan, eta orregaitik arrikada gaiztoa egin dauana zu zarala uste dot. Ara, begiratu eizu, ziur-ziur txarkeri onen egi-lea zu zarala baneki, barriro geiago aurpegira be ez neuskizu begiratuko, au egin dauana, zikinkerri au egin dauana, biotz gogor, zitaldun bat da”.

Guardia sibille barriro geldi-arazi zan.

Tankera gizona dala diñoe, baña tankera andrea, emakumea be ba dala, esan leitteke.

Zergaitik?

Ara ba, eskutitz onetan Errosa guztiz ondo margoturik agertzen dalako.

Baiña zer, Errosa ezagutzen dozu, ala?

Berorrek Gotzonegaz izan eban alkar-izketatzaz, emen agertzen danagaitik, eza-gutzen dot.

Oitura-idazle batentzat, alkar-izketak kopia egiten dauazala esatea, itz-gozo, limurkeri bat da.

Nire arrokeriak, guardia sibillaren geldi-arazte oneik nekarazita izatea, galazo eusten.

Guardi sibillek jarraitu eban.

“Eta zatikatze a egin ebana, zu izan ziñan? Joneri itaundu neutsan, Nor izango zan ba ni izan ezik. Ara jauna, On Antonio, neure baitan niñean: Errosa ta bere ama onezkero ogeratuta egongo dira, bero-berotan, lo gogorrean, gozoro-gozoro lotan, eta artu neban arri kozkor bikote bat eta zas! leenengo arrikadeaz ordoaz ankaz gora kaiolea ta txoria ta bigarren arrikadeaz, lorontzi ta klabelediñak ezereztu neban”.

Demontre!, barriro irakurtea etenda guardia sibillek, esan eban, neure lanatzen Navalcarnerora aldatzea atsegin izango litzaket, morrosko ori labur-labur neuk lotuko neuke.

Lotuta dago, atxilotuta dago.

Zelan?

Irakurten jarraitu eizu, ta ikusiko dozu.

Guardi sibillek irakurten jarraitu eban.

Eta astokeri ori, zergaitik egin zenduan?

Ara, arraioa, ergel, ketokeri orreik, Errosarentzat ain pozgarriak diranak, txori, lora ta olakoak, niri bat be ez jatazalako guztatzen.

Zure aitari be guztatzen jakozan, zure amari ta niri guztatzen jakuzan bezela.

Ara ba, On Antonio, berorrek parkatuko daust, ni gizon guztiz arrunt, oiturazkoa naz...

Txori ta lorak be, guztiz arrunt oiturazkoak dira.

Bai zera! gauza orreik liburu, nobelan uts-utsean jazoten dira.

Mutil onek, neure baitan niñoan, astokilo bat, ain ezjakiña izanik, alako anbaten plast egingo dau.

Aitatutako astokeri ori ez eze, Jonek egindako beste zikinkeri ez txikiago batzuk, Errosak bere eskutiztan tolesgabetasun bereziaz idatzita, agertzen ziran.

Baiña, ikusi dagigun, Joneri esan neutsan, ze erantzun eskutitz oneri emon zeuntzan.

Ementxe dauka berorrek erantzun ori, guztiz apain egiña eretxi jatan ezkeru, Errosari bialdu neutsanaren beste bardin-bardin bat egin negan, zuzen be auxe da.

Jonen eskutitza paper larrosa-margoduna zan, edo obeto esanda, paper gorri-gorri bizian, biotz eta dardaiz, fletxak, paper bazterra apaindurik, biotzak dardaikaz zearkatuta. Jonen eskutitzak onelán iñoan:

“Errosa nire maite-maitea, niri izki labur eta txiro oneik artzean, nik neuretzat nai dodan osasunik onenean, bai gorputzez eta baita be arimaz zu egoteaz poztuko naz. Egia esan, nirea, nire osasuna guztiz ona da. Zeuk nai dozuna agindu daikedazu, bada gogorik onenegaz zure agindua beteko dot. Nire gogoa leenagoko bardin zamarra da, zuek emakume, andrazkoakatik, obeto esanda emakumetzaz txarto berba egiñez abestea, bertsoak, esatea, guztiz atsegin jat, bada danok zarie... batzuk, (Jonek ixillean, eskutiztan ipinten, ezarten ausartu ez zan lotsagabekeria, esan eustan). Bart arrikada bikote bateaz txoria il eta klabelin-lorontzia apurtu, zatitu ebana, neu naz; gero uste-gabe izan ez zaitezta, ementxe berton dirautsut, bart kaiolea bata lorontzia apurtu neutsuzan bezela, eskontzen garanean zure izakera ori aldatzen ez ba dozu, emongo dautsudan ukubilkadeaz, zure burua apurtuko dautsut. Ba dakizu ezjakin, arrunt bat nazala. Onelan, nazan moduan maite ba nozu, ederto, baiña olan izan ezik, itxi naizu baketan, eta nigaitik ez eizu izan leba, ardurarik, ba nik zu baiño nezkatil polit-ederragoak ugari daukadaz, alan da ze, agur, ikusi arte. Ni oraintxe lagun batzuzkaz zubiko bentatxura, urdai-azpiko ta ardaoaz betekada bat egiten, atzamarrakaz ikutu arte jaten, noa. Au da ba, onuragarri egizkoa, egizko onuragarria, ta beste gauza guztiak ergel, ketokeriek, nobela ta liburuetako lelokeri ta txori-amesak uts-utsean dira.

Barriro guardia sibillek eskutitza irakurtea baztertu eban, esanez:

Begiratu bedi berorrek, On Antonio, (guardi sibillek nire izenaren ostean nire abizena esan ba eban, nik oiuka esango neban: “zuek zarie, guardi sibill onek, ni Olako'tar urlia nazala onartzen daualaren, aitorle”), aditu bedi berorrek, zelan tankera gizona dala esaten dodanean, diñodanean, zuzen nazala, errazoia dodala?

Baleiteke nozbaitek, batan-batek, eskutiz onen tankeran, bere egilea gizon baldar, maltzurra guztiz egoki itzuraturik, margoztuta ez dala esan leikeenik?

Eskutitza idatzi ebana neu izan nintzan ezkerero, keiñu bat nekarazita egin neban, eta guardi sibiliek nire keiñu a, berak irakurtea baztertugaitik izan neban kezka zala uste izanik, bere zeregiñean aurrera jarraitu eban.

Je! Je! Je!, eskutitza guztiz ederto idatzita dagola, ez da egia? Idazki barregarria irakurtea amaitu nebanean, Jonex itaundu eustan.

Eskutitza idatzi eban astokilo areri agirekada berezi bat egiteko gertu nengoan, baiña gaiztoakandik aoulkuak egiñez, damudunak lortu leitekezela, baiña, ostera, astokilo, ezjakin batetik, oneikandik, etsaiak uts utsean lortu leitekezela, gogoratu neban. Jon nigandik apur bat aldentzen arduratu nintzan, orrelan biramonean Madrilera bialdu bear neban ipuintxua, zuzen be egun ber-ber orretan bialdu bear izan neban, asmatzeko astia ta nasaitasuna izango nebazan.

IV

Egun ber-beratarako, iluntzerako, idatzi bear neban ipuintxua nire irudimenean guztiz asmatuta neban. Ipuñaren izena, "Los Dos Rivales", "Arerio Biak", izango zan. Navalcarnero bertan jazorikoa, gertatukoa, gizaseme Errosa, maitale zorionekoa Gotzon, eta maitale zorigaiztokoa Jon.

Olerki saioetan, zerbait egiatzkoa izan daiten, antzeratutzat, gizarte giroa artzea, aukeratzea, egoki izaten da, eta gero, olerkia aldan guztian iruditzen saiatu, alegindu.

Nire eretxia au dala jakiñik, nire ipuñaren sortze-erria ta beratan aitatzen dodazan izenak, zergaitik artu dodazan, argi agertzen da.

Klaudiak afaria gertatzen eban bitartean, eta Jonen etxeratzea itxaronez, uritik ibilaldi bat egitera urten nintzan. Orrelan nire asmamena apur bat bizkorturik, errezago ipuintxua osotuko neban.

Kaletzar batetik igarotean, burdi-sare baten barrenean zutunik, zutik, Jon ikusi neban; guztiz aierutsu, urduri, kezkatu egoala irudi jatan, non baitek bertan ikusi egian bildur edo bear bada beste anbatek bere tokia liskartu eikiola ustez.

Erria zearkatu ondoren etxeratu nintzanean, ate aurrean, ataria aurrean, Jonegaz topo egin neban, eldu-barria zan.

Ola Jon, esan neutsan, maitamiñez gabiltzaz, ez?

Je! Je! Je! bai zera, ez jauna!

Burni-sare bateaz bat egiñik, neuk ikusi ba zaitut...

Ikusi nozula, egiz diñostazu?

Ez zindudazan ikusiko ba!

Eskerrak berori uts-utsean izan dala ikusi nauana, beste anbatek ikusi ba ninduan... ori izango zan tamalagoa!

Jon, txori-burua ez zaitetz izan! ...

Zer nai dau berorrek, jauna, neskatil on bategaitik zerbait irriskatu bear da, ausartu bear da.

Baiña zer, kaletzar orretakoaz itz, berba, egiteko arriskurik dago, ala?

Ez da egongo ba, bai orixe!

Jon apur bat nigana urreraturik, ixillean esan eustan:

Alkar-izketan ikusi nozun neskatil orren atsean, beragaz guztiz maitamendurik, edozeñeri, ausartenari be, sastakada bat emoteko aiñako dan mutil gazte bat, dabil. Zuzen be, Bruneten izan eban eriotz bategaitik, espetxea ezezagun ezjakon mutil gazte bat.

Baiña orduan, zuk mutil orren emaztegaiagaz, zergaitik berba egiten dozu?

Demontrez, arraioa! zelako neskatoa dan, berorrek ikusiko baleu... liluratu ta geratuko litzake.

Alako altxorra izango da, bai, espetxeratua izandako bateaz maitekerizko arremak ba dauz, eta ganera zulako beste mutil bateaz limurkerietan, ba dabil!

Ara, a guztitarako balio dauan emakume bat dalako. Guztiz arrunt, naturala ta ganera... Berantzat, aume erdi bat jan eta azunbre bat ardao edatea, zuontzat, urritarrontzat, aundikiontzat, kikera bat txokolatea, bardin-bardiña da.

Jon, Jaungoikoagaitik olako andrazkoakaz, ez eizu izan arremanik!

Baiña gizona, niri olakoak guztatzen ba jataz, arrunt, naturalak, eta beste ergel, miliki orreik...

Afaria mai ganean ezarrita gertu egoala adierazoz, Klaudia andreak gure alkar-izketa geldí-arazo eban.

Afaldu genduan eta bereala nire gelara idazten abiatu nintzan, ori bai, nire kirioak ernaitzeko ta euren laguntza bear dodan une guztietan egiten dodan bezela, akeít-ontzi bete bat gorputzeratu neban.

Gaba aretan nire kirioak ondo jokatu eben, bai; urrengo egunean, biramonean, Navalcarnerotarrak erriko kanpadorrean bostak entzun ebezanean, "Arereio Biak" osotzeko azkenengo gertaldi-arriskuak, idatzita nebazan...

Biramonean eguna argitu baño leenago, apur bat leenago, Jonek, ni jagita, ogetik jagita nengoala nabariturik, nire gelan sartuta esan eustan.

Ola, ola, goitzar gabiltz!

Ogeratu be ez ba naz izan..., gaur gabean beintzat.

Zer, leiatsu dabil gaur berori, ala?

Bai, bai, Ori da gure izatea, idazleek dogunetariko gaizto, txar, bat; batzuetan guztiz leiatsu ta beste batzuetan...

Ia, ia, berorrek zelan idazten dauan ikusi dagigun, ia.

Jonek, mai ganean nebazan idatzitako orritxu batzuk azterkatu ebazan eta keifíu erdi-destaíñezko bat egin eban.

Zer, nire izkia ez jatzu guztatzen, ala?

Ara On Antonio Jauna, parkatu bedi, ni guztiz argia naz, nik bururutzen jatana argi ta garbi esan bear dot. Naizta berori liburu artean beti ibilí ta idazten ordu luzeak emon, nik ankapetik be berorrek baño askoz be obeto idazten dot.

Bai zuzen zara, errazoa dozu, izki guztiz itsusia daukat, dot.

Arraio arraio! zetarako dauz berorrek orduan ainbeste ta ainbeste ikasketa egi-tea? Zuzen izaten naz ni, gauzak oiturazko, originalak izan bear dabela, diñodanean.

Une beratan bururatu jatan, Jon naizta astokilo, ezjakin bat izan, onuragarri izango litzakidela.

Nik, irakorlara nire ipuiñen leen-idatzia, originala uts utsean beti bialdu dot, neureztat bardin-bat, kopiarik geratu gabe. Alojabetasun au zala ta, "Puerta Cerrada" izena ebala idatzi neban ipuiña, irarkolako arduadunari originala galdu jakon, orrelan argitaratzaileak ogerleko batzuk galdu ebazan, baiña askoz be geiago idazle, egileak, ba onek, bere dirua bere eskuratzea ezeze zerbait geiago galtzen dau olako gertareratan.

Galtze onek, aurreratzean neure idatzien kopia bateaz geratzea beartu ninduan, eta bereala idazten arduratuta nintzan ipuiña, ta ganera astirik galdu ezteko, Jonek bere kopia bat idatzi leikela, bururatu jatan.

Ara Jon, nik ipuintxu au osotzen dodan bitartean, saiatu saitez orritxu oneik kopiatzen, esan neutsan.

Ederto, Jonek, gutiz pozik eta arroputs beragan uste-ona adierazo neutsalako, erantzun eustan; orrez ganera, olan bere izki eder, idazketa polita niri agertzeko aukera eban. Ikusiko dau berorrek, jarraitu eban, naizta eurak, berroriek "tolosa" guzki dakien batzuk izan, zelan zuntzun, paletok madriltar aundiekie baño idazle obeak garala.

Joneri txokor bat opa neutsan, beratatik zigarro bat egiteko beste ustu eban; eta Madrillera bialdu bear neban ipuiñaren kopiak, eskutitza larregi aunditu ez egian, orri me-me bat be eskuratu neutsan.

An zan ba Jon bere lanean, egats, lumagaz, egiten ebazan mugimundu guztiak bere aboaz irudituz, bere zentzun, gogo guztia orritxu aretan zan.

Orritxua ia beteta ebala ikusi nebanean, azterkatzera urreraturik, burugabekeriz beterik aurkitzen zala, konturatu nintzan.

Jon, au onelan ezin leiteke joan.

Zergaitik ez?

Lerro bakoitzean amar burugabekeri, ergelkeri, gitxienaz dagozalako.

Burugabekeriak berorrenak izango dira, jauna, ta ez nireak, Jonek guztiz asarre erantzun eustan.

Zuzen zara, izan be nire izki, idazkera guztiz ulertu eziña da ta.

Konturatzen da berori, egiten dabezan ikasketa guzti orreik zetarako balio daben esaten dodanean, diñodanean...

Ondo dago, ondo dago, ez eizu geiago idatzi, Jon, esan neutsan, eta idatzita eban orria urratzen abiatu nintzan, baiña Jonek geldi-arazi ninduan esanez:

Demontre; zer egitera doa berori? bereala orria nire eskuetatik kenduta beragatuz, oiuka iñoan.

Urratu, zatitu, bear da, ez dau ezetarako balio ta.

Zelan ez daiala baliorik? Orri au, zigarrok egiteko be gozo gozoa da. Beste alde batetik zigarroak idatzita, idazkunaz obeto dagoz, errekiñek margoturik dagozala esan leiteke.

Orriaz iru tolestura egiiñik, Jonek bere sakelean gorde eban.

Egun aretan ipuiñaren kopia, bardin bat egiteko astirik ez neban izan, eta bereala Madrillera bialdu-gabe geratu ez eiten, eta baita be korreoz bialduz galtzeko bildur nintzan ezkerro, argitaratzaileari, ber-berari neuk eroatea erabagi neban, eta astirik galdu barik uri ospetsu aretarako bidean nintzan.

Arraio; arraioa, ipuiñ onen gaia une onetara eldutean, zelan makaltzen dan! guardia sibiliek esan eban. Beintzat berorek esango baleu, ain jaseko ta onak ziran neska-mutil arekaitik, Errosa ta Gotzonetzaz, zer izan zan!

Baiña gizona, irakurten, ipuiña irakurten, jarraitu eizu, zure eten-aldi orreikaz, azperturik nozu ta!

Nasaitu bedi, gizona, nazaitu bedi adiskide!

Amaitu eizu bein baten, amaitu, ezin dot geiago ta!

Baia zergaitik?

Laster jakingo dozu,... Irakurten jarraitu eizu, ta jakingo dozu.

Oarkisun onegaz, beintzat olan uste izan eban guardia sibiliek, galtze joakion garrantzia, ipuiñak birjabetze lortu eban, eta irakurten leiatsu agertzen zan.

“Arik ile luze asko geroago, Navacernerora joan nintzanetik ile asko geroago, uri aretatik eskutitz bat artu neban. Idazlea, idazten eustana, Klaudia andrea zan, eta onela iñoan”

“Ez dakit berorrek nire semearen zoritxarra jakingo ba dau. Ni, gertaera zorigaiztoko a jazo zanetik, erdi zoratuta, ezetarako balio ez nazala, ezetarako gauza ez nazala, izan naz. Berorreri jakin-erazteko be ez. Nire seme Jon, kaletzar baten erailda, sastakada zital bateaz erailda, gaba baten agertu zan. Berori emendik urrundu, aldendu zan irugarren egunean izan zan. bere soiñeko sakelatariko baten, epailearen ustez, tankera gizona da ta, ber-berak idatzi ta asmaua izan zan orritxu bat, aurkitu jakon. Orrez ganera, erritar mutil gazte batzuen esanez, eraileak bein baño geiagotan eriotzeaz, ilteaz, zemaikatu eban nire semea, ta beraz ziur dira, Errosa antziña nire semeaz maitamendurik izan zanaren senargai, gaur egun senargaia dana, Errosaren senargaia dana, Gotzon nire semearen eraila dala.

Nik, Gotzoneri parkatu ezeze, Jaunak olan agintzen dau ta, ganera bere sendi ta emaztegaia guztiz onak dira, eta iltera epaitua izan dan zigorretik gaizkatzeko, neure bizia be emongo neuke. Berak bein eta barriro zin egiten dau bera ez dala izan eraile, erru-gabea dala, baiña erru, gaiztakeri aren argi-bideak ain ezin-bestelakoak dira, ta emengo Epaileak agindutako, ezarritako, zigorra, Madrilgo Epaileak be baieztatu dau, ta biar otoiitz-toki, kapillan sartuko dabe. aaii On Antonio, maitea! ze gertaera negargarri ta samiña, bai errientzat, erritarrentzat, eta batez be bere aita-ama ta bere emaztegaiarentzat, nezkez ta samifez ilgo dira ta!

Kontzail Probintzian gūgaitik, gure alde berorrek egin eban guztia, gogoan bizi-bizirik dodan lez, Ama Birginearrtik berorreri eskatzen dautsat, Erregiñaren aurrean belaunikoturik, andra biotz ondun eta eder dauan emakume orreri, zorigaiztoko ta errukigarridun mutil gazte onen gaizkapena lortu dagiala. Errugutu bedi berorrek, biotz-biotzez eskatzen dautsat.

Nire seme errukigarriren aurkitu eben orritxuak, Gotzon (Angel) izenez utsutsean ebala gaizto arek, diño baiña naizta nire arimako indar guztiakaz nire semea-

ren iraillea ez gorrotatzeaz lotsaturik izan, bear bada neure seme bat bezela beti maite izan dodalako, edo... ez dakit zergaitik, guztiz-guztiz ez jat gorrotogarri.

Nire odola izuri dauana, nire errailetako semearen iraillea neure arimako indar guztiak ez-gorrotatzea, oben astun bat dala uste izanik, abade jaunari autortuz, egikisun onegaitik damutu bearrean, Jaungoikoa goratu ta eskertu egin bear dodala, ba da Jau-nak errugabe bat gaizkatzearren olan nai izango ebala, entzutean apur bat nasaitu naz.

Berorrek eskutitz au artzen dauanean, naizta ez dakit ezer ulertuko ba dau, nire idazkera, niri izkia txarra da, ta orrez ganera negar-malkoz ondaturik idazten dot. Gotzon otoitz-toki, kapillan, egongo da, ta jauna, ze atsekabe, samintasun bere ari-marena, eta baita be maite dogun gizaseme guztiena! Jaungoikoagaitik, bere bizitza gaizkatzeko egin bedi berorrek al dauan guztia, berorreri bere amaren gorezpenez, eskatzen dautsat!

Eskutitz au irakurtean, guardia sibillaren begiak negar-malkoz ezotuta egozan.

Begira berorrek, iñostan, Klaudia eskutitz onetan, argazkigile trebeenak eginda baño, obeto argazkituta ez ba da. Barriro diñot, baieztatzen dot, tankera andrazkoa be ba dala, esan daitekela.

Guardia sibillek abots indartsuz irakurten eban ezkeru, niri be eskut-itx arek alako zerbait, biotz-zastada bat egin eustan, eta ertzain arek atxilotu ninduanean izan neban larritasun eta urduritasuna nigan barriztu zan. Une onetan ipuiña guardia sibi-llarentzat guztiz garrantzitsua zan, eta Gotzon gaizkatu ba neban jakin naian, irakur-ten leiatsu jarraitu eban.

“Jonen eriotzean Gotzonek zer ikusirik ez ebala jakin-arazoteko, niretzat eskutitz au naikoa zan. Klaudiak bere seme maitearen gorpuan aurkitu ebala esan eustan orritxua, nire ipuiñ “Los Dos Rivales” “Arerio Biak” izenekoaren leenengo orria zan. Zuzen be Jonen errekin bat egiteko bere prakatako sakel baten gorde eban orria. Egunkari baten leenengo orria, beratan, orri onetan, areriotariko bat, Jon eritxona ta Klaudia andrearen semea bezela esabide ta grifia arrundunatzaz, iñoan orria:

“Nire arerio, etsaiari Gotzon (Angel) deitzen dautsoe, baño aingerutzaz izena utsetsean dau. Bein eta barriro zer egingo eban eta zegaz egingo daustanagaz zemaitu nau, ta ba da ez ba da be, kontuz ibili bearko naz, bestela gitxien uste dodanean, izor-ratuko nau”.

Jonen iraille, iltzailea, espetxeko arduraduna zan. Jonen gorpua aurkitu eben aurrerako agunean, alkar-izketan Jonen emaztegiagaz, neuk ikusi eban.

Beraz, ni Erregiña biotzberatasun amaigabeagan aurrean, gizaseme errugabe bat gaizkatzeko, ez neban aurkeztu bear izanik. Orrez ganera, erailearen saman zigor-aiz-toa ezartzeko, Navalcarnerora joan eta bertako auzi-etxean, egunkari baten agertu zan nire ipuiñetariko bat, epaillearen aurrean aurkeztu ta aitorpe labur bat eginda, naiko izango jatan, besterik ez neban bear izango.

Ostera, erru-gabe ta deduzko sendi baten izen-on eta bizia, ta baita be eraile gaizto, biotz gogordun baten zigorra be, nigan zirala ta, bereala, unetxu bat be galdu barik, Navalcarnerorako bidea artu neban, eta uri aretan aurkeztu nintzan”.

Berori sasoiz eldu zan? urduri, larri zer jazo zan jakin naian, guardi sibillek, esan eustan.

Berorren eskuan dago ni sasoiz Navalcarneroratzea.

Joan bedi ba, unetxu bat be galdu barik, joan bedi ariñeketan, Trueba jauna! ni aurrerantz bultzatuz, uri aretara ziran bi milako bitartea, bere gogoaren indarrez gainaratzeta nai izanik, esan eustan.

Emoidazu ipuifia ba, eusan neutsan.

Berori barriro uri onetara itzultzen danean, kopia bat emongo jako, leen-idatzia, argi-bide bezela, berori dala baieztatzen, egiaztutzen dauana, emen geratuko da.

V

Zuzen be alan zan, Navalcarnerora eldu nintzanean, erriratu nintzanean, Gotzon (Angel) otoiz-toki, kapillan, egoan eta erri, uri osoa izu-ikeratuta aurkitzen zan.

Leendabizi, leenen-leenen egin nebana, errukigarri aren atsekabe, biotz-kezka eztitu, arindu, bere gaizkamena lortuko dala uste osoa nebala, berari baieztatuz.

Ereite izan baño iru egun aurrerago, nik izenpetuta argitaratu zan idazkia, ta erai-learen prakako sakelean aurkitu eben egunkariaz, naiko izan zan Gotzonen aurka ziran argibide, sifinigarri guztiak ezerezteko.

Jonek gertaera orretzaz adi-erazi eustana, nik aitorten bezela azaldurik, bereala iltzaillea atxilotua izan zan. Izugarritzko gaiztakeri orren bakarra bera zala aitortu eban.

Bereala Gotzon azkatua izan zan, gizeseme, ta abereak bere bai, ain maita dogun doaia lortu eban.

Nik, aldi laburtxu baten Navalcarneron geratzea erabagi neban. Egia esan, uri onetan erritarren artean, adeitasunez begiratu nintzan.

Klaudia andreak, erritar bakoitzean seme bat eta babestzaile zintzo bat eban, batez be Gotzon eta Errosa bere adiskiderik berezienak ziran; baiña alan da guztiz be, bere semea gogotik aldendu eziñik goibel, naigabeturik aurkitzen zan. Bere egoitzako bakartasunak eragiten eutsan atsekabe, samintasuna, berantzat jasan ezifekoa zan.

Egun baten, platzatik zear Gotzon eta biok ibilaldi bat egiten gengozan, zuzen be Gotzon eta Errosa eskondu aurreko eguna zan, jakiña, estegu orretan tarteko, kide, izango nintzan, ara non Klaudia andrea zoro bat egiñik oiuka ta negarrez, ariñeketa baten gudanantz, no agertzen dan.

Nire semea!... Nire semea!... Semea ba dot!... Eskerrak nire Jaun eta Jaungoikoari!... Eskerrak Ama Birgiña guztiz Donea.

Gotzon eta nik, andreak burutik egin ebala, zoratuta zala, uste genduan, ta bereala beragaz topo egitera joan giñan.

Andra errukigarria nasaitasun apur bat lortu naian gure besoetan oldartu zan. Orduan jakin-arazi euskun, aitatzen eban semea Pepe zala, antzifiatik eta urte luze askotan galdutzat izanik, ainbeste negar-malko atsekabetsu izuri-azo eutsana. Pepe, Habanatik ia aberastuta mutil gaztea ondiño ta osasuntsu, bere amaren zaartzarua guztiz alai ta zoriontsu izan daiten saiatzeko gertu egoana, etxeratu-barria zala. Eldu-barria zala.

Gotzon eta Erosan esteguan tarteko, kide izan nintzan egunean aifako zoriontsu gitxitan izan naz. Egun aretan nire begien aurrean agertu zan zorion utsa aifakorik zoritxarrez egunero ez da jazoten; sendi, aide adiskide ta jolaskide guztien aurpegie-tan, zorion-utsa nabaritzen zan.

Biramonean Madrillerako bidean nintzan, eta Motolesen, guardia sibillek idatzi-azo eustan ipuintxuaren bir-idazki, kopia, bilatzen ordu batzuk bertan, geratu bear izan nintzan.

Guardi sibillek guztiz urduri, kezkatsu itxaroten ninduan. Navalcarneroko nire bidalian jazo jatana zeatz-zeatz nigandik azalduta jakin-naia bizi-bizia eban.

Atsegiñez ederretsi neban; egia esan, une aretan, erru-gabe baten eriotz urka-mendi laidozko irudiak, ez ninduan kezkatzen, urduritzen, eta nire azalpena alai ta guztokoa zan.

Bir-artzeko, eskuratzeko, ain leiatsu, arduratsu dan ipuin orregaz, zer egingo dau berorrek ba? bere eskuetan eukan idazkia emonez, esan eustan.

Ba... noa, ba, erantzun neutsan, ogitan biurtzen.

Au da, dirutan, ez?

Bai jauna.

Ara jauna, gauza bat bururatzen jat, burutasun bat dot, eta ez dot berori ezelan be iraindu nai. Zuek, berokiek zerbait sortu, asmatzeko, sentipena bear dozue, gero beroien egite, sortzeak saldu egiten dabez, niretzat, nire eretxiz, arimeak berari dago-kion zerbait, biotz-taupadan eragiñakaz sortua izan dana saltzea, guztiz doilor, zis-triña da.

Prantzik, erantzun neutsan, biotz-taupadak ezeze negar-malkoak be sal-erosten dira, eta orretzaz Alejandro Dumas erdi-baltzak, erantzun egokia emon leike. Berak idatzitako bezela ezagutzen doguzan idazki asko sortzeko izan ziran biotzkadak eta negar-malkoak, bere jokaera zitalaz, ber-berak erosi dauz. Baiña ori gaur egun eta Jaungoikoari eskerrak, Españan ez da jazoten, egileak, bere egiteak, idaz-lanak, sor-tzen dabezean biotz-taupadak eta negar-malkoak, euren barrenean kutxatxu baten olan idatzita, zaindu, jagon eta babesten dauz:

Antonio de Trueba

ELARDIA

I

Alkarria deritxon aran bakar eta eder-eder baten, erritxu bi dira luditar guztiekandik aitzuta diranak, guztiakandik esan dot eta au ez da egi osoa, jaurleritza, gobernuagandik, izan ezik esan bear neban, ba da onek, zergak banatzean, eurei dagokien zerga-zerrendan zeatz ezarrita izaten dauz.

Oneitariko erritxu bat Retamar deritxo ta bestea Tomillar.

Retamatarrek, sasi ta izatz bezela, lazkar y mingotzen aomena dabe, ostera Tomillartarrek, bigun eta gozo, eztitsuenta, ez kai-belar eta eztilakoek.

Zaldun bat, txakur txiki bat bere lagun bakarra zala ta eiza-izkilua bere bide-orni bakarra, udabarriko goiz eder eta alai baten, mendiska goi batera eldu zan. Beratatik, mendiska goi aretatik, aran, ibarraren muga biak jabetzen ebazan erritxu, baserri biak begiztatzen ziran. Bertan aldi, asti naiko luzean gogartuz, urrenen aurkitzen zan errirantz, Retamarrerantz abiatu zan.

Retamarretik guztiz ur, bide aldamenean aurkitzen diran zumar baltz eder batzun kerizpetan iturri bat dago. Bertatik, inguru aretatik, igaroten diran bidagile urriak, zurrutada bat ur ozkirri ta gardena edan, eta zumarren barrenean guztiz latz landuta dagon arrizko aulki baten atsedean apur bat artu barik, euren bidalian ez dabe jarraitzen.

Txakur eta eiza-izkilidun zalduna iturrira eldu zanean, mutiko batek, bere asto-txuak zumar artean larratzen eban bitartean, urez bete ziran ferreta bi, asto-otsaratan ezarri ebazan.

Iturrira eltzean mutillak adietasun osoz bidagilea agurtu eban, eta au bidegilea, bertan geraturik, mutilagaz alkar-izketa bat izan eban.

Erri au zelan deritxo?

Retamar deritxo, jauna.

Bere itxurea guztatzen jat.

Jauna, nik esatea ez da ondo, baiña Alkarria guztian au bezelako erri onik, ez dau berorrek emendik aurkituko.

Eta a, ibar, aranen muga ertzean agertzen, ikusten dan beste a?

A Tomillar da, jauna, baiña onen erdirik be ez dau balio.

Tomillatarrek zelako gizasemeak dira?

Notin, pertsona onak ba dira, baiña lelo, keto, ezjakiñ utsak.

Lelo, ezjakiñak, zelan?

Bai jauna, Tomillarterrei asto onek egaz egiten dauala, berorrek ba diñotse, ziur siñistuko dabe. Eta egia esan, euren lelokeri, ezjakitea guztiz kaltegarri dabe, ba da Retamartarrek ondo be ondo zirikatzen dabez!...

Eta zergaitik zirikatzen dozuez, ba?

Eurakaitik, euratzaz, euren buruz, esaten diran gauzakaitik.

Eta zertzuk dira orreik?

Amaigabeak, (Una enfinidad, diño Truebak). Begira bedi berorrek. Bein baten Tomillatarrek eguzki-orratz bat egin eben, eta euri ta eguzkiagaitik lardaskatua izan ez eiten, eurakandik babestzeko, teiletu txiki bat egin eutsoen, eta jakiña, iñoiz ez eben jakin ze ordutan bizi ziran. Beste baten erriko elizeari arlanduzko dorre bat egiten saiatu ziran, baiña amaitzeko, azkena emoteko arri landuen utsa izan eben lez, azpikoak, azpiko arriak, goi-aldean, ganean ipinten saiatu ziran, eta dorrea lurreratu zan, jausi jaken.

Tomillartarrek aberatsak dira?

Txiro txiro utsak. Aberatsak Retamartarrek dira. Naizta itaundu, galdetzea ondo ez izan, berori Retamarrera dator, ala emendik igaroten da?

Aran, ibartxu au guztatzen jat, atsegin jat, eta berton eizan egiñez jolasturik, egun batzuk bertan emoten nator.

Errian eizarako lagunak erbi-txakur ta guzti, ugari izango dauz.

Iñoren laguntzarik ez dot bear, nire atsetik nire otsaiñak datoz eta.

Mutila atserritarragaz nabaritzen joian, kututasuna beragan sortzen joiakion, baiña bere morroi, otsaiñatza esan ebana entzun ebanetik aurrera, arik aurrera, bere abotskera, itzaltasuna, zaldun bateri dagokion aditasunez egiña zan.

Bai jauna, berori emen guztiz guztora egongo dala, uste dot, atsegintsu izan dala. Lurralde onetan eiza ugari da, batez be larra, belardian. Retamarreko larre, belardia berorrek ez dau ikusi?

Ez.

Berorrek gauza on bat ikusiko dau. Ez dabiltz ba Tomillartarrek gogotsu jo ta ke, eurakanatzeko naian!...

Azkenean erabagi dot, Retamar, Tomillar baiño atsegintsuago jat.

Eiza ezeze, beroei, jaun aundikiei guztatzen jaken jolasketa bat, berorrek emen aurkituko dau, Tomillarren eziña da.

Eta zein jolasketa, jostaldi da ori, ba?

Antzokia. Irri-antzerki alaiak aurkezten dauazana.

Baiña zer, retamarren antzoki bat dago, ala?

Ez da egongo ba. Osagile, irakasle ta beste jaun batzuk, alkate jaunaren upeltega, antzoki baten biurtu dabe. Madrillen bertan be ez daukie obarik.

Urrenago joan barik, joan dan lgandean alaiago eziña zan irri-antzerki aurkeztu eben, notintsa, gendea barreka ito bearrean izan zan!... Berorrek jauna ifioiz ikusia izango da, ziur. Begira jauna, gizon bat llescas'en bera markes eta ez dakit zer geiago aundiki-izen dala ifioana eldu zan. Bertako etxe baten dei egin ebanik, etxe beratako etxeoandreak, bera Tomillatarra ta beraz erritarrak biztanle guztien bezela ergel, ezjakin bat, esaten eutsan guztia sifisturik, arik eta markes maltzur, siztrin bat zala jakin arte, etxean eukana ta ez-euakana emon eutsan. Antzerkia gai onen buruz da.

Bai, bai, Irri-antzerki ori ikusi dot.

Alkar-izketa onetan, atserritar eta mutila erriaren sarreraño eldu ziran, iru-bide batera, bertan Tomillarrerako bideak urirantz jarraitu bearrean, uri mugarantz birartzan zan.

Zer jauna, mutilak itaundu eutsan, berori Retamarren ez da geratzen, ala?

Bai, baiña leenago erriaren inguruak ikusten joan nai dot.

Ederto, ederto jauna.

Agur morrosko.

Apur bat geroago atserritarra Retamarretik aldentzen da, ta tomillarrera urreratu.

II

Zuzen be, Tomillar, Retamar baño erri txikiagoa zan, eta baita be, itxuraz beintzat, txiroagoa.

Mendiska txiki baten, eskai-belar usaintsuak inguratzen ebala eraikita, egoan. Guztiz berrogei bat etxe eta eleiz dorre-gabedun batek osotzen eban Eleizearen dorre-gabetzeaz dala ta, Retamarretarregandik sekulakoak, Tomillatarrek entsun bear izaten ebezan.

Eleizpean pelotan jokutzen egozan mutiko batzuk ikusi eben, zelan Retamarrerako bidetik, aldatz-gora atserritar bat etorrela, ta erri osoan albiste au arin zabaldu zan. Zaldun bat Tomillarrera urreratzen zala.

Erbestetar bat errirratzea, ta batez be zaldun baten errirratzea, Tomillarren sekulako albiste, barria, zan. Alan da ze, eiza-izkilu ta txakurduna, eleiz aurrean mugatzen dan aldatz-gora igon baño leenago, bera ikusi naian, platzan notin moltso bat aurkitzen zan.

Erbestetarra, obeto esanda jauna, Tomillatarrek olan deitzen eutsoen, berrogei bat urte inguruko gizon bat gizon jasekoa; bere jantsikeratik, bere jauntasuna etorri guztiz urrikoa zala, ikusten zan.

Danak, erritar danak, adeitasunez agurtu eben, eta berak maitasuna agerturik, itaundu, galdetu eutsen:

Erri onetan neure morroi, otsaiñakaz geratzeko, ba dago arroztegi, ostatuetxe anbat?

Tomillatarrek, naizta erbestetarrak eurakan itzaltasun berezi bat sortu itaun a entzutean, irribarretxu bat ezin izan eben geldi-arazi, ta erbestetarragaz izeko Hermenegildaren etxera joan ziran.

Izoko Hermenegilda, obeto esanda izeko Menegilda, errian olan deitzen eutsoen, andra alargun bat zan. Nozean bein Guadalajarara sal-eroskiak erosteko bidali bat egitez, ta bost edo sei bat ogerleko bere esku arteko dirutze erdia izanik, dendatxu baten jabe zan. Orrez ganera Tomillarrera eltzen ziran erbestetarrak, sergari, serga-billatzaile anbat edo Guadalajara ta Siguenzatik eiztari anbat, bere ostatarriak izaten ziran.

Gumersindo, edo Gumesindo, izen au leenengoa baño egoki, errezagoa, abotsez esateko Tomillatarrek ikusten eben eta, Merengildaren semea zan, eta eskerrak bere amaren buru-ukatze ta amaibako lanari, zorion-aldi berezi bat igaroten eban. Bere amak illako gizonaren ondorez jabetu zan lurralde txiki bat, bere semea gudaroste, soldadizkatik, azke geratu eiten, saldu bear izan eban.

Ama alde batetik jo ta ke lanean, eta ama-semeak piltxikatuz, Jaungoikoari eskerrek bakez eta zorionsu bizi ziran. Euren bizitza-etorriaz, naizta urria izan, egokitzen ziran, eta euren zori-txarra, kaxkarra izan, beragaz etsituta diranak bizi al diran zorionsu, bizi ziran.

Esaidazu andra errukigarria, arrotsak bere aboskera maitasunean jarraituz, izeko Menegildari itaundu eutsan. Nire otsein, morroiak, emendik ez dira etorri?

Ez jauna, emendik iñor ez da agertu.

Maltzur, zital, orreik! Madrillera eldu orduko, morroi-nagusi ta zaldiburdi gidarian asita, danak kalean itxiko dodaz, guztiz asarre jaunak esan eban.

Ara Jauna, nasaitu bedi berori, etorriko dira, agertzen ez ba dira, nire semea ta biok zure zerbitzariak izango gara, berorrek agintzen dauan guztia zeatz beteko dogu, mayordomu, etxe-zaindari, ta zaldi-burdi gidaria bere menpean dabezanari dagokion apal eta itzaltasunez, Menegildak erantzun eutsan.

Ni belardian eizan jolasten nintzan bitartean, bidea apur bat zearkatuz niri itxaroten, nik agindu neutsen bezela, ona etorri baño, nire lau zaldidun zaldi-burdian Guadalajarantz jarraitzea guztokoagoa, erosoagoa, uste izan daben maltzur orrei itxaroten egoteko, gela apain, jaseko bat bear dot.

Izoko Menegilda, atserritarra lagun ebala, etxeko gelarik, apañanerantz abiatu zan, au da, eraz, erabidez altzaritua, baiña garbitasun eta eraz, antolamendu bitartez apainduta, edertuta egoan aretora.

Au baño gela, areto oberik, jasekoagorik, berorrek ez dauka?, atserritarrak destaiñez itaundu eutsan.

Ez jauna, bere ainbeste lan, izerdiz, apaindu, edertuten eban areto, gela aundia, erbestetarrak bere guztokoa ez ebala aurkitzen ikusirik, andra errukigarriak apur bat baño geiago mingoztuta, nekazarita, erantzun eutsan.

Beste obeagorik ez ba dago, ontzat artu bearko dot, eta maltzur, zital orrei berton itxarongo dautset. Berorrek aitu, ulertuko dau, andrea, amabiko bat morroi baño geiago euki, izan, ta egoitz bezela jauregi eder-eder bat, erregiñak berak be, ikustaldi

bat egitera joaten danean, eroso ta ederra aurkitzen dauan jauregia, onelako gela baten geratu bearra, eta orrez ganera norberaren serbitsurako bere buruaz utstusean aurkitzea, aserregarria da.

Aaaa jauna! arrituta, Menegildak esan eban, orduan Erregiña ber-bera berorren jauregira joaten da? Ondo esaten dabe, Erregiña andra guztiz ona xalotasunduna dala.

Andratxua, zer diraustazu? arroputz asarraturik, Menegilda ikeratuz, erantzun eutsan. Uste dau berorrek, nire etxea onelako txarritoki bat dala, ta beroiek bezela ni berakatz usaindun kalekume basati bat n azala? Asto kaleko nire jauregia, printzipe ta printzetza ospe ta dirutsuak onartzeko duiña da, ta nazan Picos Altos'ko kondea, deduzko dodan titulo ospetsu ori, Españaiko aundikitasun, aundikieria izango litzake obeto, ospetsuenatariko bat da.

Parkatu bedi berorrek, jauna, mar-mar izeko Menegildak bildurturik eta nasgarrituta, iñoan, berorik ez neban iraundu nai, jauna...

Ba dakit, andrea, ba dakit; berorrek, nigan uste osoa dauala agertzeko, adierazoteko, ta niretzat guztiz begikoa dala, barriro gogoratu bear dautsat naizta etxe, egoitz bikain, sekulako baten jabe izan, niri dagokiostan itzaltasuna, berorreri ez dautsat emon-arazi.

Milla esker jauna...

Ez da zergaitik, andratxua. Nik bai eskertu bear dot berori, nire aldarte kezka-tsua, izan dozun parka-zaletasunagaitik.

Izeko Menegilda, bere gelatxu txukun ta politari txarritoki, ta Tomillartarrei berakatz usain basati, ezjakiñak, Konde jaunak deitu eutsezala, ez zan gogoratzen. Etxean eukan, bere egoitzan egoan jaun ospetsua nor eta zelakoa zan jakitan sakontzen joiala, bere arroputzkerria puztuten joan zan. Azkenean, uste eban, erriko alkate ta abade jaunari berorika berba egiten eutsen bezela, berari be, kondeari be, bardin egiñik, kondeaz arrera bardiña erabillirik, konderari dagokion itzaltasuna bazterturik, ez nekazaritza ez zala ludi, munduko diru guztiakaz ordaintzen, ziur zan.

III

Kondea Tomillarrera eldu zan egunetik, aste bete oso ez zan igaroko, ta Tomillartarrek pozez plast egiteko egozan.

Atserritarra, gizon guztiz aberatsak, gobernu, jaurleritzagaz ez eze Erregiña berberagaz be aireman bereziak ebazan arek, Tomillar babesteko erabagi zintzo bat artu eban. Baserri txiro eta erdi-aiztu a, Alcarriako uririk aberats eta atsegintsuena biur-tuko eban. Aldi labor baten albo-erriko uriakaitik bekaiztuena izango zan.

Picos Altos'ko konde jauna, baserri aretan izan eban arrera-on, txera, abegi kutunaz eskerturik, eta Tomillar erriak, beintzat bere eretxiz, batez be langintza ta eizarako aukera onenekoa zala uste izanik, erri arentzat erritar areintzat, sekulako man-xunga oneik lortuko ebazala, erritarrei adierazoten eutsen.

Mantxungak, oneik ziran:

Tomillar, Probintziko Uri-Nagusia izandatzea lortu ezifia ba zan gitxienez Tomillar Uri Burua izendatu egiela.

Soriako tren-bideak uria zearkatu egiela, edo Tomillarrerako adar berezi bat egiela.

Tomillartarren ordein-gabe aurkitzen ziran zerga guztiak, parkatuak izan eitezala.

Tomillarren konde ber-beraren diruakaz, oial eta eun guztitarikoak egiteko, lan-tegi bat eraikitzea. Zuzen be, aldi baten ospetsuak izan ziran Guadalajara ta Nuevo Baztaneko oialtegiak menperatzeko asmuz, naian.

Tomillar lurraldetan ain ugari ziran urre ta zidar meaztegiak, eta beraz, guztiz aberatsak, bertako langille lanen bitartez azaleratu, gañeratu, erriko zoriona izan eiten. Kondea meaztegingtan gizon guztiz trebea ei zan eta bere eretxiz, lurralde are-tako meaztegiak altxor berezi bat ziran. Meaztgitzatzaz berak, kondeak, eban zaleta-sunak eraginda, Sierra Almagrera eta baita be Hiendelaencinan be egin ebazan meaztegi aurkizetan, argi baieztatu al izan eban, bere asmakisunen argitasuna ta ziurtasuna.

Tomillaren Aita Eskolapiotarren babespean ikastetxe bat eraikitzea.

Uri inguruko lurraldetan, konde ber-berak, bere diruakaz uda-jauregi eder-eder bat eraikitzea. Jauregia alde guztietatik lorategi eder eta usainbetasun, aulak izan, etxegunek eskatzen eben sal-neurria ordaintzeko gertu egoan.

Eta azkenez, eta au bai zan Tomillartarrek zorutzen ebezan mantxunga seku-lako, zoragarria. Tomillar eta Retamarretarrek antziña-antziñetik, mende asko aurreragotik alkar liskartzen, borrokan Ojabetu naian ebiltzan larre, alagua, legez Tomillar urria beragaz jabetu eitela. Onelan urten birritan izaten ebezan alkar muz-tur-apurtzeak amaituko ziran. Au da, Retamatatarrek Tomillarreko jaietara, eta onek, Tomillartarrek Retamarreko jaietara joaten ziranean izaten ebezan alkar-jote ta borrokak.

Onek ziran bai, Picos Altos'ko kondeak Tomellarretarrei opatzen eutsazan man-xunga benetakoak. Beste eskeintze berezi batzuk be ba ziran, baña bi uts-utsean aitatuko doguz. Konde jaunak, izeko Menegilda ta Gomesindogandik izan eban arrera-on itzaltasunagaitik, zerbaitegaz ordaindu nai ebazan, eta orrelan bate, Mere-gilda Tomillarreko jauregi barriko giltzazaiña, ta Gomesindo bere etxeguntze barria-ren morroi-nagusi, arduraduna, izendatzea be erabagi eban.

Tomillatarrekandik izan ebazan opari, arreman eta iltzaltasun bereziakaitik, Madrillen, Asto kalean eukan jauregi eder oparotsua, opa eutsela esatea, alperrikoa izango litzake. Madrillera Tomillatarrek joaten bearturik ziran bidali guztietan, jauregi orretan Erregeari dagokion arrera, gizatasun, itzaltasunez izango zirala. Orrelan Bar-tzelona ostaetxean Tomillatarrek, bere kortatan kokatu bearrik ez eban izango, ger-taera onek Bartzelona ostaetxeko nagusia guztiz nekazaritzen eban.

Aditu, ikusi dagigun ba, guztia au arrokeriz plats egiteko bezelakoa ez ba da.

Bere otsein, morroi maltzur, zitalak, Tomillarretik ez zirala agertzen ikusirik, erri txeratxu, arrotzale aretatik, alde egitea erabagi eban. Onetarako be, ba eban beste zio berezi bat. Madrilletik urten, irlen, zanean Erregiña ber-berak, aldi aretan eukan

gobernuaz guztiz nekerazita zala ta beste barri bat eratzea, berari, kondeari, agintzeko uste ebala, adierazo eutsan.

Baiña zoritxarra, konde jaunak, Madrillerako itzultea, beralako gizon ospetsu bateri dagokion oparo ta naisatunez egiteko bearrezkoak ziran zaldi-burđi ta gaiñeroko tresnak bialdu egiezan, eskutitz bat be ezin eban bialdu. Bere andrea, kondesa, umedun zan eta bere gizon maiteak orrelako ezbear eta naigabeak jasan bear ebazala jakiñik, jbera zan nezkatoa ba!, petrel, betterre a, gauza zan ogetalau ordu barruan, aur-galtzea izan.

Tomillatarrek, Kondeak erri aretatik aldentzeko erabagi zintzo bat artu ebala jakin ebenean, gizon leiñargi, esku-zabal aregan aurkeztuz, kondea errian aldi luzarogo gelditi eiten, erregutzeko, talde bat izendatu eben.

Talde onek, bere egin bearra zintzo bete eban, baiña Picos Altos'ko kondeak bere erabagia baztertu ezifiekoa zala, adierazo eutsen.

Erritarrek, kondea zalantza gabe erbestetzeraz joiala jakin ebenean, zekor, txal, bat bezela arrantzaka negarrez asi ziran.

Azkenean, eldu zan bai, egun zoragaiztokoa, kondea erbesteratzeko eguna. Bere morroi, otsein zital, maltzur areik baztertuta itxi eben ezker, jakiña, diru barik aurkitzen zan. Berak, kondeak, Merregilda ta Gomesindok, izeko Merregilda ta Gomesindok beragaz izan eben arremen itzaltasun bereziagaitik, ondo be ondo ordezkatu nai eban, eta ori dala ta, urrezko eraztun garesti bat baituran itxi, utxi, nai eutsen. Eraztuna, sekulako polit, ederrena, dirutan ikaragarritzko balioa eukana, berak ifioanetik, Erregiña ber-berak bezuza bezela berari emonekoa zan.

Izeko Merregilda ta Gomesindok, kondea leenengoz ikusi ebenean, eta beragan siñistu ez ebelako, kondearen eginkera au, irain bat bezela artu eben, eta negar, notika asi ziran. Kondeak be, euren zintzotasuna, zeaztasuna iraindu ebalako, parkamena eskatu eutsen, baiña Merregilda ta Gomesindok, bere damutzea, aurreratuta euken urrezko ontza bat biderako artzen ez ba eban, ontzat ez ebela artuko adierazo outsoen.

Konde jaunak ez eban beste irtenbiderik, urrezko ontzatxua onetsi bear izan eban.

Erritarrek, adikor bereziak eurak be, ez eben gitxiagotzat geratu nai, ta izeko Merregilda ta Gomisindo bezala eurak be uste izan eben, morroi, otsein, zital areik, kondeaz izan eben jokaera maltzurra dala ta, kondea diruaz urri, obeto esanda, diru barik, dirurik ez eukala ta, kopuru polit bat eskeintzea erabagi eben, au da, ogei ontza urrezko emotea.

Ez da esan bearzenik, kondeak pozik eta bein eta barrero eskertuz, artu ebazala. Ori bai, bere biotz-eragiña nabarmenez agertuz.

Kondea laguntzen Retamarreraño joateko erri osoa gertu egoan, baiña Kondea, beti lez apal eta zindoa, ez eban nai ori Tomillatarrek egien, eta geienez Tomillarren mugaraño laguntzea zillegi eutsen.

Kondeari, jaun ospetsu oneri, bidarte laburrean, labur-laburrean, lagunduko dau-tsagun ezker, Tomillatarrek esan eben, laguntza ori, gizon ospetsu oneri dagokiolakoa, sekulakoa, ezin ohea izan daitela.

Erriko zaldi-burdi apain, dotoreena billatu eben, oial-estalpe bikaiñago bateaz

apaindu, burrudi ta illeskiz apaztuta, loraz edertu, ta bertan, azkenean Konde, jauna igon-erazi eben.

Konde jauna zaldi-burdien guztora, eroso jazarrita aurkitu zanean, biotz-eragifñez, erdi-negarrez esan eutsen:

Beroiek nai dabenean, idiak buztetu zeinkeez,

Ze? geu baño idi obarik, erritar guztiak oiuka iñoen:

Eta zaldi-burdia Tomillartarren bultzakadak eraginda, or doa abidan, eta arik eta Picos Altos'ko kondea eroan zaldi-burdia estaldu arte, txalo, gora ta negar-sotinka batera zirala, ez ziran geratu.

IV

Zortzi egun joanak ziran, Tomillatarrek atsekabez, naiga-bez ondaturik, Picos Altos'ko kondea erritik aldendu zanetik, eta ondiño iñok ez ekian gizon ospetsua Madrillera eldu ba zan ala ez. Kondeak, Tomillarretik erbestetzean emon eban itza, Madrillera eldutean idatziko ebala esana, bete gabe ikusirik, guztiz urduri, kezkatu ziran. Kondeak bere itza bete ez da eban, bere barririk errira eldu ez ba zan, zio nabarigaitik izango zan. Bidalian bear bada, estrepu, ezbear anbat izango ebala edo gaixorik aurkituko zala, uste eben.

Gai onen buruz, kondearen barri-gabetasunatzaz errian batzar nagusi bat egiteko garai zala, alkatea jaunak uste eban. Leenengo ta bein, kondeatzaz jakiteko edo jakin naian, eta bigarren, Tomillatarrek beragaitik, kondeagaitik, zelan arduratzen ziran jakin-azoteko.

Udal-zaiñak, parkatu jaunak, antziña antziñatik batzarretara dei egiteko eukan adarra jo eban, eta erritar guztiak, danak, adarraren doiñuari jarraituz, udal-etxera joan ziran.

Eztabaida luze ta sutsu baten ondoren, jbearrezkoa da, naizta mingarria agertzea!, izlari batek baño gelagok arazo tamalgarri a zuzentzeko, bere izlaritz trebetasunaren ganeti, aurretik, aberriaganako zorion eta ondasuna, jarri ebazala. Eztabaida aren ondorioz, alkate jauna, udal-zain eta irakaslea, Tomillar erriaren ordezkari bezela, Madrillera joatea erabagi eben. Bertan, uri ospetsu aretan kondea ikustatu, ta bidali on eta zorionsua izan ba eban, zorionak opatu, oster a gaixo edo beste kalte anbat izan ba eban, ainbat-leen osatu eitela Tomillatarrek biotz-biotzez nai ebela adierazo.

Errekotrez, Meregildak, erritarren erabagia jakin ebanean, esan eban, neu be, jaun errukigarri ori ikusten, zuokaz joan naz, ba.

Arraio, arraioa! Gomisindok iñoan, ni be berorekin joango naz ama, ia alkate naastatzaille ori, kondeagana txukunkeriz eta guzurrez arazoak apaindurik, diru-zain izendatzen ba dabe; benetan jazokera ori tamalgarria izango litzaket, eta jazo ez daiten, alegindu bear naz.

Izeko Meregilda, kondeak guztiz atsegintsu ebazan opil gozotariko amabiko bi, txistu baño ariñago gertu ebazan, gero bere buruko ule, ile, baltzizkakaz zizur bikote bat egiñez, bereala apaindu ebazan, lgandetako gonea jantzi, kotoi, algo-doizko buru-zapi bat jarririk, opillak otsaratxu baten ezarri, jta ala andrea!, ederto, dotore apaindu zara!, ta bere semea lagun, au be, diru-zain nagusi baterik dago-kion bezela dotore, or doaz ama-semea, Tomillartarrek aukera ebezan ordezkaria-kaz batzera.

Alkate jauna be, bost ogerlekoko longain bateaz apaindurik, irakaslea, izkitza eskoladuna izanik, longaiñik ez eukan lez, bere diru-urritasun bezela, bere diru-urri-tasunari dagokion bezela, korbatea estu-estu jarrita, bere alogora aiñako galtza motsak, bere etorkisunaren antzeko kaltzerdi baltzak, eta bere eskuak sakel utsetan sartuta, or doaz, gure Tomillartarrek, konde jaunagana.

Ministroaren jazkeragaz ez dogu ezer esango, bada au gizaseme berezi bat ez da, gizon arrunt bat baño.

Retamarreko azkenengo etxeak atzean geratu ziranean, konde jaunagaz alkar-izketan ikusi genduan toki ber-beratan, mutilla eurakaz batu zan. Aurrerako egun baten etorren iturri ber-beratatik, oraingoan bere astotxuaz iturrira joian.

Retamarretik, zer dago, mutiko?, alkate jaunak itaundu eutsan.

Gauza gitxi, gutxi, erritarrak irri-antzerkiaz pozik jolasten dirala.

Zer, Retamarren irri-antzerkiak daukazuez, ala?

Eta onenatarikoak. Bart, BARON deitzen dan bat emon eben, aurkeztu eben, eta oraingoan, leengoan baño be atsegintsuago izan dira. Berorrek ez dau ikusi iñoiz?

Ez.

Ba, neuk eurei zelan dan azalduko dautseet.

Eta mutillak, Morantinen irri-antzerkia, zeatz azaldu eutsen.

Irakaslea oldozkor geratu zan.

Gomisindok zeozor, zerbait, esan nai eban, baña azkenean ixilean, mar-mar auxe uts-utsean ausartu zan esaten:

Ze jokaldi b...

Mutiko!, irakasleak guztiz asarre ta txakur aurpegiak, erantzun eutsan, mutil erru-gigarria ixil ixilik geratu zan.

Mutil-Retamartarra iturrian geratu zan, eta Tomillartarren ordezkariak aurrera ta aurrera egiñez, errege-urirantz euren bidalian jarraitu eben.

Bidalietan oitura eben lez, asto ganean, bakoitza berean, bere asto ganean bidali-rik, illuntzean Alkala atetik uriratu ziran.

Konde Picos Altos'ko gizon ospetsuaren aurrean berari, gizon ain itzaltsuari dagokion bezela aurkeztatzeko, bostak, bost Tomillartarrek, Zibeles iturrian euren aurpegiak garbitu ebezan, eta euren astoakaz batera, iturri beratan, danak ziran ega-rria, beraz sekulakoa, azetu eben.

Astoak, zamariek, Bartzelona ostaetxean kortaratu ondoren, Puerta del Sol deri-txon auzunera abiatu ziran.

Platza au ikusi orduko, bereala, alkate jauna oiuka asi zan:

Sua!, Sua!, etxe ori erreten dago!

Etxola argitsua zan etxetxu orretara leiatsu, sua amatau naian abiatu zan, eta bere guraria lortzeko, berak eritxon sugar ganean bere logaiña, edatu eban.

Etxola arduradunak, baserritarrak txantxetako gogoa ebala uste izanik, ostikada bateaz alkate jauna ankaz-gora bota eban, jaurti eban, eta bertan aurkitzen ziran ikusle guztiak, danak, buruzagi ospetsua, txistuka agurtu eban.

Alkate jauna bere utsegitetik, eta etxola arduradunaren ankapetik urten al izan ebanean, irakasleak irakaskintza bere ogi-bidea zan ezkerro, ta beraz gizon jakituna, argitasun osoz azaldurik, etxola-argitsuen beira guztietan idatzia izan eiteken, duiña zan epai zoragarri au, oiuka iñoan:

Sua, argiagaz naaspiltzen dauan buruzagi, nagusia, ostikadaka ilteko arriskuan, jarritzen da.

Kale Mayor eritxon kalean oinperatu ebanean, bertan olgetan ebillen mutiko bateri, itaundu eutsoen:

Zu mutiko, Konde Picos Altos jauna, non bizi da?

Mutillak bere abots oizkoz erantzun eutsan:

... bizi da, ta irakaslearen belarrietan izugarrizko oiua bat egiñik, jarraian, iñoan: "ASTOA"...

Egia da, bai, egia da, nekazari guztiak, irakaslea be kide zala gogoratu ziran, zelan kondeak Asto kalean jauregi eder bat eukala, jauregi eder baten jabe zala esaten eutsela.

Ezkerrarantz okertuz, Plaza Nagusian sartu ziran, baiña bertan jazorikoak beste alata bat, atal berezi bat, merezi dau.

V

"Tuti-Li-Mundi" txerpolariek, plaza erdia oinperatzen eban, gudari, aurzaintzaille, ume, baserritar eta Koriako ergel, keto, ezjakiñak, saratatsu ta gozoro, alaitzen ebezan.

Ran, rakatapan, rakatapan!; bein eta barriro danbolin saratatsua entzuten zan, eta bitartean bere eragilleak oiuka iñoan:

Iru txakurgaitik, "Gizon gaiztoaren Bizia" nok ikusi nai dau? Rakapan Rakatapan!. Bereala asiera emotera goaz!... Bizkortu zaitze, jaun-andreok, emen asko ikasten da ta.

Ama, ni ori ikustera joango naz, Gomisidok bere amari esan eutsan. Gaur egun diru-zaintzailleak asko jakin bear dogu ta, txakur-afari larregi da ta.

Jakiteak, bere jakitunaren sakontasuna agertuz, irakasleak esan eban, ez dau tokirik betetzen. Danok, danok, joango gara ori ikustera, ta zu leenengo, danan aurretik, alkate jauna.

Bost Tomillartarrek euren jazarlekuakaz jabetu ziran, eta txerpolariek euren lanean "Gizon Gaiztoaren Bizia" onela azaltzen eben:

Ikastolara joan bearrean, marrakan jokutzen dau.

Bere ama ber-bera joten dau, ta espetxeratzen dabe.

Gudarosteara doa, lerroratzen da, ta lapur eta igeslari da.

Guardia sibillek arrapatzen dabe, ta Melillara atxilotuta eroan.

Zigorra betetzen dau, ta mustatx, bibote ta okoz-ille itxi, utxiten dau.

Zaldun aundiki bat bezela jantzita joko-etxeetara doa.

Ustekabe bat dau, boltzalari biurtzen da.

Boltsan ulertzen dau, ta galtzen ba dau ez dau ordaintzen.

Emaztorde, joko ta zaldiak, lauiko bat barik jartzen dabe.

Meatzaritzan saiatzzen da, azpikeri, iruzur-bidez dirutsa irabasten dau.

Ez dauka dirurik eta lapur eta lapurtu ta mandazain bat ilten dau.

Jabetu, irabasi dauan diru guztia, deabruak daroatso.

Paper bat eskerniatzen dau, ta Madrillera iges egiten dau.

Ez daki nora eltzen dan, eta Konde arroputz bat agertzen da.

Baserritar, basati ezjakiñak siñisten dautsoe, eta euren diruak beraganatzen dauz.

Guardia Sibillek arrapatzen dabe, ta espetxeratzen dabe.

Tomillatartarrak ixil ixilik geratu ziran, oldozkor, kezkatu geratu ziran. Kondaira au entzutean, Tomillartar errikide guztiak, larritu ziran.

Ara zu, alkate jauna, azkenean irakasleak itaundu eban, danborildun gizonak esan dauana, zer deritxazu?

Adiskide, zer nai dozu esan dagizudan. Maltzur, beragaitik abo zabalik egoteko, zoroarazita izateko, baserritar astokillo bene-benetako izar bear dala.

Eta kondea be ba zala diño, Gomisindok iñoan.

Morrosko..., irakasleak begirekada gogor bat egiñez, naizta begirekada au, Retamar lurraldetan egin eban bezelako ain bildurgarria ez izan, mutilla-geldi-arazi eban.

Danak ixil ixilik geratu ziran.

Errekontre! izeko Meregildak esan eban, Ori egia ba da jakin bear dot ba, ala zurru-murru utsa dan.

Jaun errukigarria, danborildun gizonaga urreratuz, jarraitu eban, mezedez esan eistazu gizon gaiztoaren bizia olan izan ba zan.

Guardi sibillek daroanari itaundu eiozu, arek ba dakila uste dot, berritsuak esan eban.

Tomillartarrek oiua ikaragarri bat egin eban, ez dakit arritasun, sumindura, samintasun, Jaungolkoak daki, zerk eragindi oiua izan zan.

Konde jauna! Tomillartarrek danak batera, oiuka esan eben.

Ze konde ta txakur afari! guardi sibilletariko batek, erantzun eutsen. Konde! (Condenado), egun batzuk barru maltzur arlote au, epaitu ta atxilotua, espetxeratua, bai izango da.

Beroiek nondik dakarre?

Alkarriako erri baterik. Bertan azkenengo amabost egun oneitan, konde dala ta, ez

dakit zelako eraiketa bitartez, erria atsegin-toki, ber-bera ez ba da be, guztiz antzekoa bihurtuko ebala opatuz, esanez, Tomillartarrek langatatzen ebazan. Galtzu ta garagarra jakitzat, janaritzat, euki bear eben astokillo areik, itsu itsuan siñesten eutsoen ta.

Bai, jauna, bai jauna, galtzu ta garagarra guretzat janari berezia izan bear leukel, Tomillarta guztiak oiuka esan eben, eta euren lagun duiñakaz, lo egitera, lotara, apal apal eta goibel, abiatu ziran.